

DIALEKTOLOGIA / EUSKALKIAK

Programa Egitaraua



22 de octubre (miércoles) / **Urriaren 22a (asteazkena)**

17:00-17:30

Material banaketa. Aurkezpena

17:30-18:10

I. Camino. "Nafarroako euskalkiak.
Abiaturu teoriko-metodologikoa"

18:10-18:30

Elkarriketa

18:30-18:45

Atsedena

18:45-19:25

G. Aurrekoetxea.
"Nafarroa kartografia linguistikoan"

19:25-19:45

Elkarriketa

19:45-20:30

Fonotekaren aurkezpena

23 de octubre (jueves) / **Urriaren 23a (osteguna)**

17:30-18:10

J.L. Goikoetxea. "Etreko
euskara
eta euskara batua
Nafarroako
eskoletan"

18:10-18:30

Elkarriketa

18:30-19:00

Atsedena

19:00-19:30

P. Inigo. "Euskara batua eta
euskalkiak Nafarroako
hezkuntzan: inkesta baten
emaitzak, kezak eta
ondorioak"

19:30-20:00

P. Rekalde. "Euskara batua eta
euskalkiak Nafarroako
administrazioan: inkesta baten
emaitzak, kezak eta
ondorioak"

20:00-20:30

Elkarriketa

Las conferencias
se impartirán en vascoeseu

**Hitzaldiek euskaraz
izango dira**



NAFARROAKO EUSKALKIAK
Los dialectos del vascuence en Navarra

Uharte, 2003.eko urriaren 22-23



DIALEKTOAK INTERESGUNE

(*Los dialectos del vascuence /
Nafarroako euskalkiak jardunaldien
atarian esandako hitzak,*
Uharte-Iruñea, 2003ko urriaren 22an)

Henrike Knörr,
euskaltzainburuordea

Bada Dialektologia liburu ospetsu bat, ospetsuenetarikoa: Sever Pop erumaniarraren *La dialectologie. Aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques* (Lovaina, 1950). Eta hitzaurrean, lehen-lehenbiziko lerroetan, Antoine Meillet-en hitzen oihartzuna dakar: ezin daitekeela egin hizkuntzaren historiarik dialektologiarik gabe, eta bereziki hizkuntza geografiarik gabe (1).

Urte anitz iragan dira, hiru mende laurden, eta Meillet-en erranak bere indarrean dirau. Iturri oparoa da Dialektologia edozein hizkuntzaren historia ezagutzeko. Ez da iturri bakarra, jakina. Badira testuak, adibidez, garai batekoak zein bestekoak, iraganak eskuetaratu dizkigunak. Baina testu hauetan beretan, nola gutiets dialektologia alderdiak? Zer esanik ez, Barandiaranek bildu ipuin bat eta Leizarraga Kalbino-zalearen itzulpena (1571) ez dira zaku berekoak. Leizarragak –berberak dio *Heuscaldunei* izeneko hitzaurrean– ahalik eta jende gehienarengana nahi zuen iritsi, hizkuntzan eta hiztegian bide batzuk hobetsiz beste batzuen kaltetan, irakurleak testua aise uler zezan eta era horretara Erreformaren mezua argien eta bortitzen heda zedin. Aldiz, Arratiako nekazari batek, demagun, ipuina kontatzean, berez ez du inor ere erakarri nahi; hizketa-lagunak ulertzen saiatzen da, jolas-gura da neurri batean (ohi den bezala), ahozko testu baten bitartez, batera xumea eta konplexua den testu baten bitartez, zeren ipuinik apalenean ere iheskor zaizkigun hizkuntza- eta kultura-gertakarien oihartzun eta isla baitira.

Nabari da euskal Dialektologiak egun bizi duen indarraldia, hutsuneak hutsune. Beranduxka abiatu ziren azterketa hauek gure artean, beste gauza

(1) *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 39, 1929, 200.

askoren antzera, eta batez ere Unibertsitate eta Akademien alorreko gabeziengatik, ahantzi gabe, jakina, Euskal Herriak ezagutu dituen aro goibelgoibelak.

Munduan barrena egiten diren azterketen pare-parekoak dira egun euskararen eremuan egiten direnak. Azterketa horien neurgailu eta erakusgarri egokiak izango dira orain zabaltzen ari garen Jardunaldiak, zalantzarik gabe.

Berezia da Nafarroa, dialektoen ikuspuntutik. Nafarroa Garaiari soilik dagokiola, sei euskalki mintzatzen dira, Bonaparteren sailkapena kontuan hartzen badugu (Koldo Zuazo adiskide eta irakaslekidearen baimenarekin). Euskalkion izaeraz eta egoeraz gogoeta egiteko parada ederra eskaintzen dizkigute Jardunaldi hauek. Datuen aurkezte-gune eta eztabaida-gune izango ahal dira, geroari buruz. Azterketa-gaiak presa du, guztiek dakiten gisan. *La fin des terroirs* delakoa, hots, herri-giroen bukaera, nolabait errateko, aspaldidanik iragarri ziguten. Bai ote? Nolanahi ere den, begien aitzinean dugu hizkeren suntsitzea, eta zeharo itzali baino lehen behar dira bildu. Eta, ahal delarik, bizi daitezen saiatu behar dugu, hizkera horiek gizabanako eta gizamultzoen oinarritzko osagaiak baitira. Horren aldamenean, jakina, jendeak ezagutu eta menderatu behar du euskara batua (hain nafarra!), euskaldungo-arekiko lokarri eta gure garaiko kulturarako eta maila guztietan hezkuntzarako sarbide.

Ez da deus ere aldatu Euskaltzaindiaren asmoa eta nahia: guztion hezkuntza hori gero eta indartsuago bihurtu, zeinahi mugaren gainetik eta zeinahi iritzi eta pentsamolderen gainetik. Eta, denbora berean, dialektoen etorkizunaren alde lan egitea. Beharrezkoa ote da erratea euskara batuak euskalkien bizigarria behar duela, haien kolorea eta zaporea? Izan ere, maiz, maizegi, euskara geza da belarriratzen edo ezpainetarutzen duguna, grazia-rik eta eder-senarik gabe, grazia eta eder-sena ezin utzizkoak direlarik! Eta beharrezkoa ote da erratea batera trabarik gabe mintzo diren euskaldunen premian garela, huts egiteko beldurrik gabe, ustez haiena *euskal gaiztoa* dela?

Euskalkiekiko gure jokabidean zentzua eskatzeko unea da, ongi dakigularik zein diren euskalkien eremuak, eta gehiegikeriak saihestuaz, hala nola lantze eta arautze artifizialak. Adiskide bat gogoratuko dizuet, Georges Guntert, erromanista ezaguna, Zürich-eko Unibertsitateko irakaslea. Gazteko honi lehenbizikoz gertatu zitzaidan egun hartan ikusi eta entzun nuen: bere aitarekin Suitzako dialektoan mintzo zen telefonoz, nik pipe-rik ulertzen ez nuen solasean. Baina berehala idatzi zuen gutun bat etxera, eta hura *Hochdeutsch* ederrean zen, *aleman batuan*, horrela erratea zi-legi bazait.

Ikerketa-gai, jakina, baina oroz gain adierazpide, dialektuek, euskararen izate osoak bezala, laguntza gehiago behar dute, eragozpen gutiago, eta, batez ere, lasaitasun gehiago. Ondare baten oraina eta etorkizuna da. Ondare horren egungo erabiltzaile hutsak gara, behin-behineko jabeak, nahi baduzue, eta ondare hori, hobetua eta aberastua, hurrengo belaunaldien eskuetan ezarri behar dugu.

INTERÉS DE LOS DIALECTOS

(Palabras pronunciadas en la apertura de las Jornadas
Los dialectos del vascuence / Nafarroako euskalkiak,
Huarte de Pamplona, el 22 de octubre de 2003)

Henrike Knörr,
Vicepresidente de la
Real Academia de la Lengua vasca/Euskaltzaindia

En las primeras líneas de uno de los libros más famosos de dialectología, *La dialectologie. Aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques* (Lovaina, 1950), su autor, el rumano Sever Pop, se hace eco de la afirmación de Antoine Meillet de que no hay historia de la lengua sin dialectología y sobre todo sin una geografía lingüística (1).

Pasados los años, casi tres cuartos de siglo, lo dicho por Meillet se nos aparece incontestable. La dialectología es una fuente primordial para conocer la historia de cualquier lengua. No es la única fuente, desde luego. Pensemos en los textos, de una u otra antigüedad, que nos ha transmitido el pasado. Pero en estos mismos textos, a su vez, ¿cómo menospreciar los aspectos dialectológicos? Naturalmente, no es lo mismo un relato recogido por Barandiaran que la traducción del calvinista Leizarraga (1571). Éste se proponía, como indica en el prólogo a los vascos (*Heuscaldunei*), llegar al mayor número de gente, prefiriendo unas soluciones lingüísticas y léxicas en perjuicio de otras, para que el texto fuera comprendido fácilmente por el lector y de esa manera se extendiera con mayor nitidez y fuerza el mensaje de la Reforma. En tanto que un labrador de Arratía, pongamos, al contar un relato popular, en principio no trata de convencer a nadie; intenta hacerse entender por su interlocutor, con intervención del juego, con un texto oral, sencillo y complejo al mismo tiempo, porque hasta en el cuento más humilde hay el eco y el reflejo de realidades lingüísticas y culturales que muchas veces se nos escapan.

Salta a la vista la pujanza de la Dialectología de la lengua vasca en la actualidad, pese a sus lagunas. Estos estudios arrancaron un poco tarde entre nosotros, como tantas otras cosas, y ante todo por la falta de instituciones universitarias y académicas, sin olvidar los tristísimos avatares históricos por los

(1) *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 39, 1929, 200.

que ha pasado Vasconia. Las Jornadas que hoy se abren serán, sin duda, un termómetro de unas investigaciones que ya podemos considerar completamente homologables con las que se hacen en cualquier país de nuestro entorno.

Caso interesante el navarro, por lo que toca a los dialectos. Sólo en la Alta Navarra, seis son los dialectos que en ella se hablan, si nos atenemos a la clasificación de Bonaparte (con la venia de mi amigo y colega Koldo Zuazo). Hoy y mañana tenemos una ocasión inmejorable para reflexionar sobre su naturaleza y situación en estas Jornadas, organizadas conjuntamente por el Gobierno de Navarra y Euskaltzaindia. Que sirvan de adecuado foro de presentación de datos y discusión de puntos de vista, en una materia cuya prisa es evidente. *La fin des terroirs*, 'el fin de los terruños', por aventurar una traducción, es algo que se viene anunciando desde hace muchos años. ¿Es así? En todo caso, es patente la desaparición de hablas que hay que recoger antes de su definitivo colapso. Y, dentro de lo posible, se ha de procurar su mantenimiento como elementos esenciales que son de unas personas y unas comunidades. Todo ello sin perjuicio del conocimiento y dominio de una modalidad, el euskara común, que nos liga a un mayor número de personas y nos da acceso a la cultura de nuestros días y a la educación en todos los niveles.

Hoy como ayer, el propósito de Euskaltzaindia sigue siendo el mismo: avanzar en el fortalecimiento de esa lengua común para todos los vascófonos, por encima de demarcaciones administrativas y por encima de todo credo e ideología, pero al mismo tiempo trabajar por el futuro de los dialectos. ¿Hace falta explicar que el estándar necesita de la savia de éstos, de su color y de su sabor? En efecto, frecuentemente, demasiado frecuentemente, lo que nos viene a los oídos o a los labios es una lengua insípida, sin gracia ni sentido de la belleza, ¡cuando ambas cosas son imprescindibles! ¿Y hace falta decir que precisamos personas que hablen sin trabas, sin temor a equivocarse, porque el suyo es presuntamente un *euskara malo*?

Es el momento de pedir un tratamiento sensato de los dialectos, identificando bien sus ámbitos propios de uso, y evitando exageraciones, como el cultivo y la normativización artificiales, del mismo modo que en otros países de Europa y de fuera de Europa. Me permitiré recordar a mi amigo el Profesor Georges Guntert, conocido romanista de la Universidad de Zúrich, y la impresión que me causó a mí, joven estudiante, la primera vez que le oí hablar con su padre por teléfono. Apenas pude yo entender nada de lo que decía en su dialecto suizo alemán. Ahora bien, la carta que a continuación escribió a su familia estaba en perfecto *Hochdeutsch*, en alemán *batua*, si puedo expresarme así.

Objeto de estudio, desde luego, pero antes que nada modos de expresión, los dialectos, como el conjunto de nuestra lengua, necesitan más apoyo, más ayuda, menos trabas, y, quizá sobre todo, más serenidad. Es el presente y el futuro de un patrimonio, del que no somos más que los actuales usufructuarios, y que hemos de transmitir, mejorado y enriquecido, a las generaciones venideras.

IRIZPIDE METODOLOGIKOAK EGUNGO EUSKAL DIALEKTOLOGIAN

Iñaki Camino ()*

(EHU - Gasteiz, Euskaltzaindia - EHHA)

1. SARRERA

Euskal Dialektologia ez dago hor zeharko beste herrialde batzuek beren dialektoak aztertzeke jardunean erdietsi duten mailan, baina ez daiteke esan hondarreko urteotan euskalkien azterketan aitzinatu ez denik: Koldo Zuazok duela sei urte egin duen euskal dialektoen sailkapen berria da lekuko.

Euskalkiak aztertzeke halako giro berezia sumatu zen Euskal Herrian XX. gizaldiko laurogeigarren hamarkadan, nahiz eta dialektologia goien-barren, sakon eta irizpide teoriko-metodologiko zehatz eta esplizituak baliaturik aztertzeke garaia, iritsi gabea zen: hein batez oraindik ere hau bera gertatzen da, baina batzuen eta besteen eginahalei eta jardunbideei esker, bidean abiatuak garela esan daiteke.

Gurean kokatu ziren unibertsitare ofizialen maila zientifikoak, ikergaiak gutieneko kalitateko oinarria lortzen hastea eragin zuen eta emeki-emeki, fruituak agertzen hasi ziren; egia esan, lehen lanetan helburua ez zen guztiz dialektologikoa: euskalkiak baliaturik hizkuntzalaritzako lan bikainak egin ziren, baina euskalkiak corpusa osatzeko bitartekoak ziren, ez ikergaiaren helburua. Hizkuntzalaritza estrukturalaren adibide nabarmena dugu Karmele Rotaetxek Ondarroako euskara aztertutik egin zuena (1978), urte batzuk lehenago Geneviève N'Diaye-k Baztango euskarari buruz ondua (1970) gogorarazten diguna; fonologia sortzailea bikain aurkeztu zigun Pello Salaburuk Baztango euskara baliaturik (1984); urte berekoa da euskal azentuaren azterketa orokorra eta euskalkien azentu-ezaugarriak jorratzen dituen Txillardegiren doktoretza tesia (1984). Berebat, hango eta hemengo euskalkietako datuak erabiliz, euskal palatalizazioa ederki aztertu zuen Miren Lourdes Oñederrak (1990).

(*) Javier Ormazabalak, Edu Zelaiek eta Koldo Zuazok artikulu honen lehen idatzaldiari egin dizkioten oharrak aberasgarriak izan dira; hirurak eskertu nahi ditut.

Lan horien helburua, ordea, ez da funtsean hizkuntza-geografiako azterketa egitea: hizkuntzalaritzako lanak dira guztiak, unibertsitateko ezagutzaren maila sakona dutenak, baina ez dira Euskal Dialektologian bete-betean sartzen diren ikerketak, hizkuntzalaritza orokorrean eta fonetika-fonologian sartuko genituzke guk: Txillardegirena da, beharbada, hizkuntza-geografiara gehien hurbiltzen dena.

Euskal hizkeren azterketa monografiko sakonak ez zebiltzan urrun. 1991koa da Juan Manuel Etxebarria Aiestaren Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa. Bertan helburua ez da hizkuntza-geografiako lan bat egitea, hizkera baten ezaugarri nagusien orotariko azterketa egitea baizik. Ikerketak ez digu Zeberioko hizkera ondoko mintzoen artean kokatzen, baina deskribapen zabala dakar, gero norbaitek hori egin nahi izanez gero. Zeberioko euskara Arratiakoarekin biltzen du eta Arrigorriagako eta Orozkoko aldatik bereizten (25. or.), baina ez dakar honi buruzko azalpenik eta bestalde, ez zaigu adierazten aldameneko hizkerekin osatzen duen egitura nolakoa den, ez zaigu erakusten loturak eta etenak zertan eta norainokoak diren, ez zaigu zehazki adierazten zein alde dagoen ondoko ibarretako euskarara. Deskribapen bikaina den arren, atomista da eta ez digu dialektologiaren eta hizkuntzaren berezko ezaugarri dinamiko eta dialektiko nabarmen hori aurkezten. Gerora ohitura handia izan da Deustuko Unibertsitatearen inguruan edo Bizkaiko herrietan honelako lan atomistak egiteko: datuak biltzeko lanetik harago ez doazen azterketak ugari dira Bizkaian.

Izaera apaleko erakundea dugu Udako Euskal Unibertsitatea, baina fruitu zenbait eman zuen: laurogeigarren hamarkadakoa da argitaratu zuen *Euskal Dialektologiaren Hastapenak* liburua ere (1983koa lehen argitalpena, 1987koa bigarrena). Ez da liburu bikaina eta euskalkiak aski era beregainean aurkezten dizkigu, baina bestek ez bezala, euskalki guztien berri zabala dakar, bereziki bigarren argitalpenean. Horrezaz gainera, Iruñean uztailean egiten ziren ikastaroetan, euskalkiak ia urteoro aztertzen ziren: Txillardegi irakasleak horretarako prestatu zituen eskoletako apunteak egokiak izan ziren biziki eta bestalde, hainbat gaztek beren lehen urratsak saio hauetan egin zituzten. Bizkai aldean eta oro har Euskal Herri guztian horrenbeste lan egin duen Iñaki Gaminde datorkigu gogora.

Laurogeigarren hamarkadakoa da Euskaltzaindiak kudeatzen duen euskal atlasa ere: *EHHA* edo *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa* –arrazoi politikoak eta ekonomikoak bitarteko 2002an *Euskal Herri Hizkeren Atlasa* berrizendatu dena–, 1986an abiatu zen eta Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain izan ditu arduradun. Datuen argitalpena konplexua eta goiti-beheiti handikoa gertatzen ari da: oraino ez du Akademiak bere lehen liburukia argitaratu, baina berandu gabe kaleratuko dela dirudi.

Laurogeigarren hamarkadan argitaratu zen Aranzadi Zientzia Elkartearen Etnologia Mintegiko kideek ondu zuten *Euskal Herriko Atlas Etnolingüistikoa*

ere (1984, 1990). Atlas honek ez du Euskaltzaindiarenak daukan sakontasunik, baina baditu bi onura handi bederen: egun euskara galdurik den ibar batzuetako datuak dakartza (Arabako Laudiokoak eta Muruakoak eta Nafarroako Erronkarikoak, Zaraitzukoak, Artzibarkoak, Aurizkoak, Txulapaingoak eta Arakilgoak). Bestetik, azken hogeitau urteotan alor honetan lanean dihardugun guztioi, Euskal Herriko hainbat eta hainbat bazterretako etnotestuak ezagutzeko aukera eman digu.

Aipatu ditugun lan edo argitalpen gehienak, laurogeigarren hamarkadan mamituak edo idatziak dira eta garai honetantsu kokatu ditugu Euskal Dialektologiaren berpiztearen lehen urratsak, baina ezin ditugu aiantzi aitzineko hamarkadetako hainbat eta hainbat lan edo izen.

Pedro Irizar zenak, hondarreko gizaldiaren bigarren erdian lan handia egin ez, euskal adizkien bilduma galanta osatu zuen; azken hamarkadetan Koldo Artolaren laguntza izan zuen aldi oro; Euskal Herriko auzo eta zoko guztietako adizki sailak ederki bildurik utzi dizkigu azkoitiarrak. Kartografiaren hasikinak, bestalde, Jacques Allières zenari zor dizkiogu eta gazterik hil zen Kandido Izagirre ere, ezin aiantzi dugu: belarri zorrotzeko datu-biltzaile bikaina zen. Dialektologia teorikoko atal batzuk eta euskalkien datu-bildumak ederki jorraturik utzi ondoan, laurogeigarren hamarkadan joan zitzaigun Koldo Mitxelena bera ere. Bere lana egiteaz gainera, beste ikertzaile batzuekiko harremana landu zuen errenteriarrek: Nils M. Holmer-ek, Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian datu-bildumak eta azterketak egin zituen. Ana Maria Etxaidek Nafarroan egin zituen: lanok Mitxelenaren begirada eta irizpide zorrotzak aiantzat harturik egin ziren. Aitortu behar da sekulako garrantzia dutela egun, Etxaidek Nafarroan 1965 eta 1967 urteen bitartean bildu datuek, erdararatzearen eraginez guztiz ezina baita hainbat eta hainbat ibarretan orain euskal hiztunik aurkitzea. Azkueren *Erizkizundi Irukoitz*-eko emaitzak ere argitaratu zituen Etxaidek (1984), baina arras irakurbide traketsa eskainirik.

Izen, talde edo lan zenbait faltan sumatuko du norbaitek sail honetan, baina ez dago zalantzarik, laurogeigarren hamarkadan Euskal Herrian Euskal Dialektologia lantzeko sortu zen giroa eratzen, garrantzi handia izan zutela arestiko zazpi lagun horiek.

2. DIALEKTOLOGIA KONTRASTIBOAREN ILDOA

Egun, geolinguistikako lanak hizkuntzaren atal ugari aztertu ondoan egin ohi dira, baina garai batean, lanabesak eta datuak bakanagoak zirenean, atal gutiago alderatzen ziren. René Lafon-ek Nafarroa Garaiko Erronkariko, Zaraitzuko eta Aezkoako hizkeretako ezaugarri guti batzuk aztertu zituen (1955), baina Lapurdiko, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Nafarroa Garaiko Baztango eta hegoalde euskalduneko ibar gehiagotako euskararen ezaugarriekin

alderaturik. Koldo Mitxelena berak, Erronkariko euskara Zuberoakoarekin eta Zaraitzukoarekin alderatu zuen fonologiako bederatziz ezaugarritan, Bonaparte printzearen metodologiaren hutsuneak azaleratzeko asmoz (1964a). Saio hauek ikuspegi kontrastiboak dakarren onura, ez da zorigaitzez ondoko urteetako jardunean sobera jarraitu. Gogoan dugu, esaterako, bizkaiera zaharreko hogeita bi ezaugarri beste euskalki batzuetakoekin alderaturik, Joseba Andoni Lakarrak osatu zuen lan diakroniko interesgarria (1986), baina garai horretan guti ziren honelako lanak Euskal Herrian.

Hizkera bat ondoko ibarretako mintzoarekin alderatu gabe aztertzea edo deskribatzea, ez da dialektologiaren bete-beteko helburua, ez da dialektologiaren lehen urratsa baizik; honelako lan atomistak ugari egin dira eta egiten ere dira Euskal Herrian. Esate batera «Euskara biziaren azterketa Etno-Linguistikoa» izeneko proiektua Bizkaian; ez da zertan ukatu deskribapenok dakarten interesa zinez handia dela. Zorionez, era honetako lanak baliatzen dituzte gero, dialektologiaren eredu kontrastiboaren onurak ustiatu, hizkuntza-geografiako edo geolinguistikako azterketak egiten dituztenek.

Deskribapena ez da bidearen eta lanaren lehen atala baizik; non eta ikuspegi atomista gainditurik dialektologia kontrastiboaren onura aitortzen ez dugun, ez gara deskribapenatarik haratago iritsiko. Eredu deskriptiboko dialektologia-lanak bikainak izan daitezkeela jabetzen gara, baina ikuspegi teoriko ahulean, metodologia atomistan eta ikusmira azaltzailerik gabeko eremu errepikakorrean leiratuko gara goxoki Euskal Dialektologian, lan sendo eta sakonen helmugara hurbildu ezinik, dialektologia kontrastiborantz urratsik egiten ez badugu. Dialektologiaren helburua lan geolinguistikoak dira, hizkuntzaren aldakortasuna –baita jarraitasuna eta batasuna ere, egia esan– geografian zehar aztertzen dutenak eta ematen du, honelakoak Euskal Herrian gehienik, azken garai honetan ari direla suspertzen.

Hizkera baten egitura aztertzeko, geolinguistikoki dituen loturak eta etenak ikusteko, mintzo horrek ondoan edo inguruka dituen beste hizkera guztiak, hein batez ezagutu beharra dago; ondoren alderatzea dator, hizkera horiekin guztiekin dituen berdintasun eta desberdintasun mailak ezagutzea. Horrezaz landa, ikertzen den geografia-eremu horretako hizkuntza-aldaerak, ez sinkronikoki bakarrik, diakronikoki ere aztertu behar dira funtsezko ondoriorik aterako bazaigu.

Diogunaz jabetzeko, aski da Oiartzungo hizkeraz Idoia eta Ainhoa Frailek egin zuten lanetik (1996), Koldo Zuazok egin zuenera (1997) doan bideari begiratzea: bi ahizpon deskribapen lan egokia lagun eta Oiartzungo hizkera nolakoa den ikusi eta aztertu ondoan, aldamenean dituen hizkeren alderatu zuen Zuazok Oiartzungoa. Geolinguistikoki so eginez, hizkera honek Euskal Herrian zein kokagune duen aztertu zuen: erdialdeko hizkeretik zer hurbiltasun eta zer urruntasun maila ageri duen neurtu zuen. Euskal Herriko erdiguneko bereizgarriak, euskara nafarraren bereizgarriak, euskara giputzarenak eta

Ipar Euskal Herriko ezaugarriak, Oiartzunen zenbateraino ageri diren aztertu zuen; Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko ohitura lektalak, Oiartzungo hizkeran garai batean egungoak baino bizkorragoak zirela ohartu zen: Bonapartek goi-nafarreran sartu zuen Oiartzungo hizkera, tarteko hizkeratzat daku-sa egun Koldo Zuazok, erdialdeko euskalkira lerraturik.

Atal kontrastiboa eskaini digu oraintsuko lan batean Irantz Epeldek ere (2003): Larresoroko hizkera xeheki aztertu ondoan, Hazparneko euskararen ezaugarriekin alderatu du, Lapurdiko hego-ekialdeko barne isoglosak agerian utzirik. Bonapartek zekuskien lapurtera eta mendebaleko behe-nafarrera euskalkien dialekto-mugaren izaeraz, argitasun gehixeago utzi digu Epelderen lanak (330 or.) eta beste behin, Bonaparteren irizpideen erlatibotasuna eta ahultasuna nabarmen gelditu dira guztiontzat. Halaz guztiz ere, bada gurean Bonaparteren metodologia oraindik ere baliagarria dela eta berarekin jarraitu beharra aldarrikatzen duenik; ikus Rosa Miren Pagolaren iritzia 1998/I/28ko *Euskaldunon Egunkaria*-n, 13. or.

Eredu kontrastiboa eta ikuspegi geolinguistikoa erabili duten lan gehiago ere aipa daitezke; guk sorta bat dakargu hona, sistematikoak ez garela eta guztien berri ematen ez dugula jakinik ere. Hurrengo eremu edo eskualdeota-koak dira:

- * Arabako euskara (Koldo Zuazo 1989a, 1998c).
- * Zuberoako euskara (Koldo Zuazo 1989b).
- * Aezkoako euskara (Iñaki Camino 1994, 1997).
- * Burundako euskara (Koldo Zuazo 1994).
- * Ultzamako euskara (Orreaga Ibarra 1995a).
- * Bizkaiera (Gotzon Aurrekoetxea 1995).
- * Euskalkiak oro har (Koldo Zuazo 1998a).
- * Nafarroako hizkerak (Koldo Zuazo 1998b).
- * Baigorriko euskara (Koldo Zuazo 1999b).
- * Goñerriko euskara (Iñaki Camino 1999-2001).
- * Luzaideko euskara (Patxi Salaberri Zaratiegi 2000).
- * Esteribarko eta Erroibarko euskara (Orreaga Ibarra 2000).
- * Donostiako euskara (Iñaki Camino 2000).
- * Debarreneko euskara (Koldo Zuazo 2000).
- * Sakana erdialdeko euskara (Jose Luis Erdozia 2001).

- * Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko euskara (Irene Hurtado 2001).
- * Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara (Estibalitz Montoya 2002).
- * Hego-nafarrera (Iñaki Camino 2003a eta b).

3. ISOGLOSEK OSATZEN DUTEN SAREAREN EGITURAZ

Hizkuntza-espazioaren egitura aztertzeko, hizkuntza-aldarek geografian zehar hartzen duten hedadura ulertzeko, dialektoen izaeraren gibelean zer dagoen aztertzeko, biderik egokiena dialektologia kontrastiboa egitea dela adierazi dugu. Halaz guztiz ere, hau guztia ez da lanaren hasiera baizik. Behin datu biltzen hasiz gero, dialektologialaria ez da hutsetik abiatzen, ezagutza teoriko eta lehentasun metodologiko jakin batzuk ditu, bera hezi den ingurumarian ezagutu eta barreneratu dituenak: hasierako lanetan horiek edo horien iduriak erabiliko ditu, lehen artikuluetan, doktoretza-tesian...; ondoko ikerlanetan ikuspegiak eta laneko moldeak finduko eta zorrozuko ditu.

Corpusa biltzen diharduen ikertzaile honek, badaki datuak ez direla nolanhika antolatzen, eratu duen gramatika edo eraikuntza horrek arkitektura jakin bat eduki beharko duela eta, eraikuntza hori osatu ondoan, atal batzuk besteak baino gehiago landu beharko dituela, aztertzen diharduen hizkera edo dialektoko hizkuntza-osagai guztiak ez direla bere ikerketan balio berekoak gertatuko, eta batzuk besteak baino anitzez gehiago erabili beharko dituela eta konparazio sakonagoen partaide izanen direla.

Hizkera bat aztertzeko ezaugarriak hautatu behar dira, baina aukera egin beharrak, arazoak eragin ohi ditu: hizkera bat besteetarik bereizteko eta euskalkien artean kokatzeko, ezaugarri guztiek ez dute garrantzi bera, desberdintasuna finkatzen dutenak dira garrantzizkoenak, baina baieztapen horretatik ez da jarraitzen, eremuen arteko hizkuntza-jarraitasuna eta batasuna ageri duten ezaugarriek, garrantzirik ez dutenik, hizkuntzaren izaera ez diskretua erakusten baitigute: konbergentzia guneak, berrikuntzen hedadura eta hizkeren, azpidialektoen eta dialektoen arteko loturak azaleratzen dizkigute ezaugarri jarraikorrek. Ondoko hizkerekiko edo dialektoekiko berdinak diren ezaugarriek, ez dute balio hizkera edo dialekto bat definitzen duten ezaugarriak zein diren jakiteko, baina espazioan hedaturik dagoen komunikazio mailaren berri emanen dute.

Dialektoak lotzen dituzten hizkuntza-ezaugarriak, banatzen dituztenak bezain garrantzizkoak direla esan ohi da; cf. Videgain (1987: 146). Hizkera bat dialekto batean kokatzeko, desberdintasunak markatzen dituzten isoglosek bezainbat balio dezakete hedadura handiko ezaugarri batzaileek: hauek ere irudikatzen dute hizkera bat, kokatzen eta egituratzen dute geolinguistikoki, ezau-

garri horiek batera dituzten hizkerak, dialekto edo dialekto-sail berera biltzen dituzte frankotan.

Dialektometriaren aldezleek (cf. 6. §) ez dute argi ikusten zeri eman behar zaion garrantzia, zer neurritan eta nola, distantzia linguistikoa neurtu nahi denean; elkarri gainjarritako isoglosek osatzen dituzten sistemen gaitasun sailkatzaileaz espekulatzea arriskugarritzat jotzen dute.

Argi dago ikertzaileak hizkuntza-osagai batzuk hautatu beharko dituela lanerako eta hori, irizpide eta helburu jakinak dituelako eginen du. Besterik da, gero, inplizituak izan daitezkeen irizpide horiek, bere lanean argi eta garbi aurkeztu gabe isilpean estali diren, baina horrek ez du esan nahi, lanaren funtsean irizpide horiek falta direnik edo abian jarrarazi ez direnik: izatekotan, ikertzailearen ingurumarian, irizpide teoriko-metodologikoei buruzko eztabaida sakonetarako tradizio sendorik ez dela izan salatzen du horrek, ez irizpiderik ez dagoenik. Gure ustean hauxe da Euskal Dialektologian azken urteotan gertatu dena, baina esan liteke, duela hamar urte baino hobeki gaudela orain. Irizpideak badaude, erabiltzen dira, ikerketa batzuetan beste batzuetan baino egokiago, azterketa batzuetan beste batzuetan baino esplizitua go, baina badaude: azalean ez baldin badaude, sakonean bederen bai.

Dialektologiako azterketa bat egitera abiatzen garenean, zer nolako jokoa arauak erabili behar ditugun galdegitea funtsezko jarduna da: hizkera bat definitzeko zein hizkuntza-ezaugarri hautatuko edo hobetsiko diren, erakutsi beharreko gauza da. Hizkera bat euskalki bat edo dialekto bat dela defendatzeko, datuak eta balizko hizkuntza-gertakariak, xuxen eta teoria baten arabera antolatatu behar dira; hizkera horri zein estatus ematen zaion, horrexen ondorioa da eta baliatzen den metodologiarekin lotura zuzena du.

Oro har eta sobera sakontasunetan sartu gabe, esan daiteke isoglosak finkatzeko gaitasuna duten ezaugarriak nahi izaten direla dialektologian. Isoglosa, hein batean bederen, desberdinak diren edo elkarri oposatuak diren bi aldaerak elkar topo egiten duten gunean ageri da; hartara, hizkuntza-ezaugarri bati dagokion jauzi edo eten batek, isoglosa bat eratzen du. Isoglosa ugari elkartzen den gunean, edota elkarrengana biltzen diren isoglosa batzuen estatusa edo sistematikotasuna nabarmenak diren eremuan, ezaugarri dibergente deigarriak biltzen diren gunean, dialekto-muga dagoela pentsatu ohi dute ikertzaileak nahiz hiztunek.

Dena den, desberdintasun horren izaeran eta eten geolinguistikoaeren egituran sakontzea komeni zaio dialektologialariari. Adibide batzuek erakutsiko dute hobekien adierazi gogo dugun ideia:

* XIX. mendean, Iruñerriko euskararen, goi-behe doan isoglosa sail batek bereizten ditu mendebaleko eta ekialdeko hizkera-eskualdeak: *-nean* atzizki denborazkoa, *-ak* ergatibo plurala, *-etatik* ablatibo plurala, genitibo singularreko *-an*, *bi* zenbatzailea eta lexikoko *txal* 'txahala', *berandu*, *ille* 'artilera', *iltze* 'iltzatzen

dena' edo *maiz* atalak Oltza zendean eta hortik mendebalera ditugu; aldiz, Eguesibarren eta hemendik ekialdera, *-larik* atzizki denborazkoa, *-ek* ergatibo plurala, *-eta(r)ik* ablatibo plurala, genitibo singularreko *-ain*, zenbatzaileetan *bi* eta *bida* arteko bereizketa gramatikala eta lexikoko *aratxe*, *berant*, *elle*, *itze* edo *usu* atalak ageri zaizkigu. Jakin beharke genukeena da, ea zein eratako isoglosa saila den hori, ea zein estatus duen euskal hizkeren artean isoglosa multzo honek, ea jauzi edo eten lektal honek zer bereizten duen: hizkerak, azpidialektoak, dialektoak ala eremu supradialektalak. Horri erantzuteko, aipatu diren hizkuntza-ezaugarrien geografia-hedadura xeheki ezagutzea gauza beharra da.

* Berdin-berdin galdegin genezake, eremu horretatik goitixeago igan eta *-rtz-* / *-st-* kontsonante multzoek sortzen duten etenaz galdeginez gero. Imotzen *bost* aldaera dena eta Ultzaman *bortz* dena, *bost* & *bortz* da Atetz ibarrean eta Goizuetan *bost* dena, *bortz* esan ohi da Bortzerrietan, baina zer da zehazki txandaketa ezagun honek bereizten duena, bi ibarretako euskara, bi eskualde-hizkera, bi eremu dialektal, ala hedadura handiko bi eremu supradialektal zabal?

Dialektologiaren metodologian aitzinatu nahi izanez gero, honelako galderak baitezpadakoak gertatzen dira. Gai honek garrantzi handia hartzen du azken euskalki banaketa aurkeztu duten lanetan; cf. Zuazo (1998a eta 2003: 22). Isoglosen sarearen egituraz gogoetatzea baitezpadakoa da, hizkeren eta euskalkien mugak non ezarri jakiteko: isoglosa batzuek hizkerak, beste batzuek azpieuskalkiak, beste batzuek euskalkiak eta, azkenik, beste batzuek konbergentzia eremu handiak bereizten dituzte. Arestian aurkeztu dugun Iruñerriko adibideak argi erakusten du, bereizten edo banatzen dena ez direla bi hizkera edo bi euskalki bakarrik, bi konbergentzia eremu handi bereizten eta banatzen dituzte arestian aipatu ditugun ezaugarri horietarik batzuek (cf. Camino 1999: 18): ergatibo pluraleko *-ek*, ablatibo pluraleko *-eta(r)ik*, zenbatzaileetan *bi* eta *bida* & *biga* arteko bereizketa gramatikala eta lexikoko *aratxe*, *berant*, *itze* edo *usu* atalak, ez dira Oltza zendeako eta Eguesibarko euskara bereizten duten ezaugarriak, Lapurdiko, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Baztango euskara, hego-nafarrerarekin (erdialdekoarekin eta ekialdekoarekin, hain zuzen) eta ekialdeko nafarrerarekin lotzen dituzten ezaugarri supradialektalak dira.

Honekin ez da adierazi nahi, ordea, aipatu ditugun ibarrok eta hizkerok, guztien artean euskalki bat eratzen dutenik, beren artean ezaugarri batzuetan batasuna dagoela baizik, supradialektala den batasuna. Baina horrek ez digu pentsarazi behar, hego-nafarreraren atal batzuk, erdialdekoa eta ekialdekoa, zehatzago esanik, Eguesibar, Erroibar, Artzibar eta Aezkoako hizkerak, aipatu ditugun beste horiekin ongi sailkaturik gelditzen direnik; cf. Rosa Miren Pagola (1992: 42 eta 58). Hego-nafarrerakook badituzte beren berezko ezaugarriak, batasuna eta espezifikotasuna ematen dietenak, arestian aipatu ditugun, Baztango edo Ipar Euskal Herriko beste mintzo horietarik bereizten dituztenak.

Funtsean, darabilgun gai honetan, edo dialektologiako lan bat egiten hasi baino lehen, hizkuntza-ezaugarri bat hizkera edo euskalki baten bere-berezkoa den, ala eremu zabalago batekoa den jakitea, zein garrantzizkoa den jabetu beharko genuke: hizkuntza-ezaugarrien eskusibotasuna garrantzi handiko gaia da dialektologian, hala eremu urriko lanetan, nola eremu hedatuagoez dihardutenetan.

Ez dago zertan esanik, eskusiboak diren ezaugarri ugari dituen hizkera bat, dialekto izatetik hurbil dakusala ohiko dialektologialariak. Bere-berezkoak dituen ezaugarriak zenbatenaz gehiago izan, hainbatenaz bereziagoa eta espezifikagoa sentituko dugu mintzo bat: bere ezaugarriak bereziak, urrunak edo bitxiak irudituko zaizkie konbergenteagoak diren beste hizkeretako hitzunei. Horretan, kontua ez da geografia-eremu jakin batera isoglosa ugari biltzen direla bakarrik: ageri diren desberdintasunen kalitatea edo izaera aintzat hartzen da, hizkuntza horretako hitzun gehientzat ezaugarriak bereziak eta ezezagunak baldin badira.

Euskal Herriko erdiguneko tradiziozko hitzunek, aski dute Erronkariko euskarak dituen berezitasun batzuei begiratzea: berek ez dute Erronkarin ageri den bokal sudurkaririk erabiltzen, ez dute *berze*, *borz* edo *orzegun* hitzetaiko «rz» kontsonante taldea erabiltzen, berria da berentzat *kau(r)*, *kori*, *kura* izenordainen sistema edo *kain* ‘hain’, *kala* ‘hala’, *kan* ‘han’ adberbioen sistema, ez dute erabiltzen *gatzelu* > *gatzulu*, *zimur* > *txumur*, *zintzur* > *tzuntzur*, *eguzki* > *eguzku* edo *mutil* > *mitil*, *zubi* > *zibi* & *zubu* erako asimilaziorik, ez dute *gaiza* ‘gauza’, *gai* ‘gaua’ edo *aizo* ‘auzoa’ bezalako diptongo aldaketarik ezagutu, ez dute *alte* ‘aldea’, *igante* ‘igandea’, *altatu* ‘aldatu’, *altapa* ‘aldapa’, *abentu* ‘abendua’, *borontate* ‘borondatea’, *onki* ‘ongi’ kontsonante talderik hitz horietan, eta ezezagunak dira berentzat, esaterako, hurrengo hitzen aldaerok: *bedratzu* ‘bederatzi’, *emeretzu* ‘hemeretzi’, *errin* ‘errun’, *ikaldi* ‘ukaldia’, *aurer* ‘alferra’, *jein* ‘jauna’, *ellu* ‘eulia’, *eltzu* ‘eultzi’, *orkitu* ‘iguriki, itxaron’, *anaxe* ‘anaia’, *batixatu* ‘bataiatu’, *gentu* ‘kendu’, *burar* ‘bularra’; berebat, berentzat ezezaguna da *dur* ‘dut’ adizki aldaera.

Inork ez lezake uka, eskusiboak edo eskusiboxeak direla, Zuberoan ere bai baitira arestiko ezaugarri horietarik batzuk, Erronkariko euskaran ageri diren ezaugarriak: Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako, Lapurdiko edo Nafarroa Behereko ohiko euskaldunek hizkera berezi hori entzunez gero, arras euskara bitxitzat joko lukete Erronkarikoa, eta zinez neke lukete mezuaren erdia baino gehiago ulertzea, Bonaparteren garaian Bruno Etxenikeri eta Klaudio Otaegiri gertatu bezala; cf. Miguel Rodríguez Ferrer (1873: 72).

4. IRIZPIDE TEORIKO-METODOLOGIKOAK

Etenak eta loturak finkatzeko baliagarri diren hizkuntza-ezaugarriak zein diren jabetu ondoan, hauen guztien artean lanerako egokienak hautatzea da

kontua. Metodologiaren alderditik so eginik, hizkeren arteko mugak finkatzeko eta distantzia linguistikoa hobekien zehazteko gehien laguntzen duten ezaugarriak edo gehien baliatzen diren tasunak zein diren adierazteko, baldintza batzuen berri ematea baitezpadakoa da. Jardunerako erabil daitezkeen hizkuntza-ezaugarriak bereizteko eta sailkatzeko irizpide nagusiak, honakoak izan daitezke:

1) Ezaugarriaren esklusibotasuna: ea ezaugarriak hizkera bakar batekoak ote diren. Esaterako, Zaraitzuko *alabára*, *elizára*, *karrikára*, *uskarára* ‘euskarra’ absolutiboko aldaeretan ageri den *-a + a > -ára* bukaera analogikoa, zaraitzueraren bere-berezkoa da: ez da Erronkarin, Zuberoan edo Aezkoan ageri, ibar horretakoa da soilik. Berebat, mendebaleko hizkeretako instrumentaleko *-a(ga)z / -akaz* morfema ez da Euskal Herrian beste inon ageri. Nafarroa Garaikoa da, bestalde, instrumentaleko *-s* atzizkia, ez da beste inon ageri. Hego-nafarrerakoa da soilik (*g)ebek* ‘hauek’ erakuslea, Euskal Herrian ez da azpieuskalki honetatik landa beste inon erabiltzen, beraren bere-berezkoa da.

Metodologikoki, garrantzia aitortzen diegu guk ia esklusiboak diren ezaugarriei, oso aintzat hartzen ditugu. Esaterako, Bonapartek zekusan gipuzkera euskalkiaren barrenekoa litzateke pluraleko *ze(r)a* ‘zara’ & *ge(r)a* ‘gara’ adizki pareak; egia da gipuzkeraren aski esklusiboa dela, baina ñabardurak eginik, Gipuzkoa barreneko eta ondoko goi-nafarreraren ere erabiltzen baitira honelako aldaerak: Errenterian, Lezon, Oiartzunen, Hondarribian, Irunen, Aranon, Goizuetan, Bortzerrietako bazter batzuetan (Beran, Lesakako Alkaiaga auzoan, Etxalarren), Sunbillan, Iturenen, Urrotzen, Legasan eta Oronozen bederen, entzuten dira adizki hauek. Berebat, hego-nafarrera guztian, baina baita Zaraitzun ere, metatesi bidezko *-oi > -io* bukaera dugu mailegu zaharretan: *matio* ‘matoia’, *sario* ‘sarioia’, *arratio* ‘arratioia’, *arrazio* ‘arrazioa’... Hego-nafarreraren ia esklusiboak dira hurrengo hitz edo aldaerak ere, Zaraitzun ere erabili direla ahantzi gabe: *butzu* ‘putzua’, *ellorri* ‘elorrria’, *entendatu* ‘ulertu’, *eskui* ‘eskuina’, *iago* ‘gehiago’...

2) Geografiaren iragazkia: ikertzaileak xeheki aztertu beharko du eskuartearen darabiltzanak ezaugarri banatzaileak diren ala ez diren, ezaugarriok hizkeraren eremu guztia harrapatzen duten ala ez duten. Esaterako: **iro* erro-tik sortzen diren ahaleko adizkiak, pluraleko datiboko *-er* morfema, ekialdeko hizkeretako *-a* galdera morfema edo «izan» aditzaren *niz*, *hiz*, *gira* edo *zira* erako aldaera diptongatu nahiz analogikoak, ez dira zubereraren esklusiboak, baina Zuberoako euskara osoki harrapatzen dute ezaugarriok. Mendebaleko euskaran, *aume* & *suma* da ‘antxumea’ adierazteko hitz erabiliena, baina ekialdeko alderdian (Eibarren, Bergaran, Oñatin...) *antxuma* erabiltzen da: *aume* & *suma* aldaerak ez du mendebaleko euskalkia bere osotasunean batzen. Halaber, *añube* ‘ospela’ hitza mendebaleko euskalkian ekialdekoa da solik, ez da Bizkaiko erdialdean ezta mendebalean ere entzuten, hor *kontrasol* mailegua nagusi dabil. Aldiz, *eguskibegi* ‘egutera, eguzkialdea’ hitzak –ekialderago Na-

farroan eta Ipar Euskal Herrian *iguzkibegi* edo *iduzpegi* erako aldaerak dituen-, mendebaleko euskara guztiz batzen du, Getxo - Deba - Oñati - Orozko ertzetaraino iristen baita Bizkaiko barren guztia ere harrapatuturik, *yausi & jausi* 'erori' hitzaren kasuan gertatzen den bezalaxe.

Dialektologiaren historian behin eta berriz errepikatzen dira hurrengo galderok: zenbat isoglosa edo zenbat ezaugarri berezi behar dira hizkera bat definitzeko? Sorta tinko eta gotorra osatu behar ote dute isoglosok? Aski ote da isoglosa edo ezaugarri bakar bat? Batzuen ustez, ezaugarrien edo isoglosen bilkurak definitzen du hizkera, azpidialekto edo dialekto bat. Hona M. B. Eme-neau-k «Hizkuntza-eremua» edo *Linguistic Area* delakoa definitzeko eskatzen duen baldintza, zeinak arestiko gure lehen eta bigarren irizpideak batera biltzen dituen (1980 [1978]: 2):

The first necessity is to establish a typological feature as pan-Indic and at the same time not extra-Indic. Once several features have been established as having the same boundaries, so that there is an approximation to a «bunching of isoglosses», the linguistic area can be considered to be typologically established.

3) Hizkuntza-ezaugarrien hedaduraren zabaltasuna: ikertzaileak aztertu behar du darabiltzan datuak eskualde anitzetakoak, eremu zabalekoak ala murriztagokoak ote diren; Euskal Herri gehiengan, mendebalean, erdigune zaballean, Nafarroa Garaian edo Ipar Euskal Herri guztian erabiltzen diren ezaugarriak ote diren, ala ibar bakar batekoak edo bakan batzuetakoak diren: *gaziéia* 'gaztea', *iztartéia* 'iztartea, hankarte', *sugéia* 'sugea' erako berranalisiak, esaterako, soilik Aezkoa ibarreko aldaerak dira eta ibar honetan, badirudi Arian bakarrik entzun daitezkeela. Berebat, *artoma* 'artoa', *ardaoma* 'ardoa' lekuko aldaerak dira, soilik Orozkon entzun ohi direnak.

4) Ezaugarriak berrikuntzak diren, arkaismoak diren ala hautuak diren. Ez da gauza bera dialektoen banaketa berrikuntzak bakarrik aintzat harturik egitea –pluraleko *kurak* erakuslea, *-aren* > *-ain* laburdura, *-a + a* > *a* laburdura, *-u + a* > *-uia* epentesia...– ala arkaismoak ere aintzat harturik egitea: *aizta* / *aizpa* aldaerak, *kau(r)*, *kori*, *kura* erakusleak, *etorten & igorten* / *etortzen & igortzen* pareak, *egoiten & joaiten* / *egoten & joaten* pareak, *berri* / *barri*, *beltz* / *baltz*, *ile* / *ule* txandaketak... Dialektologialariak aukeran du bere jardun metodologikoan *deutso & dotza* / *dirautzo* / *dio* / *derauko* / *dako* / *de-reio* / *deio* erako aldaerak aintzat hartuko dituen edo ez dituen. Usu, banaketa aski koherenteak era ditzakete aldaerok geolinguistikoki, eta ikertzaileak, erabiliko dituen ala ez dituen erabaki beharko du.

5) Kronologiaren baldintza: elkarrengandik urrun dauden aldietako datuak baliatzen ari garen, ala datu garaikideak darabiltzagun. Lanerako XVI. mendeko Perez de Lazarragaren, Landuchioren edo Betolatzaren datuak erabiltzen ari garen, XVII. mendeko Gamarrarenak edo Luzuriagarenak erabiltzen ari garen, XVIII.eko Garcia de Albenizenak ditugun, ala XX. mendean Jose Antonio Gonzalez Salazarrek bildu toponimoak darabiltzagun, argi izan

behar dugu lana egin baino lehen; ondorioak ateratzerakoan, anakroniak saihesteko arreta izanik lan egin behar da, diakronikoak diren desberdintasunak dialektologikotzat hartzeko arriskutik ongi begiraturik.

Dialektoen taldeak eratzeko, hizkuntza-ezaugarrien kronologia ezagutzea biziki lagungarria da; Hans Peters-ek dioen bezala (1988: 408), geografiaren araberrako edo kronologiaren araberrako hizkuntza-desberdintasunez gainera, elkarren gurutzaketak ere aztertu behar dira:

...chronological differences that go back to geographically-based differences, i.e., which are due to influence exerted by one dialect on another.

6) Ezaugarriaren sistematikotasuna: gramatikaren aldetik bereizgarri emankorrek ote diren, paradigma oso bateko era guztietan aldi oro ageri direnak, ala aldaera zenbaitetan fosilizaturik gelditu den bilakabide baten emaitza diren. Sistematikotasunari eta emankortasun gramatikalari zer garrantzi eman behar zaion alde aurretik erabakitzea, baitezpadakoa da: ea eratorpen atzizki bati eta adizkietan behin eta berriz errepikatzen den morfema bati, garrantzi bera eman behar ote diegun; izenordain baten aldaera bat eta etengabe errepikatzen den arau fonologiko bat, ea maila berean ezar daitezkeen. Eman dezagun datuen artean lehen graduko ergatiboko (*h*)*auiek* ‘hauek’ erakuslea –vs. (*h*)*auk* edo *hok*– eta *-u + a > -uia* epentesia ditugula. Bigarren epentesia, *-u* bokalaz bukatzen diren hitz guztietan sistematikoki gertatzen den bilakabidea da; aldiz, erakuslekoa ez da paradigma zabal batekoa, adibide horretan bakanrik gertatzen dena baizik, pluraleko gainerako erakusleen analogiaz sortua, hiztunak *hoiek & hoik, heiek* gogoan dituenek: gertakari sistematikoena, emankorrena, hiztunaren jardunaren gramatika gehien errepikatzen dena, morfema mugako epentesia da, ez lehen graduko erakuslean gertatu dena.

Beste adibide bat ezar dezakegu: *oren* ‘horren’ erakusle genitiboaren aldaera soilduak, (*h*)*arren* / (*h*)*aren* txandaketak eragin ahal izan duen adibide analogikoa dirudi. Aldaera hau hego-nafarreran nahiz Odieta ibarreko Ziaurritzen (Nafarroa Garaia) ageri da: baina eremu horietan, *oren* erabiltzea ez da ohikoa, *orren* da ohiz erabiltzen dena. Genitibo singularreko bigarren graduko erakuslearen aldaera soildu hau ez da batere ohikoa euskara orokorrean eta alde horretatik, espezifikotasuna leukake, baina adibide solte eta ezaugarri asistematikoa da, ez du arau batek duen agerpen maiztasunik edo indarrik.

Euskal Herriko euskalki guztiez diharduen lan zabal batean, sistematikoak diren ezaugarriak metodologikoki hobestea ulertzekoa da (cf. Zuazo 1998a), baina ez du zertan horrela izan eskualdeei dagozkien beste lan edo ikerketa batzuetan: jokabidea malgutu daiteke, bereziki desberdintasun-maila sakonik ez duten eta elkarren ondokoak diren bi hizkera alderatzen ari garenean. Halaz ere, isoglosa multzoak finkatzean, dialektologialariak nahiago du sistematikoak diren bilakabideak eskuarteaz edukitzea, asistematikoak eta aleatorioak diren berrikuntza sorta bat baliatzea baino.

Dialektologialariak lanerako hobesten dituen ezaugarriak sistematikoak direnak baldin badira, badu honek ondorio zuzen bat aztertzen diren gramatikako alorrei dagokienez: ulertzekoa da dialektoak aztertzeko eta elkarrengandik bereizteko edo banatzeko, emankorrenak diren atalak fonologia –azentu sistema barne, jakina– eta morfosintaxia izatea. Aldiz, fonetika eta lexikoa, sistematikotasun guttiagokoak izanik, ez dira horren emankorrak. Koldo Mitxele-nak ere halaxe zekusan kontua 1976ko artikulua batean ([1985]: 83-85). Zioe-nez, euskal tradizioan aditzaren morfologiari eman zaion garrantzia ulertzekoa da, hain baita aberatsa alor hau euskaraz, baina erromanisten eta germanisten tradizioaren ildotik, fonologiari erreparatzea ere gauza beharra zekusan. Dialektologian lexikoak eta sintaxiak eskain dezaketen emankortasunaz ez zen fidatzen: beharbada, batak gehiegizko zurruntasuna eta besteak gehiegizko aldakortasuna eta asistematikotasuna ageri dituztelako.

Euskal hizkerak banatzeaz diharduen lan batean, 170 ezaugarri proposatu ditu Gotzon Aurrekoetxeak (1996): fonologiako 63 (% 37), izenaren morfologiako 41 (% 24'1), aditzaren morfologiako 35 (% 20'5) eta sintaxiko 31 (% 18'2). Koldo Zuazoren 1998ko lan orokorrean, 108 ezaugarri ageri dira: fonologiakoak 31 dira (% 28'7), izenaren morfologiakoak 29 (% 26'8), aditzaren morfologiakoak 36 (% 33'3) eta sintaxikoak 8-11 artean (% 7'4 eta 10'1 artean), azken hauetan hiru ezaugarri morfologiakotzat ere har bailitezke. Goñerriko euskara eta oro har hego-nafarrera aztertzen duen gure lan batean (1999-2000), 145 ezaugarri aztertu dira: fonologiako 34 (%23'4), izenaren morfologiako 35 (%24'1), aditzaren morfologiako 56 (%38'6) eta sintaxiko 20 (%13'7). Bana beste hiru azterketak harturik, honako zifrak ateratzen zaizkigu: fonologiak aztertuturikako ezaugarrien %29'7 hartzen du, morfologiak %55'8 eta sintaxiak %14.

Gauza ezaguna da lexikoa errealitateari eta kulturari guztiz loturik dagoela eta, honenbestez, aldatzeko joera ere handia izan dezakeela. Euskalkiez egin den azken sailkapen proposamenduan, lexikoa ez da aintzat hartu, biziki zailtzen baitu horrek lan orokorraren egitura; Koldo Zuazoren 2003ko lanean dator lehen saioa. Lexikoaren azterketak dakarren emaitzaren erlatibotasuna, argi eta garbi gelditu da hego-nafarreraz egin ditugun lanetan (Camino 2003a eta b), baina horrek ez du adierazten, lexikoaren azterketa eremu elkorra denik; Euskal Herriko eremu ugaritan, dialekto-mugaren edo azpidialekto-mugaren eta atal lexikoari dagozkion isoglosen bat etortzea, begien bistan dagoen gauza da: Andimendiaz bi aldeetara dagoen muga lexikoa, Ateztik Esteribarre-ra dagoena edo Aezkoatik Garazira eta Zaraitzura dagoena, nabarmenak dira, Oltza zendeatik Eguesibarrera dagoena bezainbat. Etorkizunean etorri beharko duten azterketa geolexikoek erakutsiko digute atal hau ikertzeak emaitza opa-roak dakartzala.

7) Ezaugarrien fidagarritasuna: literaturatik harturikako ezaugarri edo aldaerak, idazki dialektaletan ageri direnak, aztertzen dihardugun mintzokoak zinetan eta benetan direla dakigunean erabil daitezke soilik, ziurtasun hori du-

gunean bakarrik; bestela, literaturaren bidez hedadura lortu duen ezaugarri bat, hizkera honetako edo hartakotzat jo daiteke makur, dialektologia-azterketa hondaturik edo baldintzaturik. Soziolinguistika historikoa dagoen bezala, hizkuntza bateko filologia-azterketen egoera eta maila guztiz loturik dago honekin guztiarekin.

Aipagarria den idazki mota bat bada, nork egina den ez dakiguna: honako edo halako herritan agertu dela da dakigun bakarra; gainera, agertu den herrian, dagoeneko ez da euskaraz egiten eta ez dago, beraz, inolako beste lekukotasunik agertutako idazkiarekin alderatzeko, herri horretako euskara jatorraren ordezkaria dela jakin ahal izateko. Beharbada, idazkia fidagarria da, herri horietako euskararen ordezkari jatorra, baina ez dugu inolako modurik hori frogatzeko. Egoera honexetan daude Elortzibarko Zabalegiko eta Deikatzeluko predikuak. Honelako kasuetan Hans Peters-en hitz metodologikoak aintzat hartzekoak dira biziki (1988: 408):

Ideally, a dialect area should not be investigated on the evidence of a single text; this method can be adopted only as a last resort, that is, if there simply is no other surviving record of a given dialect at a given time, as is often the case in Early Middle English. In such instances, great care must be taken to ascertain the date and provenance of that text as reliably as possible.

5. DIALEKTOAK ERATZEKO JARDUNA

Ez dugu finkatu zer den dialekto-muga bat; ez dugu finkatu, bestalde, dialekto bat non hasten den eta non bukatzen den eta hurrengoia non hasten den jakiteko, zer egin behar den. Ez dugu adierazi distantzia linguistikoa objektiboki nola neur daitekeen. Izan ere, dialektoen arteko trantsizio motez *grosso modo* mintzaturik, mailaz mailakoak eta bortitzak aurki ditzakegu (Taelde-man 1989), eta dialekto motetan ere, beste bi era bederen bereiz ditzakegu: a) konbergenteak direnak, euskararen kasuan erdigunekoak eta b) dibergenteak, euskararen kasuan bazter hizkerak.

Ordea, dialektoak bereizten hasi baino lehen, hizkuntza-ezaugarrien hedadura geografikoaren ereduak bilatu nahi izaten dira, isoglosa-sorta osatzen duten marrak elkarrengana bil daitezen, eremuaren banaketan halako koherentzia geolinguistikoa izan dadin. Hauxe izan da Koldo Zuazoren lanaren aldiririk berritzaileena eta atera dion mozkina da, lan egiteko eraren bermea.

Lanaren lehen alderdia, beraz, hautatu diren hizkuntza-ezaugarriek harraipatzen duten geografia-hedaduraren arabera, ezaugarri taldeak bereiztea da. Honaino edo haraino iristen diren berrikuntzak zein diren ohartzeara, halako ibarretaraino iristen ez diren berrikuntzak ongi bereiztea, alde batera nahiz bestera begira dauden eremu *pivot*-ak aurkitzea, *remanent* edo gordetzaila diren eskualdeen jokabidea aztertzea. *Remanent* izendatu ohi diren eremuak edo hiz-

kuntza-ezaugarriak eta beren jokaera ongi aztertzekotan, beti izanen da interesgarri, Euskal Herriko hizkera guztietan zehar arkaismoen berri luze eta zabal edukitzea.

Bildu eta antolatu diren hizkuntza-ezaugarriak alderatu ondoan, ezaugarri-taldeak beren geografia-mugen arabera sailkatu eta gero, datuak balioetsi eta ponderatu behar dira dialektologian: teoria jakin baten arabera, ezaugarri horietarik bakoitzak duen garrantzia, guti gora behera zenbatekoa den erabaki daiteke. Nabarmena da, dialekto bat ongien ordezkatzan duten ezaugarriak, eskusiboak, bateratzaileak, sistematikoak eta garaikideak diren berrikuntzak ditugula; areago, ezaugarri horiek hartzen duten hedaduraren ondorio zuzena diren isoglosa ugari elkarrengana biltzen direnean.

Hizkuntza klasikoen dialektologian, grezierarenean esaterako, ongi definitutako talde dialektal trinko eta homogeenak finkatzeko, eskusibitatearen eta kronologiaren baldintzak betetzen dituzten berrikuntzak izan ohi dituzte gogokoan dialektologialariek (López Eire & Méndez Dosuna 1980: 17): guti gora beherako batasun kronologikoa duten berrikuntza eskusiboak, beste hizkeretan ageri ez direnak, hizkera batzuk besteetarik bereizteko aukera ematen dutenak.

Halaz guztiz ere, berrikuntzak garrantziz hanpatzeak ez luke desberdintasun dialektalek geografia-eremuan duten hedaduraren errealtatea lausotu behar; berrikuntzat hartzen ez ditugun beste ezaugarriek ere, eragina izan dute dialektoak gauzatzeko prozesu historikoan. Euskarak aspaldiko garaietan aukeran izan dituen hautuak, euskalkiak diren bezalakoak izatea hein batez eragin dutenak, garrantziz gabetzea arrazoi metodologikoa da, ez ontologikoa. Eztabaidagarria da zein garrantzi duten *beldur* / *bildur*, *berri* / *barri* bezalako ezaugarri asistematikoek, baina *da(g)ike* / *dezake* / *dauke* / *diro(ke)* hautuko osagaiak, ezin esan da asistematikoak direnik. Bestalde, goiko bi aldaera pareek eta lau adizkiek, beste hizkuntza-ezaugarri batzuekiko koherentea den hedadura geografikoa ageri dute eta, beraz, ez dira guztiz baztertzeko moduko datuak. Arkaismoen, hautuen eta berrikuntzen garrantzia esplizituki ponderatzeari gauza beharra deritzogu; cf. Zuazo 1998a.

Hizkuntza bateko erdiguneko hizkeretan, zail izaten da batzuetan dialektok bereizteko egoera edo baldintza egokiak aurkitzea: galesaren, katalanaren edo galegoaren literaturak hori erakusten digu eta euskaraz ere, halaxe gertatzen da. Euskaraz, konbergentzia gehien gertatzen den eremuetan, erdiguneko hizkeretan, zail da geografia-eremu berera biltzen diren ezaugarri eskusibo sistematikoak argi bereiztea eta, ondorioz, isoglosa sorta gotorrek aurkitzea: ez da lan erraza.

Gipuzkoako mendebaleko Debatik Nafarroako erdiguneko Etxalekura birtarte, erdialdeko euskalkitik atera gabe goazela ohartzeko ohiturarik ez dugu izan orain artean, Bonaparte printzearen ikuspegia aski iltzaturik baitago gure baitan. Erdiguneko mintzoetan ez da erraza errealtatea irudikatzea: erdialde-

ko euskaltitik mendebalekora edota nafar-lapurteratik zubererara dagoen aldeaz edo isoglosa-sailaz ohartzea, errazagoa da. Debatik abiatzen bagara, eta Azkoiti aldera jotzen baldin badugu, Azpeitia eta Tolosa bitarte Leitzaraino irteteko, eta hemendik Basaburuan barrena Imozko Etxalekura heltzen baldin bagara, aldi oro hizkuntza zertxobait aldatzen ari dela ohartuko gara, baina isoglosa ugari biltzen den eremu gardenik ez dela ageri ere sumatuko dugu. Antzekoa da hego-nafarreraren kasuan gertatzen dena ere, Ezkabarteko eta Odietako mintzoetara inguratzen garenean, ez baita isoglosa sail gotorrik ageri.

Francisco Gimeno-k dioenez (1987: 695), hizkuntza-aldaki edo dialektoak entitate diskretu gisa irudikatzeak baino, *continua* lektalak daudela proposatzeak, ilauntasuna eta konplexutasun handiagoa sortzen du, baina ximpletze desitxuratzaila da muga (geo)lektalen existentziaren baieztapen kategorikoa egitea; eten absolutuen ausentzian oinarriturik, hizkuntza-aldaki edo dialektoak ukatzea bezainbateko ximpletzea. Ikerketa arlo guztietan egiten dena da hau, *continuum* dena diskretutzat hartzeko joera baitugu: banaketa ontologikoaren neurriko banaketa metodologikoaren bila gabilta.

Jarraitasunean etenak markatzeak paradoxak dakartza: Bakio eta Oñati azpieuskalki berean dakuski Gotzon Aurrekoetxeak (1995: 287), baina, Lemoiz eta Bakio, bereiz ageri zaizkigu, azpieuskalki desberdinen barrenean; Koldo Zuazok, bestalde, Deba eta Etxaleku erdialdeko euskalkira bildu ditu eta Hendai eta Larzabale nafar-lapurteraren barrenera (1998a: 230); Arano eta Goizueta edo Jaurrieta eta Abaurregaina, euskalki desberdinetan kokatu ditu, bereiz.

Paradoxa horien sakonean, ordea, dialekto-mugak finkatzeko bezainbat garrantzi aitortzen zaien hizkuntza-ezaugarrien sail batek osatzen duen sistema abstraktuak, dialekto bat irudika dezakeelako sinesmena dago. Jaurrietatik Abaurregainera euskaran dagoen aldea, egunetik gauera dagoena bezainbatekoa dela zioskun hiztun jaurrietar batek: Abaurregainera ezkondurik zegoen, sortuetxetik zazpi kilometrorra baizik ez.

Helburua hizkuntza-distantzia neurtzea delarik, parametro berdinak erabiltzen ote ditugu euskalki guztiak finkatzen ditugunean? Barne koherentzia maila neurtzeko bidea, berdina ote da euskalki guztien kasuan? Iduri luke ezetz. Euskalki guztiek ez dute barne koherentzia maila berdina eta ez dira berdin egituratzen: barne aldakortasunaren mailan alde handia egon daiteke batetik bestera: elkarrengandik zein dira desberdinago, Getxoko eta Oñatiko euskara ala Hendaiakoa eta Larzabalekoa? Ez da aise erantzutea, baina arestiko bi konparazioetan baino, batasun handiagoa dago Santa-Graziko eta Sarrikitapeko mintzoen artean.

Paradoxa horiek nola saihestu? Batzuen ustez dialektometria da eztabaida kiribildu horiek argitzeko bide bakarra, baina metodologia bakarra erabili beharrean, metodo bat baino gehiago konbina liteke: arazoak zerik diren. Jo-

kabide kualitatiboa eta kuantitatiboa elkarren etsaitzat hartzeko ohitura izan da, baina etorkizuneko azterketek argi gehiago ekar dezakete, bereziki eredu bakoitzaren oinarriez azterketa sakonagoak egiten badira eta metodologiaren alderdia fintzeko eginahala egitera jotzen baldin bada.

Metodologiaren eta teknikaren aldetik, bestalde, dialekto dibergenteak eta konbergenteak desberdin aztertzea eskatzen ote du honek? Ez da gauza bera erdialdeko hizkerak aztertzea edo nortasun handiko ertzetako hizkerak aztertzea; metodologia bera erabil ote daiteke? Hizkuntza-ezaugarri eskusiboen metodologia, ala ezaugarrien konbinazioarena ote da egokiagoa erdialdeko hizkerak aztertzeko? Ezaugarrien konbinazioaz dihardugunean, dialekto bat irudikatzen edo definitzen, ezaugarri guztiak eskusiboak izatea ez da nahitaezkoa, ezaugarri eskusibo batzuk eta eskusiboak ez diren beste batzuk izan daitezke ezaugarri definitzaileak; metodologia honetan, eskusibitatea ezaugarriek eratzen duten konbinazio jakin bati dagokio, ez lanerako hautatu diren ezaugarriek bakarrik. Lan egiteko beste molde bat da, dialektoak elkarrengandik banatzeko garrantzitsutzat jotzen diren hizkuntza-ezaugarrien konbinazioak bilatzen dira. Hego-nafarrera azpieuskalkia definitzeko, bere-berezko bost ezaugarri bateratzaileez gainera, ia eskusiboak diren beste sei erabili ditugu: azpieuskalkiaren definizioa sendoago gelditu da honela.

Paralelismoa legoke hizkuntzaren berreraiketan: etorki indoeuroparra duten hizkuntzak aztertzeko eta euskara aztertzeko, egoera desberdina da guztiz, baina halaz ere, ereduak iduriak izan beharko lukete. Horrek ez du esan nahi, ordea, adar batak besteak ez darabiltzan berezko lan molde berezi edo berri batzuetan sakondu behar ez duenik.

Eremu konbergenteetan, azpieuskalkiei arreta handia eskaintzea komeni dela deritzogu. Eremu konbergenteetan, dialekto-mugak ezartzen hasi baino lehen, agian azpieuskalkietarik abiatu beharko genuke, hauek barne koherentzia eta sendotasun handiagoa baitute euskalkiek baino; hartara, garden ageri diren ertzetako dialekto-mugez gain, *pivot* edo zubi hizkera dei ditzakegun beste azpieuskalki mixtoago batzuen arteko egituratze eta hartu-eman motak, hobeki uler ditzakegu agian: trantsizio hizkeren inguruko teorizazio sakonagoa bilatzea litzateke kontua (cf. Camino 1999: 13 eta 2002: 5; Epelde 2003: 329; Zuazo 2003).

Eskusibitatea ezaugarrien arabera baliatuz gero, Euskal Herri guztirako horren egokia gertatu den antolaketak, arazoak eragin ditzake ezaugarri eskusibo guti den eremu bateko hizkera jakin bat sailkatu nahi denean. Koldo Zuazoren 1998ko ikuspegian, nafarreraren «gohien gradora» iristen den hizkerak, bigarren pertsona singularreko *y-* morfema du, *ditio* erako Nor Nori Nork saileko adizkiak darabiltza eta instrumentaleko atzizkia nahiz *-(e)kos*, *-(e)lakos*, *-t(z)ekos* aldaerak, txistukari apikariaren bidez egiten ditu eta *-on* bukaera du *kamiona*, *balkona*, *balona* bezalako mailegutan. Nafarroako Basaburuan eta Imotzen, esaterako, lau ezaugarriok daude, baina Zuazoren ara-

bera, nafarreratik kanpo gelditzen dira Basaburu Txiki gehiena, Basaburu Handia eta Imotz (1998a: 228). Imotzen eta Basaburuan ageri diren ezaugarri «erdialdeko ez nafarren» konbinazioak eragin duke hori, baina Imozko eta Basaburuko euskarara, ezaugarri «nafar eksklusibo» guztiak biltzen dira (1).

2002an genioenez (5. or.), balirudike, lau ezaugarri nafar eksklusiboak dituen hizkera bat, nafarrera izatera kondenaturik dagoela, baina errealitatea hori baino konplexuagoa da, batez ere erdigune geografikoan kokaturik dauden hizkeretan. Honelako paradoxak gertatzen dira ezaugarri kualitatiboei garrantzi handia emanez gero. 2003an (139. or.) Basaburuko eta Imozko euskara tarteko hizkeratzat hartu du Koldo Zuazok erdialdeko euskalkiaren barrenean.

Dialektometriaz gainera, ezaugarri kualitatiboei garrantzi handia emateak, alternatibak izan ditu dialektologian: trantsizio hizkeren –balia bedi nahi izanez gero «zubi hizkeren» edo «tarteko hizkeren»– teoria osatuxe bat garatzea, dialekto bat eratzean ezaugarri eksklusiboen eta ez eksklusiboen konbinazioak erabiltzea, eta azkenik, dialekto bat eratzeko, eksklusibitatea ezaugarrien konbinazioan bilatzea.

Joko arauen malgutasuna beste parametro batzuetara ere eramán daiteke eta halaxe jokatu da orain arteko Euskal Dialektologian, eskualdeetako azterketa geolinguistikokoak osatu direnean: hizkuntza-ezaugarrien sistematikotasunean, maila desberdinak onetsi izan dira. Bestalde, eremu handietara hedatutako ezaugarriak eta murriztagoetara barreiatu direnak baliatu dira. Honezaz landa, berrikuntzez gainera, ezaugarri zaharragoak ere aintzat hartu dira: hizkerak sailkatzean eta banatzean, iraganari ere begiratu zaio, ez berrikuntzei bakarrik. Esana da dialektologian eta hizkuntzalaritzan erabakiak hartzean, diakroniari begiratu behar zaiola (Janda 1982: 155).

Koldo Zuazoren sailkapenean, zaraitzuerá eta erronkaria ekialdeko nafarreratzat hartu dira, baina berrikuntzei eman zaien garrantziagatik da hori: ezperen, metodologiaren aldetik iraganeko ezaugarriak garrantziz hanpatuago egon balira, Zuberoako euskarari begira ere ager liteke Erronkarikoa; zaraitzuerá, berriz, zubi hizkera baten antzera ager liteke. Dinamikotasun diatopiko-diakronikoak, hizkeren banaketa eta sailkapena zailtzen du, dialektologialariak denborari gibelera edo aitzinera begira jokatzeko aukera deserosoa baitu. Beste behin, Lyle Campbell-ek dioena aintzat hartzea komeni zaigu (1985: 48):

...subgrouping considerations may be complicated by changes shared areally, complicating the count of shared innovations for related languages.

Erdialdeko hizkeretan, konbergente izendatu ohi diren horietan, eragin lektal ugariren menpe gerta daitezkeen eremuetan, dialekto-banaketak egiteko ezaugarri eksklusiboetan oinarritzea, ez da lan erraza. Ezaugarrien konbinazio

(1) Gai hau Gasteizko Euskal Filologia Saileko 2000-2001 doktoretza ikastaroan, Bittorio Lizarraga ikertzailearekin izan genuen eztabaida batean atera zen.

berezien arabera uste dugu antola daitezkeela hizkerak. Zubi hizkerak edo *pivot* hizkerak egon daitezkeela onetsi beharko da, koherentzia maila apala dutelako, hizkera batekin baino gehiagorekin dituztelako ezaugarriak batera; *linguistic area* kontzeptuaren baliagarritasuna aldarrika daiteke erdiguneko horrelako eremuetan. Delako *linguistic area*-ren definizio klasiko bat M. B. Emeneau-rengandik har dezakegu (1956: 16, 28. oinoh.):

This term «linguistic area» may be defined as meaning an area which includes languages belonging to more than one family but showing traits in common which are found not to belong to the other members of (at least) one of the families.

Aski litzateke guretzat definizio horretan «language» hitz edo kontzeptuaren ordez «dialektoa» erabiltzea. Euskal adibide gisa Zaraitzuko *uskarara* har dezakegu: bertan, Nafarroako eta Euskal Herriko ekialdeko ezaugarriak nahaska ageri dira: hego-nafarrerako tasun ugari ageri dira zaraitzueran, baina baita Zuberoako beste anitz ere; esaterako, Aezkoan ageri ez direnak; eta bestalde, anitz dira Aezkoa-Zaraitzuetan ditugunak, baina Zuberoan ageri ez direnak. Iduria da Burundako euskararen gertatzen dena, Araba ekialdeko, Oñati alderdiko, Goierriko, Sakana erdialdeko eta Ameskoako hizkerak eta beren sail nagusiagoak –beren euskalkiak– aintzat hartuz gero.

Dialektologian orografiaren eraketa eta eskualdearentzat abiagune edo foko betekizuna izan duten herri edo ibarren kokagunea aintzat hartu behar da, horien ondorio izaten baitira ia beti, dialektoen erak eta mugak. Abiagune edo foko linguistikoaren betekizunaren adibideak, Frantzia eta Ingalaterran ditugu: Pariseko eragina hegoalderat hedatu da eta Londreskoa iparrerat; orografiak hizkuntzan duen eragina, Zuberoan dakusagu: Pirinioek eta Oxkaxe inguruak Zuberoako ibarra bakartzeak, bertako hizkeraren nortasuna eragin eta gorde du, baina ipar-mendebalean, zubereraren nortasuna gesaltzen hasten da, Amikuzeko euskal eretara jorik; orografia lauagoaren arrazoiaz landara, honetan Donapaleuren hurbiltasuna ere aipa genezake.

Adierazi dugunez, hizkuntza-ezaugarriak diskriminatzean mugak finkatzeko baliagarrienak zein diren esateko, badira irizpide aski sendoak, baina halaz ere, zail da muga dialektal bat zer den definitzea, ez baitago neurri objektiborik, euskalki batetik bestera muga finkatu ahal izateko zenbat ezaugarri desberdin behar diren jakiteko. Zuberoan eta mendebalean gertatzen diren isoglosa elkartzeko gotorrak, ez dira euskararen eremuan ohikoak erdiguneko hizkeretan: gure oraingo ezagutzaren arabera, nafarrera definitzen eta, beraz, banatzen duten ezaugarriak, lau baizik ez dira eta erdiguneko euskalkia definitzea ere, zail da.

Arestian agertu zaigu *remanent* izendatu ohi diren eremuen gaia, ezaugarri arkaikoak biltzen diren guneena. Arreta guti eskaini ohi zaio arkaismoren gaiari. *De facto* bi hizkera arkaismo baten erabilera bat etortzea, halabeharri dagokiola onesten da, horrek ez dakarrela biek hartu-eman berezirik

eduki dutenik eta *role* pasiboa atxikitzen zaio gordetze honi. Guztiz egoera pasiboa litzateke arkaismo bera, esaterako, Bizkaiko mendebalean eta Zuberoan ager baledi edota Euskal Herriko mendebalean eta Lapurdiko itsasertzean; *legez* eta *lez*-ena azken kasu honen adibidea izan daiteke.

Beste batzuetan, ordea, elkarren ondoan dauden bi eremuk edo bi ibarrek arkaismo bati batera eutsi izanak, bi gauza erakuts ditzake: a) zer edo zerk eragin duke, hizkera horiek ezaugarri horretan batera joan izana, eta aktiboki gainera: leku zenbaitetan litekeena da, hiztunek berrikuntza baten hedadura-garaian, lehenagoko beren ezaugarri bati eutsi nahi izana; b) kanpotik etorritako berrikuntza batek, ez ditu eremu horiek biak harrapatu eta beraz, pasiboki bederen, eragin berrietarik kanpo gelditu dira geolinguistikoki bata eta bestea. Zantzu horrek ezaugarri gehiagotan bi hizkera horietan batasuna egon daitekeela iradoki dezake eta arrasto hori, ez da hutsala dialektologian; Koldo Zuazoren 1998ko lanean berrikuntzak lehenetsi diren arren, gordetzaileak diren eremuetako batasun pasiboa, ederki identifikatu eta baliatu da hizkerak elkarrengandik banatzeko.

Adibide baterako Zaraitzu ibarra aipa liteke. Beste hizkerek inoiz gertatu ahal izan den loturarekiko, etenik dute egun lokarria Zaraitzuko zenbait arkaismok: *bukatu* (Gipuzkoa), *jazo* (Bizkaia), *lez* (Bizkaia eta Lapurdi), *udazken* (Gipuzkoa, Lapurdi), *xatandre* (Gipuzkoako mendebala). Beste batzuek, ordea, jarraipen geolinguistikoa ageri dute ondoko hizkeretan, dela Erronkarin dela Zuberoan edo dela Nafarroa Beherean: *abari* 'afaria', *bage*, *bakotx* 'bakarra', *-ena bezala*, *eb(i)li*, *etse*, *eutzi* 'utzi'... Bat etortze batzuk eta besteak bereiztea on litzateke.

Laburtzeko aipa dezagun, ikerlan bakoitzaren helburuek eta ezaugarriek bideratu beharko dituztela, erabili beharreko metodologiaren osagaiak eta hauen neurriak; gutieneko oinarri teoriko batzuk errespetaturik, beti ere. Aztertzen dena hizkuntza bateko dialekto guztiak diren, dialekto bat den, azpidialekto bat den, bi dialekto alderatzen diren edo soilik hizkera bat aztertzen den, dialektologialariak horren guztiaren arabera hautatuko ditu bere tresnak, lantegi bakoitzaren ezaugarriak eta baldintzak aintzat harturik.

6. HAUTUAREN ARAZOA: DIALEKTOMETRIA EUSKAL HERRIAN

Orain artean metodologiaren aldetik aurkeztu ditugun joerek, erakutsi digute dialektologia egitean, inplizituki edo esplizituki sinesten dela, hizkuntza-ezaugarri batzuek dialekto-mugak finkatzeko balio handia dutela eta beste batzuek ez dutela. Dialektometriak, tasun sailkatzaileen hautuaren arazoa saihesten du. Eredu honen sorrera eragin duten alderdiak, besteak beste, honakoak dira:

- a) aldakortasun geolinguistikoaren uniformetasunik eza;
- b) hainbat gunetan eremu dialektal nabarmenak zehaztu ahal izateko aurkitzen den zailtasuna;
- c) hainbatetan isoglosek dakartzaten inplikazio nahasgarriak saihestu nahia (2).

Jardun honetan, erabat jo da dialektoaren mugaren kontzeptua eta eremu dialektala berraztertzea. Helburua taxometria egitea da, eskualde bateko guzueen arteko hizkuntza-distantzia neurtzea; bitartekotzat dentsitate kartografia hartzen da, muga dialektalaren kontzeptua berriturik eta mugen arteko hierarkia bat eraturik.

Dialektometriaren jardun kuantitatiboan, bi hizkeraren arteko antzekotasun edo desberdintasun maila zein den erabakitzeko, tasun kualitatiboak ez dira beste ereduetan bezainbat balioesten: hizkuntza-ezaugarriak ez dira hizkera bat talde bateko partaide bihurtzeko, beharrezkoak eta nahikoak diren propietate definitzaileak (Melis 1989: 72), erlatiboak diren antzekotasunari edo desberdintasunari buruzko juzkuaren oinarri baizik. Juzkua, eduki daitezkeen datu guztiak ebaluatzu egiten da, tasun sailkatzaileen aukeraren arazoa saihesturik. Ezaugarri ugari aintzat hartzen da: esaterako, Jean Seguy-k gaskointasunaren mailarik gorena bilatzeko, lauhun eta hogeita sei ezaugarri baliatu zituen.

Dialektometria den azterbideak ematen dituen aukera onuragarrien artean, aztertutako hizkuntza-datuen izaera ez diskretua errespetatu nahia dago. Emaitzen abstrakzio maila sakrifikatu arren, dialektoen *continuum* eremuatarako baliabide egokia dirudi (Zamora 1986: 282). Honela, antzekotasun indizearen balioek eraten duten zenbaki-eremu jakin eta zedarritu batean kokatzen diren hizkeren multzoa, «dialekto supralokala» izendatzen da.

Eredu honek darabilen jardunbide matematikoak, ez du konfiantza handirik lortu hizkuntzalarien artean: eredua itemetan oinarritzen da eta datuen azken zenbaketan, item guztiei garrantzi bera aitortzen zaie, 1 ala 0; horrela nekez asma dezake bi hizkeraren arteko berdintasun edo urruntasun estrukturalaren berri ematen.

Europa alderdietako dialektometria hona ekarri izana zor diogu euskaldunok Gotzon Aurrekoetxea ikertzaile dimostarrari. Nafarroa Garaian Ana Maria Etxaidek bildu emaitzak baliaturik, lexikometria saio bat egin zuen 1992an; bestalde, bizkaieraren egitura geolinguistikoa aztertu zuen bere tesian. Saio honetan mendebaleko dialektoaren barrenean, bost eremu ageri direla erakutsi du (1995: 287): ipar-mendebalean Lemoiz, Getxo eta Leioa dira barruti bat eta ekialdean, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Bergara beste bat. Mendebalean bada beste barruti bat erdialdean eta hegoaldean, Mungia, Laukiz, Sondika, Larra-

(2) Euskal Herriko mendebalekoa eta erdigunekoak da *-st-* kontsonante taldea *-beste*, *bost...*; Nafarroa Garaiko ekialdeko hizkeretan *-rtz-* dugu, baina Lapurdin, *-rtz-* nagusi den arren, bada *-st-* ere (Epelde 2003: 76); Nafarroa Beherean *-st-* nahiz *-rtz-* ditugu eta Zuberoan *-st-*.

betzu, Lemoa, Zeberio, Orozko, Dima eta Zeanurik osatua. Gainerako bi barruti edo azpieuskalkiak, nahaska ageri zaizkigu bizkaieraren alderdi gehienan barrena: itsasaldean, erdialdean eta hego-ekialdean zehar.

Hizkuntza-distantzia matematikoki neurtu ondoan, emaitza nagusia da, banaketarik sakonena, mendebaleko hizkeretarik Bizkaialdeko gainerako berbeta guztietara gertatzen dela (283): honek adierazten diguna da, Bergara, Elgoibar, Mendaro eta Debako hizkerak, Bizkaiko mintzo orokorrean kokatuago daudela, esaterako, Getxokoa, Mungiakoa, Orozkokoa edo Larrabetzuko baina. Bizkaiko edo mendebaleko dialektorearen barreneko koherentzia, erdialdea eta ekialdea elkarrekin lotuago ageri dira, erdialdearekin mendebal gehiena dagoen baina.

Ikerketak alderatze matematikoen emaitza aurkezten digu; on litzateke orain, Larrabetzuko, Gamiz-Fikako eta Mungiaiko euskara apur bat aztertzea; hiru berbetak elkarrekin azterturik, ikusiko litzateke, Bizkai guztiko eremuaren barne zatiketa maila handiena edo jauzirik bortitzena gertatzen den gunehori, nola egituratzen den: ea egia den, Larrabetzutik Gamiz-Fikara alde handia dagoela eta Gamiz-Fikatik Mungiaira ere alde handia dagoela; ea egia den, Mungian eta Larrabetzun antzeko erak erabiltzen direla, bien artean duten Gamiz-Fikakoetarik urrundu. Hizkuntza-ezaugarriak eskuartean direla hau erakusten baldin bada, lanerako hautatu diren erak ekarri duten emaitza juzka daiteke. Hautabidearen output matematikoen hizkuntza-interpretazioa egin liteke orain, tradiziozko dialektologiaren esana eta dialektometriarena elkarrekin alderatzeko.

Tradiziozko dialektologia eta dialektometria, biak baliatu dituen Wolfgang Viereck-ek (1988: 546-7), honela diosku ereduaz: zenbait aldiz, dialektologiariaren irizpideak, baitezpadako gertatzen dira dialektometrian ere: azken batean, zer neurtu eta zer ez neurtu, eta neurtzen denari zer garrantzi eman, ez da txantxetako kontua; hori guztia nola ponderatu ere ez da jolasa. Viereck-ek dioenez, dialektometriak ez dezake tradiziozko dialektologia erabat ordezka, prozedura kuantifikatzaileak ez bezala, tradiziozkoak eremu bat definitzen duten ezaugarriak zein diren esaten baitigu.

Gotzon Aurrekoetxearen tesian, espero izatekoak ziren honako ondoriook aipa ditzakegu, besteren artean:

* Alde txikia dago Getxo, Leioa eta Lemoizko hizkeren artean, Lemoa, Dima eta Zeanurikoen artean, Gatzaga eta Oñatikoen artean.

* Ondarroako euskaratik Mendarokora alde handia dago eta, berdin, Eloorriokotik Bergarakora ere, edo Uribe-Etxebarrikotik Gamiz-Fikakora.

Beste ondorio batzuek, ordea, harrigarriagoak dirudite:

* Alderdi fonologikoan, Bermeo, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Bergara elkarrekin doaz.

* Bermeo eta Bergara gunehori gordetzaileak ageri zaizkigu lanean (260), baina hori ez da gero hizkuntza-ezaugarrien aldetik zehazten, emaitza matematikoen esana bere horretan onesten da.

Guneen barne logikari buruz, tesi honetan ez zaigu adierazten, Lemoiz, Getxo eta Leioa batera biltzen dituzten ezaugarriak, zaharrak ala berriak ote diren, ala zaharrak eta berriak nahaska ote diren. Bestalde, ez zaigu adierazten, Mungia, Laukiz eta Sondika beren beste taldekideekin –Zeanuri, Orozko, Dima, Zeberio, Lemoa eta Larrabetzurekin– lotzen dituzten ezaugarriak, gordetzaileagoak ote diren ekialdeko Bizkaiko ezaugarriak baino, zeren eta ziri baten antzera, iduri luke berrikuntza batzuk, Bizkaiko ekialdekoak eta erdialdekoak, mendebalerantz sartu direla Errigoiti, Fika, Etxebarri, Zaratamo eta Zollon barrena, alde batera Mungia, Laukiz eta Sondika eta bestera Zeanuri, Orozko, Dima, Zeberio, Lemoa eta Larrabetzu utzirik. Lanaren ondorioetan ez zaigu honi buruzko intepretazio historikorik eman.

Lanerako hauta daitezkeen hizkuntza-ezaugarriak ere proposatu ditu Aurrekoetxeak (1996: 129-137), hautabide guztiak hein berean argitu ez badira ere. Adibide batzuk eman ditzakegu:

1. Egiten den ezaugarrien hautuan, euskalkiak banatzeko emankor diren ezaugarri batzuk baztertu dira –«ez sistemikoak» direlako, agian– eta antzu diren beste batzuk onetsi. Esate batera, geolinguistikoki koherenteak diren eremuak edo eskualdeak finkatzean, zein emankortasun du Euskal Dialektologian *legatz bat* / *legaz bat* / *legaz pat* erako txandaketak?

2. Zergatik aintzat hartzen dira *t*, *d*, *s*, *z*, *ts*, *tz*, *n* eta *l*-ren bustidura adierazgarriak eta *k*- edo *-r*-renak ez? Azken hauek euskalki guztietan gertatzen ez direlako? Nola aztertuko dira «*r*»-ren bustidura duten mintzo horiek, beren ezaugarri berezkoak ikerketatik saihesten baditugu?

3. Zer da, zehazki, euskal hiztun batek mugagabe / mugatu edo bizidun / bizigabe kategorien arteko oposizioa ezagutzea? Beti betetzea? Morfema bazueta bai eta besteetan ez betetzea? Aldaera fosilizatueta bederen ageri deanean, zertzat jotzen da hori sistemarekiko?

4. Helburua hizkuntza-sistemak alderatzea denez, onuragarritzat jotzen da hizkuntza-ezaugarrien agerraldien maiztasunaz kezkarik ez izatea (138-139). Dialektologian, ordea, hizkuntza-ezaugarrien aldaketaren edo aldakortasunaren gaian, norabideaz ñabardurak egitea garrantzizkoa da, hala norabide geolinguistikolari nola gramatikalari dagokienez; horretan guztian, hizkuntza-ezaugarri baten erabilera-maiztasunak zeresan handia du.

7. ESTRUKTURALISMOA

Jakina denez, estrukturalismoak lan bikain askoak utzi ditu dialektologiaren lantegian hirurogei eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan, baina lanok bereziki fonologiaren arloan egin dira; Lawrence M. Davis-ek dioenez (1977: 30):

Structural dialectology is simply clearer where phonology is concerned. In spite of the vast amount of work in syntax and semantics, we are far from a dialect theory in these areas. Or, to put this another way, we are far from a complete theory of dialect description.

Hizkuntza-geografiaren eta estrukturalismoaren uztarduraren mesedea, Roman Jakobson eta Nikolai S. Troubetzkoy-ren lanetan aipatu zen. Ondoren hainbat dialektologialarik fonologian egin dituzten lanak, zinez gogoangarriak gertatu dira: besteak beste, guk ezagutzen ditugunetan, Manuel Alvar, Andrei Avram, Diego Catalán, Eugenio Coseriu, Jean-Philippe Dalbéra, Pavle Ivić, William G. Moulton, Gregorio Salvador edo Uriel Weinreich egileak datozki-gu gogora.

Gurean Karmele Rotaetxeren (1991) eta Rosa Miren Pagolaren (1990) aldarrikapenak aipa daitezke, baina ez dute uztarik ekarri eta ez dute jarraipenik izan: aipatu eta erabili ez diren artikulua dira. Aspaldiagokoak dira, euskalkiak estrukturalismoaren ikuspegitik baliatzen dituzten beste hiru lan, dialektologiaren bete-beteko lanak ez badira ere: Geneviève N'Dieye-rena Baztango euskarari buruz idatzia da (1970) eta Karmele Rotaetxerenak, Ondarroako euskaraz dihardu (1978); Nicole Moutard-ek, bestalde, euskalki guztiak aintzat harturik, fonologiako azterketa egin zuen (1975-6).

8. DIALEKTOAK ERKIDEGOAREN HISTORIAREN ERAKUSLE

Isoglosek hizkuntza-aldaketarekin duten erlazioa, isoglosa horiek beren hizkuntza-sistemearekin eta hizkera-erkidego horren historiarekin duten erlazioaren menpe dago. Ahalaz hizkuntza-gertakarien joeretan izan diren aldaketen arrazoi edo eragile sozio-historikoen bila abiatu behar du dialektologialariak. Badaki honek, eskuartean darabiltzan datuak hizkuntzari dagozkiola, baina datu horiek diren bezalakoak izatea eragin duten arrazoiatarik batzuek, hizkuntzaren erabiltzaileen iragan sozio-historikoarekin zerikusi zuzena dutela ere badaki. Elkarren ondoan kokaturik dauden gizataldeen hizkerak, aski iduriak izan behar dutela pentsa daiteke, baina paradoxak gertatu izan dira inoiz: elkarren ondoan dauden ibarretako hizkerak aski desberdinak gertatzea eta bata bestetik aski urrun dauden ibarretan aski hizkera berdinak erabiltzea, egunero ko ogia dira nonahiko dialektologian. Distantziaz gain, elkarren arteko hartu-emanaren maiztasuna, sakontasuna eta kalitatea, oso aintzat hartzekoak dira gure jakintzagaian; oroit, esate baterako, *neighbor opposition* delakoaz.

Lapurdi Gipuzkoaren ondoan dago, baina baita Ipar Euskal Herrian ere eta badakigu, mugak beti muga direla, nahiz beren eragina ez den erabatekoa, baina bai handia: itsasaldeko gizartean merkatariak eta itsas-gizonek eduki duten presentziak eta eraginak azal lezake, nolatan Lapurdiko itsasaldera Gipuzkoan barrena erdialdeko hizkeretako hainbat berrikuntza iritsi diren. Erronka-

ri, Zaraitzu eta Aezkoa, Pirinioez bestaldera daude Nafarroa Behereko eta Zuberoko gizartearekiko; elkarren ondoan egon arren, orografia zaileko eremuak dira horiek guztiak Santa Grazi, Larraine edo Donibanera joateko. Halaz guztiz ere, menderen mende artaldeak eta behiak aldizka Ipar Euskal Herriko larreetan bazkatu izanak, aldi-lanetara ibarraz bestaldera joan izanak, emigrazioak nahiz bi alderdietako gazteen arteko ezkontzek, hegoaldeko hiru ibar hauetako hizkerak Ipar Euskal Herrikoekin dituzten kidetasun ugarien giltza behar dute izan.

Ez dezagun atzendu, bestalde, orain artean bederen, garai bateko leinu zaharrak eta euskalkiak parekatzeko ohitura izan dela Euskal Dialektologian, nahiz uste hori euskal eskualde guztietan frogatzeko beharko liratekeen argudioak, ez diren oraingoz inon zehatz eta sakon eman. Koldo Mitxelenak bere azken urteetan eraiki zuen hipotesiak, gainera (1981a), bidea hersten dio euskalkiak eta leinuak bateratzeko ikuspegiari, egungo euskalkien aitzindari litzatekeen batasunaren garaia, V. eta VI. mendeen bitartean kokatzeko aukera ikusi baitzuen.

Hizkuntza baten sorrera eta beraren aldaki dialektalen banaketa eta geografia-hedadura, ez da hizkuntza-ezaugarrien zabalkunde beregainaren eta foko dialektalen joera zentrifugoaren emaitza zorizko edo adurrezkoa; bilakabide konplexu hori, ekonomiazko, zibilizaziozko eta politikazko gertakarien eragin zuzenek edo zeharkakoek horrelakatua da (Polák 1963: 386). Egoera sozio-kulturalen eta gertakari sozio-politikoaren ondorioa da, hizkuntza bat oso egoera dialektalizatuan egotea banaketa handiarekin. Hizkuntzaren barreneko desberdintasuna ez dago hizkuntza-aldaketaren baitan bakarrik, hiztun taldeen edo erkidegoen arteko komunikaziorik ezaren baitan baizik. Ekonomia, gizarte, historia eta politika-mailako eragileek sortzen duten hartu-emanen gradualtasunari eta norabideari zor zaizkio hizkuntza-aldakiak; horrezaz landa, espazioaren hedadura eta mugak eta hiztunen gizarte-egituraren berdintasun edo desberdintasun mailak ere, eragile zuzenak ditugu, demografiaren eragina atzendu gabe. Euskararen kasuan, dialektalizazioa eragin duten indarren berri Koldo Zuazoren lanean ikus daiteke (1988: 27-74).

Hurrengo ataletan Euskal Herriko azken azterketetan ageri diren adibide batzuen berri dakargu: Etxarri-Aranazkoa, Leitza-Aresokoa, Arakilgoa, Oñatiakoa eta Goierrikoa; erromanistikan ongi azterturik dagoen portugezaren gaia ere argigarri da eta azkenean eman dugu.

1. Etxarri-Aranazko adibidea: Euskal Herriko erdigune-erdigunean baitaude, ez dira errazak sailkatzen Sakanako hizkerak; egun, Sakana erdialdea (Erdozia 2001), aski ongi landutako eremua dugu Euskal Dialektologian. Atal honetan aipagarria da Etxarri-Aranazko adibidea. Nor-Nork aditz saileko oraineko aldaerei dagokienez, *dot* erabiltzen da 'nik hura' kasuan Ergoieneko Lizarragan, Unanun eta Dorraon eta *dut* da adizkia Uharten, Arruazun, Lakuntzan eta Arbizun. Etxarrin, ordea, *det* da adizkia eta *debie* 'dute' itxuraz

analogikoa erabiltzen da hirugarren pertsonan, Arbizun *dubie* denaren ordain, hain zuzen ere. Etxarriko *det* eta *debie* adizki hauei, arrotz eta berri itxura hartzen die Erdoziak (2001: 46-49) eta beren sarrera, Gipuzkoatik gertatu dela uste du, froga zehatzik ematen ez badu ere. Etxarrira bizitzera etorritako goierritar etorkinetan dakusa argibidea. Jatorri goierritarra duten etxarriarrak 1880.ean ugari ziren udaleko erroldan; Ataundik etorritakoen artean, zehazki, berrogeita hemezortzi lagun berri dakar eta *Barandiaran*, *Auzmendi*, *Arratibel* edo *Baztarrika* deiturak, ugari eta usu errepikatuak dira. Gizataldeen ibilera sozio-historikoez hizkeren zer-nolakoarekin duten hartu-eman zuzenaren adibide egokia da Etxarri-Aranatzen aurkitzen dugun hau.

2. *Areso eta Leitzako adibidea*: dialektologiaren eremua ezagutzen duen edonork eta herri batzuen arteko distantzia lektala neurtzen ahalegindu den orok, badaki dialektoen artean usu halako paradoxa anti-intuitiboak gertatzen direla. Esaterako, so egin diezaiegun auzo diren bi herri, Aresori eta Leitzari. Hizkeraz Areso aski herri giputza da Leitzaren aldean. Leitzara, Areso bezala, egun erdialdeko euskalkian sailkatzen bada ere, Leitzako hizkerak Nafarroakora gehiago jotzen du. Bi herri artean hurrengo paradoxa gertatzen da: Areso herria Berastegitik –Gipuzkoako lehen herritik– Leitzatik baino urrunago egon arren, Aresoko hizkera hurbilago dago Berastegitik Leitzakotik baino.

Gai honetaz jardun duen Mikel Olanok (2000: 129), argibide bat iradoki du paradoxa horren alderdiak zertxobait azaltzeko. Bospasei mende lehenago, Areson eta Leitzan hizkera beretsua egiten zela pentsatzen du, gaur egun Leitzan egiten dena baino hizkera nafarragoa, nolabait esateko, eta hizkera giputzak, denboran zehar Areson gehiago eragin duela Leitzan baino. Historian arakatu ondoren, bi herrien arteko urruntasun lektala azaltzeko, honako arrazoiak aurkeztu ditu:

a) Leitzara bizitzera joandako etorkinek, eragin gutiago izan dute bertako hizkeran, Aresora joandakoek baino; Areso herri ttikia izanik, errazago erasan dituzte bertako hizkuntza-ohiturak etorkinek ekarritako aldaerek. Leitzara herri handixkoa da, zailago gertatu dateke bertako hizkera egiten duten hiztunen kopuru hazian eragitea (3).

b) Inguruko herrietan Leitzako hizkera nolabait liluragarri gertatu izan dela esateko, aski froga dago; Tolosara, Irurtzuna edo Elizondora ez, Leitzara joatea hurbilago zuten Basaburu Txikiko, Larraungo edo Araizko eskualde-

(3) Halaz guztiz ere, pentsatzen baldin bada hala Leitzan nola Areson lehenago egiten zen hizkera nafarragoa zela eta Araitzen, Urumearen eta Leitzaranen barrena sartu diren Gipuzkoako hizkuntza-ohiturek Leitzara ere harrapatu dutela, herri hazixko honetako biztanleen kopuru hazia argudioak eduki lezakeen baliotik zertxobait galtzen du; ez balio guztia, jakina, baina zertxobait bai.

koek; nekazal giroko gizartean, herri nabarmenagoari eta bertako hiztunari zor izaten zaion begirune inkontzientea, aintzat hartzekoa da.

c) 1600-1774 urteen bitartean bederen, Leitzatik ekialdera dauden eskualdeetako jendeek, Bortzerrietako, Basaburu Txikiko eta Malerrekakoek alegia, sarrera handia izan dute herri hazixko honetara eta hauetarik ugari, bertan gelditu dira bizitzen; garai hartako Leitzako etorkin guztien arteko %39 egiten zuten ekialdeko horien hizkuntza-ezaugarriek, Gipuzkoatik sartutakoak Leitzako ohitura lektaletan aurre egiteko balio izan dute agian eta, bide batez, Leitzako hizkera Aresokoa baino nafarrago gordetzeko.

d) Iruñea eta Tolosa arteko errepide zaharrak ere, bereiz eragin du Areson eta Leitzan eta, dirudienez, XVIII. mendea arte, ardatz horrek Areson bereziki eragin zuen; Nafarroako Erreinuan, merkatariak salgaien mugasaria herrietako tauletan ordaindu beharra zuten eta Aresoko taulak, Leitzakoak baino franko diru gehiago jasotzen zuen, baina ez Gorritikoak hainbat. Zernahi ere den, badirudi errepide zaharraren ondoko herri ttikiak, Leitzak baino gehiago jasaten zutela joan-etorrian zebilen jendearen aztarna; Erdiarotik XVIII. mendea bitarte, hau da, Araitzen barrena doan errepidea egin arte, honela gertatu zatekeen (4).

e) Artzaintzari dagokionez, Aresok eta Gipuzkoako Berastegik, Ulimendin fazeriak eduki dituzte aspalditik eta ezagun du hori Aresoko artzaintzaren lexiko bereziaren atal batek.

f) Mikel Olanok dioenez (2000: 147), argudio honen indarra erlatiboa dela garbi aitortzen badu ere, tentagarria da pentsatzea, 1770. urtean Areso eta Leitzako arteko udal-bereizketa gauzatu zenetik, harremanak moteldu ziratekeela; lehenagotik zetozen auzo-liskarrak areagotzearekin, bi hizkeren urruntzea azkartu zatekeen, batik bat Areson auzo Gipuzkoarako joera gero eta nabarmenago izanik.

3. *Arakilgo adibidea*: izugarrizko aldea dago Arakil ibarreko Murgin-duetako eta Sakana erdialdeko lexikoa alderatuz gero (Camino 2001), bitartean kilometro guti diren arren. Iruñerriko eta Goñerriko hego-nafarreraren eite handia hartzen du Sakanan, Arakil ekialdeko mintzoak. Funtsezko arrazoirik ez da ageri honetarako, ez orografiaren aldetik bederen: eremua zelaia da, Sakanan gaindi ibiltzeko ez dago behaztoparik, erraza da hor zehar mugitzea. Iduri luke Iruñerriko eragina nabarmena izan dela ekialdeko Arakilen, hara begira bizi izan direla gehiago: Arakilgo ekialdea, Iruñerriarekin guztiz loturik dago eta bertako herri txiki horiek, Iruñerriko herrixken egitura eta banaketa

(4) Errepide berri honek, itzalixe utzi zukeen *Cañada de las Provincias* izeneko bidea, Nafarroako lurraldean Iruñerriko Noaindik, Larraunen eta Areson barrena bere bidea egiten zuen abelbide zaharra; honek, aise uler daitekeenez, Nafarroako euskara berezkoagoaren eragina ere ekarri zukeen aspaldiko garaian Areso herrira, eta Leitzara baino gehiago, gainera; baita, ordea, Gipuzkoakoa ere.

berbera dute. Jabe txikien eskuetan dago lurra Sakanako erdialdean eta mendebalean, baina lurraren jabetzaren egitura, ekialdeko Arakilen aldatzen hasten da; bertan lur sail handien jabetzak ageri dira, ugari gainera; euria ere bakanuz doa eremu honetan, Iruñerrira hurbiltzen goazen heinean. Alfredo Floristan Samanesen hitzek, ikuspegi hau baieztatzen dute (1978: 165):

...puede afirmarse que el ayuntamiento de Araquil marca la transición entre la Navarra Húmeda del NO. y la prepirenaica Cuenca de Pamplona.

4. *Oñatiko adibidea*: herri interesgarria da Oñati administrazio aldetik bizi izan duen berezitasunagatik, baina dialektologiaren alderdia da orain gure jomuga, eta horretan ere bada zer aipatu herri honi buruz (Elortza, Madariaga & Zumalde 1996). Alderdi orografikoak sekulako garrantzia izan ohi du dialektologian: mendiez alderdi batera dauden biziguneez eta bestaldera daudenek, historian zehar elkarrekin zer hartu-eman sozio-ekonomiko izan duten, xeheki aztertu behar da. Bi gizatalderen arteko hartu-emanaren maiztasunaren eta kalitatearen ondorioa izan ohi da, gizatalde bakoitzaren hizkeratik bestea-renera dagoen alde linguistikoa; bi hizkeraren arteko hurbiltasuna edo urruntasuna, horri dago hertsien loturik. Oñati herriaz dihardugula, Euskal Dialektologian usu aipatu izan da –Mitzelenaren (1981a: 298) eta Villasanteren lanak (1968: 85) lekuko–, jauzi lektal handia dagoela Oñatitik Goierriko Legazpi-Segura-Zegama alderdira eta arrazoi orografikoak argudiatu dira horretarako. Koldo Zuazok dioen bezala, arrazoi orografikoak arrazoi dira, baina ez erabatekoak eta bakarrak; arrazoi ekonomikoak gehitu behar zaizkie orografikoei (2000: 50):

Kontua ez da Oñatitik Goierriera joateko mendi garaia zeharkatu beharra. Kontua da Aizkorri zeharkatu eta gero, oñatiarrek ez dutela eurena baino askoz herri haziagorik aurkitzen Aizkorri ostean. Eta, ostera, oñatiarrek ez dute hegoaldeko mendiak –garaia hauek ere– zeharkatzeko nagirik eta ardurarik izan, Gasteiz dagoelako mendien bestaldean.

Interesgarriak dira Luis Villasante zenak Oñatiko eta Arabako lautadako euskarari buruz jaulki zituen hitzak ere (1968: 83-84):

Gipuzkoako probintziaren azken bazterra da Oñati, egoaldeko muga. Elgeako mendi-lerroak gaingiduz, Arabako erri koxkor batzuk ditu mugakide: Elgea, Ozaeta, Aspuru, Nabaxa, Arriola, Gordoia, Galarreta... eta pixka bat arutzago Salbaterra dago, beñolako Agurain zaharra... Oñatik beti izan du ar eman estua Arabarekin. Gebarako kondeak denbora askoan izan ziren Oñatiko lurraren jabe. Euskera kontuan ere bearbada emen orain [Oñatin] egiten dan euskera modua eta beñola Araban egiten zana, senide urbillak ziran... Oñatiko euskeran ba dira itz berezi batzuk eta gaur egunean ere itz oietako asko eta asko Arabako erderan esaten dira.

5. *Goierriko adibidea*: arestiko haritik, arrazoi sozio-historikoez, ekonomikoek eta funtzionalek, hizkera batean zer eragin utzi ahal izan duen jakiteko, Goierriko euskararen adibidea har daiteke. Goierriko hizkera

gordetzailera da neurri handi batean, eta Gipuzkoako eremu zabalean hedatu diren berrikuntza ugari ez dira Goierrin ageri; mendebalekoa den Gipuzkoako eremuaz hori esan daiteke oro har. Aski da Ordiziako Otxoa Arinen 1713ko kristau ikasbide zaharra hartzea, garai batean inguru hartako euskarak mendebaleko joera lektalekin zer nolako lokarri hertsia zuen ohartzeko (Altuna 1992). Gerora, gauzak aldatu dira eta Beterriko eta Tolosako ezaugarriek, indarra hartu dute Goierrin eta Tolosaldeko hego-mendebalean; aldi berean, mendebaleko ezaugarriak –eta Goierrikoak– atzeraka ibili dira eta galduz doaz.

Iraganean, ordea, Irene Hurtadok dioenez (2001: 144), goierritarrek Arabara eta Nafarroara doazen bideak ibili dituzte maiz, Donostiara doazenak baino gehiago; Agurain eta Gasteiz aldera jo dukete eta hartu-eman hori, nabarmen dago goierritarren hizkera eremuan. Ataungo eta Zegamako euskara aztertu dituen Joxe Migel Azurmendik (1996: 145 eta 1998: 99-101), mendebaleko ezaugarriak aurkitu ditu herriotan, nahiz eta Gipuzkoako euskaratik edo erdialdekoetik sartutako berrikuntza batzuk ere, iragazi diren; Zegamako nahiz Ataungo euskarak, zubi lana egin dute mendebal eta erdialdeko hizkeren artean.

6. *Portugesaren adibidea*: soziologia eta historia gogoan harturik, honako banaketa egin daiteke teoriarik: alderdi batetik, guti gora behera egonkorra den gizatalde baten barrenean, jendamenek jendamenek etengabeko transmisioa izan duten hizkerak ditugu ohiko dialektologian, eta beste alderdi batetik, kreolaide direnak. Portugesaren banaketa dialektala, gertakizun historikoekin erlazio estuan dagoela garden-garden ageri zaigu. Irizpide historiko-kronologikoaren arabera, lau eremu ikusten dira portugesean:

a) Eremu zaharrena, Duero ibaiaren iparraldean, Iberiako Penintsularen erromanizatze garaian dagokiona.

b) Arestikoaren aldameneko trantsizio eremua, beraren hizkuntza-egokitzapena, Errekonkistaren lehen mendeetako garaian bururatu zen.

c) Erdialdeko-Hegoaldeko eremua, Mondego ibaitik beheiti, XII-XIII. mendeetan birpopulatu eta errekonkistatutako lurraldeak osatua.

d) Itsasoaz haratagoko hizkerak, Portugalen XV. mendeko kolonizatzeen ondorioz kokatuak.

Geografia-hedadura zabalak banaketa dialektala eragin du XIII-XVIII. mendeen artean, Iraultza Industrialarekin prozesua irauli arte, baina haatik, Brasilen eta Portugalen arteko hizkuntza-desberdintasunak areagotuz joan dira, espero zitekeenez (Lüdtke 1977: 153-54).

BIBLIOGRAFIA

Altuna, P., 1992, «Ochoa de Arin-en *Doctrina Christiana*-ren (1713) hizkeraren laburpena», *Euskera* 37/1, 573-589.

Allières, J., 1960, «Petit atlas linguistique basque français «Sacaze» I», *Via Domitia* 7, 205-221.

_____, 1961, «Petit atlas linguistique basque français «Sacaze» II», *Via Domitia* 8, 81-126.

_____, 1977, «Petit atlas linguistique basque français «Bourciez» (I)», *FLV* 27, 353-386.

_____, 1986, «Petit atlas linguistique basque français «Bourciez» (II). Cartes 21 à 50», *FLV* 47, 5-45.

Aranzadi Zientzia Elkarte, 1984, 1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (I eta II), Aranzadi, Donostia.

Aurrekoetxea, G., 1986, «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA): inkesta metodologia eta ezezko datuak», *Euskera* 31/2, 413-424.

_____, 1992a, «Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa», *Uztaro* 5, 59-109.

_____, 1992b, «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren informatzapena», in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak*. Iker 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 319-337.

_____, 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, EHU, Bilbo.

_____, 1996, «Hizkerak banatzeko ezaugarriez», *ASJU* 30/1, 127-143.

Aurrekoetxea, G. & Videgain, X., 1993, «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Galdesorta», *Euskera* 38/3, 529-647.

Azurmendi, J. M., 1996, *Ataungo euskara*, Goierriko Euskal Eskola kultur elkarte, Maizpide euskaltegia & Lazkaoko udala, Lazkao.

_____, 1998, *Zegamako euskara*, Goierriko Euskal Eskola kultur elkarte, Maizpide euskaltegia & Lazkaoko udala, Lazkao.

Camino, I., 1994, «Abiaburu bat aezkeraren azterketarako», in R. Gómez eta J. A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991-ko irailaren 2-6)*, *ASJU*-ren gehigarriak 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 59-160.

_____, 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

- ____, 1999, «Goñerriko hizkera (I)», *ASJU* 33/1, 1-74.
- ____, 2000a, «Goñerriko hizkera (II)», *ASJU* 34/1, 137-196.
- ____, 2000b, «Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko», in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 51-81.
- ____, 2001, «Goñerriko hizkera (III)», *ASJU* 35/2, 66 or.
- ____, 2002, «Euskal Dialektologia (II)», *Koldo Mitxelena eta euskalari-tzaren garapena azken mende erdian* izeneko EHUKo uda ikastaroan eman hitzaldia, Donostia, 2002/VIII/24, 11 or.
- ____, 2003a, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- ____, 2003b, «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV* 94, 427-468.
- Campbell, L., 1985, «Areal linguistics and its implications for historical linguistics», in J. Fisiak (arg.), *Proceedings of the Sixth International Conference of Historical Linguistics*, Benjamins, Amsterdam, 25-51.
- Davis, L. M., 1977, «Dialectology and Linguistics», *Orbis* 26, 24-30.
- Elortza, J., Madariaga, J. & Zumalde, I., 1996, *Oñati eta Gipuzkoaren bategitea. 1845*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Emeneau, M. B., 1956, «India as a Linguistic Area», *Language* 32, 3-16.
- Epelde, I., 2003, *Larresoroko euskara*, Gasteiz, EHUKo tesi argitaragabea.
- Erdozia, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Etxaide, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, Iker 3, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ____, 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Etxebarria, J. M., 1991, *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Ibaizabal, Bilbo.
- Floristán Samanes, A., 1978, *Urbasa y Andía, solar de los navarros*, Diario de Navarra, Iruñea.
- Fraile, I. & Fraile, A., 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo udala.
- Gimeno, F., 1987, «A propósito de comunidad de habla: *The social dimension of dialectology* de J. P. Rona», in M. Vaquero (arg.), *Actas del I Congreso Internacional sobre el Español de América*, Academia Portorriqueña de la Lengua Española, 689-698.

Holmer, N. M., 1964, *El idioma vasco hablado*, ASJU-ren gehigarriak 5, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Holmer, N. M. & Abrahamson, V., 1968, 1969 eta 1977 «Apuntes vizcainos», ASJU 2, 87-141. ASJU 3, 171-228. ASJU 11, 3-47.

Hurtado, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*, Goierriko Euskal Eskola kultur elkarte, Maizpide euskaltegia & Lazkaoko udala, Lazkao.

Ibarra, O., 1995a, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

_____, 1995b, «Cispamplonés delakoaz», ASJU 29/1, 267-318.

_____, 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, NUP, Iruñea.

Irizar, P. de, 1981 [1949], «Los dialectos y variedades del vascuence», in *Contribución a la dialectología de la lengua vasca I*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 95-125.

_____, 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca (I eta II)*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.

_____, 2001, *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*, Delegación en Corte de la RSBAP, Madril.

Izagirre, K., 1959, «Erronkariko euskal-ondakin batzuk», BAP 15, 279-314.

_____, 1961, «Erronkariko euskal-ondakin batzuk (I)», BAP 17, 391-407.

_____, 1966, «Ultzamako euskeraren gai batzuk», BAP 22, 403-467.

_____, 1967, «Tolosako euskeraren iztegirako gaiak», BAP 23, 157-188.

_____, 1967b, «Altsasuko euskeraren gai batzuk», ASJU 1, 45-97.

_____, 1968, «Notas lexicográficas», ASJU 2, 49-71.

_____, 1970, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*, L. Villasante (arg.), ASJU 4, Donostia. Berrarg. 1994.

Janda, R. D., 1982, «Diachronic fact vs. synchronic fiction: historical-linguistic evidence against assuming underlying grammatical uniformity for contemporary dialects of the same language», in A. Ahlqvist (arg.), *Papers from the 5th International Conference on Historical Linguistics*, Benjamins, Amsterdam - Philadelphia, 149-162.

Lafon, R., 1955, «Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques», *Pirineos* 11, 109-133.

Lakarra, J. A., 1986, «Bizkaiera Zaharra euskalkien artean», *ASJU* 20/3, 639-681.

López Eire, A. & Méndez Dosuna, J., 1980, «El problema de los dialectos dóricos y noroccidentales», *Emerita* 48, 15-30.

Lüdtke, H., 1977, «Isoglosas atlánticas en la geografía fonética del portugués: apuntes de teoría dialectológica», in M. Alvar (arg.), *Atlas plurilingües. Metodología*, Madril, 152-156.

Melis, L., Verlinde, S. & Derynck, P., 1989, «La notion de dialecte supralocal: essai de définition dialectométrique», *Orbis* 33, 70-132.

Mitxelena, K., Beloqui, J. J., Elosegui, J. & Sansinenea, P., 1953, «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», *BAP* 9, 499-536 [= *SHLV*, 246-272].

Mitxelena, K., 1950, «En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)», *BAP* 6, 89-94.

_____, 1954, «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal», *Via Domitia* 1, 123-157 [= *SHLV*, 273-297].

_____, 1958, «Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte», *BAP* 14, 335-364 [= *SHLV*, 298-319].

_____, 1964a, «La interpretación de las diferencias dialectales», in *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia, 43-67 [= *SHLV*, 13-22].

_____, 1964b, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia [= *SHLV*, 1-73].

_____, 1965, «La actividad lingüística en el campo vasco», in *Communications et rapports du premier congrès international de dialectologie générale* (Louvain du 21 au 25 aout, Bruxelles les 26 et 27 aout 1960), Louvain 1965, iv, 224-232.

_____, 1967, «Notas fonológicas sobre el salacenco», *ASJU* 1, 163-177 [= *LH*, 221-234].

_____, 1972, «A note on Old Labourdin Accentuation», *ASJU* 6, 110-120 [= *PT*, 235-244].

_____, 1976a, «La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas», *Revista Española de Lingüística* 6, 309-324 [= *LH*, 73-85].

____, 1976b, «Acentuación alto-navarra», *FLV* 23, 147-162 [= *PT*, 245-260].

____, 1977 [1961], *Fonética histórica vasca [FHV]*, 2. ed., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

____, 1981a, «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU* 15, 289-313 [= *PT*, 35-55].

____, 1981b, «Encuestas lingüísticas en el País Vasco», *Euskera* 26/1, 133-145.

____, 1981c, «Sobre la necesidad de una exploración lingüística de Euskal Herria», *Euskera* 26/2, 873-881.

____, 1982, «Un catecismo salacenco», *FLV* 39, 21-42.

____, 1983, «Euskalkien ageriko aurpegia», *Euskera* 28, 245-252.

____, 1985, *Lengua e Historia [LH]*, Paraninfo, Madrid.

____, 1987, *Palabras y textos [PT]*, EHU, Leioa.

____, 1988, *Sobre historia de la lengua vasca [SHLV]*, 2 liburuki, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren gehigarriak 10, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

____, 1991, «De dialectología vasca», *FLV* 58, 179-203.

____, 1992, «Fenómenos de convergencia en la historia de los dialectos vascos», *FLV* 61, 355-366.

Montoya, E., 2002, *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*, Gasteiz, EHUko tesi argitaragabea.

Moutard, N., 1975-6, «Étude phonologique sur les dialectes basques», *FLV* 19, 5-42, 20, 141-189 eta 22, 9-54.

N'Diaye, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris.

Olano, M., 2000, «Gipuzkoa ondoko bi hizkera nafar: Areso eta Leitzaoko paradoxa», in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 121-147.

Oñederra, M. L., 1990, *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*, EHU, Leioa.

Pagola, R. M., 1990, «Dialektologiaren irtenbide berriak: diasistema eta polimorfismoa», in E. Perez Gaztelu & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari Omenaldia*, Mundaiz 5, Donostia, 207-223.

____, 1992, «Euskara eta euskalkiak lehen eta orain», in *Euskalki literatura*, Labayru ikastegia, Bilbo, 35-59.

Peters, H., 1988, «On the state and possible aims of Middle English word geography», in J. Fisiak (arg.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam, 397-416.

Polák, V., 1963, «Les origines de la différenciation dialectale en Albanie», *Orbis* 12, 381-392.

Rodríguez Ferrer, M., 1873, *Los Vascongados: su país, su lengua y el príncipe Luis Luciano Bonaparte*, Madril.

Rotaetxe, K., 1978, *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, L. Zugaza, Durango.

____, 1991, «Hizkuntz sistema eta dialektologia», in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, Iker 7, Euskaltzaindia, Bilbo, 53-68.

Salaberri, P., 1998, «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan», in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo, 49-87.

____, 2000, «Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan», in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 221-259.

Salaburu, P., 1984a, *Hizkuntzaren soinu egitura*, EHU, Leioa.

____, 1984b, *Arau fonologikoak*, EHU, Leioa.

Tældeman, J., 1989, «Typology of dialect transitions in Flanders», in M. E. H. Schouten & P. Th. van Reenen (arg.), *New Methods in Dialectology*, Foris, Dordrecht - Holland/Providence RI - U.S.A., 155-163.

Txillardeggi, 1984, *Euskal azentuaz*, Elkar, Donostia.

Udako Euskal Unibertsitatea, 1983, *Euskal Dialektologiaren Hastapenak*, UEU, Iruñea.

____, 1987, *Euskal Dialektologiaren Hastapenak*, 2. arg., UEU, Iruñea.

Videgain, X., 1987, «Mitzelenaz eta dialektologiaz», *Egan* 40, 3/6, 141-153.

Viereck, W., 1988, «The Computerisation and Quantification of Linguistic Data: Dialectometrical Methods», in A. R. Thomas (arg.), *Methods in Dialectology*, Multilingual Matters LTD, Clevedon, Philadelphia, 524-550.

Vilallonga, J., 1953-7, «Introducción a un estudio sobre Luis Luciano Bonaparte y sus trabajos», *Eusko Jakintza* 7, 39-68.

Villasante, L., 1968, «Oñatiko euskera», *Egan* 27, 80-94.

Zamora, F. J., 1986, «Algunos aspectos psicosociolingüísticos y contextuales de la variación lingüística», *Anuario de Lingüística Hispánica* 2, 277-323.

Zuazo, K., 1988, *Euskararen batasuna*, Iker 5, Euskaltzaindia, Bilbo.

____, 1989a, «Arabako euskara», *ASJU* 23/1, 3-48.

____, 1989b, «Zubereraren sailkapenerako», *ASJU* 23/2, 609-650.

____, 1994, «Burundako hizkera», in R. Gómez eta J. A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991-ko irailaren 2-6)*, *ASJU*-ren gehigarriak 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.

____, 1997, «Oiartzungo hizkeraren kokagunea», *FLV* 76, 397-425.

____, 1998a, «Euskalkiak. Gaur», *FLV* 78, 191-233.

____, 1998b, «Nafarroako euskal hizkerak», in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo, 1-21.

____, 1998c, «Arabako euskara», in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 125-189.

____, 1999a, *Deba ibarreko euskeria*, Deba ibarreko Udalak, Oñati.

____, 1999b, «Baigorriko euskara kokatzeari buruz», *Lapurdum* 4, 247-277.

____, 2000, «Debabarreneko euskara», in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 29-50.

____ (arg.), 2000, *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

____, 2003, *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

NAFARROAKO EUSKARA IRAKASKUNTZAN

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Irakaskuntzan hiru dekadatan gabiltzanok, ez dugu urterik urterako kursoetan aurkezpenik behar izaten, arteko urteko ikasleek kontatzen diete-eta hurrengoei nor edo zer naizen edo nola jokatu ohi dudan azterketetan. Beraz, halako giro jakinean nahiko izaten dut «Dicebamus hesterna die» aspalditxo-koaz hastea.

Gaur, ordea, inork aurkeztu nau zuen aurrean, naizena baino egin dudana goraiatuz. Gainera, Larraintzarko Anain neure ikasleak –futbol kontuen-
gatik Lezaman diharduenak– Berriozartik hasirik Uharterainoko biribilguneak zehatz-mehatz marraztu dizkit, nahiz eta segurtasunaren alderako –Patxi Iñi-
goren eta Paxkal Rekalderen telefono deiei jaramon eginik Noaindik egin itzu-
lingurua.

Planeta Urdinean 6.000.000.000 inguru izanik norberari dei egitea aintzat hartzekoa da. Hasteko, beraz, eskerrak hona hurbildu zaretan guzti-guztioi; es-
kerrak Gotzon Aurrekoetxeari, Andres Iñigori eta Paxkal Rekalderi; eskerrak
–nola ez– Nafarroako Gobernuari eta Euskaltzaindiari –bertan antolatzen ari-
tu direnei ere bai– topaketa hau gauza dadin ahalegintzeagatik.

1. IKASTAROAREN IRAUPENA

Hitzaldi hau ondo burutzeko, hogeiren bat orduko ikastaroa beharko ge-
nukere. Gaur, beraz, 40 minutuko saioan ezin emango dugu adieraztera gura
izango genukeen guztia, ez edukietan ez eta diafanotasunean –doafanoa berba
grekoa da, hots, geurea ere bai–.

Beharko genituzke:

4 ordu: marko teorikoa argitzeko: Konstruktibismoa; ikasketa esangura-
tsua; Diglosia Irazia; Atxikitze-Eredua eta Murgiltze-eredua...

4 ordu: ahozko corpusaren premia eta balioa azaltzera emateko.

4 ordu: adieraztera emateko zeri deritzagun berbalizazioa eta curriculum zelan itsatsi.

4 ordu: sortu dugun materiala erakusteko eta azaltzeko.

4 ordu: Ikasleak/entzuleak ordenadorean-eta praktikak egiteko.

Tamalgarriena, zuen aintzenean atsegin ez dudan metodoaz lan egitea da, alegia, neu bakarrik mintzatuz, ezen ederto baitakit zuek asko dakizuela gai honetaz eta maieutika antzina erabili zela. Sokrates ezkerro, maieutika erabiltzen da izendatzeko artea zeinarekin maisua, hitzaren bidez, ikaslearen ariman argituz doan nozioak, beronek oharkabean bada ere eduki bazeuzkanak, hau da, gaur egun Ausubeli jarraituz entzuleek dakitenetik abiatuak, ezagutza berriak eraikitza joko genukeen metodoa erabiltzea.

2. DIAZ DE ZERIOREN «EUSKAL KANTAK»

Liburu ederra dut eskuetan, Nafarroako gobernuak argitaratua, Maria Rosa Diaz de Zerirena: «Euskal Kanta Zahar batzuk».

Bilketa Aita Donostiak, batez ere, Baztanen bildua dela dakigu.

Kalitate aldetik goi mailako eskola-liburua da eta «Hezkuntza arloak eta Helburu didaktikoak» atala on-ona, neuk ere aipua egiteko erabili izan dudana, atal bat edo beste gehituko nizkiokeen arren.

Guk bizkaieraren barruan, helburu bertsuekin jokatu dugu, baina teorizazio eta bitarteko desberdinekin. Gure proiektuetan Aita Donostiak egin zuena geuk gauzatu dugu –Iñaki Gaminde aitzindari dela–. Guk kantak biltzeaz gainera, ipuinak, kontakizunak, errezitatuak, anekdotak, ohiturak ere jaso ditugu. Horretarako aita Donostiak amets zukeen tresneriaz baliatuta: bideoa, minidiska, CDak. (Hemen «Arre-arre mandako» bideoa erakutsi dut).

2.1. Baztaneko kantak eta euskalkia

Aita Donostiak Baztanen entzuten dituen doinuak, ostean paperera aldatzen ditu, horretarako arau jakin batzuk erabilita. Ondorioz, galdu egiten da bizitasuna, goxotasuna. Hau da, musika idazteko arau estuek, –hots, arauak– aplikatuz, bidean geratzen da asko, esate baterako, erritmoko gauza ugari, intonazio aldaketa... Izan ere folklorea pentagrametara ekartzea oso gaitza da, batez ere, sentimendua-eta barneratzen ez badituzu. Hemengo zortzikoa alemanian interpretatzen bada, nekez egingo da era berberean. Azken finean, sus-triak gordetzen badira ere, Aita Donostiak bere armonizazioa egiten du.

Aita Donostiak, dena dela, melodia entzuten zuen antzera lagatzen zuen. Azkuek, berriz, oker kantatua zela uste bazuen, aldatu egiten zuen, izan beharko zukeen moldera ekarrita.

Euskalkian beste horrenbeste gertatzen zaigu, euskaldun zaharrendik jaso geuk eskolaratzean. Ezingo da, horrenbestez, herrian entzundako euskaran ere musikan egin ezin denik gauzatu, alegia, amonari entzuna osorik jaso. Beraz eskolari hitzak osorik erabiltzeko eskatzea da logikoa.

3. EUSKALKIA ESKOLARATZEKO OINARRIZKO BALDINTZAK

3.1. Euskaldunaren etxeko euskara alfabetatzearen premia

Ahozkoaren eta idatziaren arteko bereizketa beti dugunez gogoan, bada- kigu hitz egitea ez dela idatziz mintzatzea. Horrexegatik azpimarratu behar dira bien arteko berdintasunak eta desberdintasunak etxeko berbeta eskolara ekartzeaz ari garenean.

Hona hemen ahozkoaren eta idatziaren arteko bi desberdintasun nagusiak.

3.1.1. Lehenengo, denbora aipatu behar da ahozko berbeta prozesatzeko baldintzen artean, denborak dena baldintzatzen baitu

Pentsatzen eta aukeratzaren diren heinean esaten dira hitzak. Beraz, hiztunak denboraren presiopean eratu eta antolatu behar du komunikatu nahi duen mezua, bere memoriak dituen mugak ere kontuan hartuz.

Arrazoi honengatik ahoz ari denaren esaldiak ez dira idazlearenak bezain luzeak edo konplexuak izaten. Eta horrexegatik egiten dira gramatika-akatsak hizketan; baita mezu mailako akats ugari ere askotan.

Mezua antolatzeko modua ere ez da onena izaten. Gauzak behin eta berriro esaten ditugu, esandakoa ahaztu egin zaigulako edo pentsatzeko beta hartu gura dugulako.

Idazleak, berriz, nahi duen denbora guztia izaten du bere mezua antolatu, behar dituen hitzak aukeratu eta bere idazkia lantzeko, harik eta komunikatu beharreko mezua emateko era egokia aurkitu arte.

3.1.2. Elkarrekiko eragina ahozkoan eta idatzian

Bestalde, aurrez aurre entzulea mintzatzean, abantaila da denboraren mugen aurrean, ulertu ez badu itaun dezan. Honetan idazlea baino hobeto aurki-

tzen da. Baldintzak ere jartzen ditu: txanda ematea solaskideari; bien arteko formalitate maila moldatzea; gaien aukeraketa eskura izatea.

Hala ere, aipatutakoaz gainera, erabat garrantzitsua da ohar gaitetzen, euskara ikasten eta eredu estandarra jorratzen abiatzen garenean erraz gerta dakigukeela etxeokoren, hots, ahozkotik datorrenaren itotzea, ez entzutera iristea. Adibiderako Lazkao Txikiren bertso hau hautatu dut. Hitzaldietan galdetzen dudanean aitaita-amamek «etxetik» baino «etxeti» esaten ote duten eskualde jakinetan, ezetz entzuten dut maiz. Gero etxean galdetuta itzultzen denean, baietza dakarte.

Jo dezagun adibidera, denon artean kantatuz:
 Goizean goiztar jeikitzen banaiz
 kanporatutzen naiz beti,
 ikusten zaitut zabaltzen goruntz
 eguzkiaren aldeti
 eguzkiaren argitasuna
 hortxen dator sortaldeti
 e(g)unan haurtzaro beste(r)ik ez zara
 bihotzeko egunsenti.

Lazkao Txikik ahozko kodigoa darabil entzulearen belarriaren konplizitateaz, «sortaldeti» eta ez «sortaldetik kantatuta».

Zuek EHHara jotzen baduzue, Antologiako 87. orrian, Dorraon ere fenomeno bera topatuko duzue: «Ta errosariyoti ataera ardua ematen zan». Gauza bera Jose Mari Satrustegiren «Euskal testu zaharrak» izenekoan, Intzan (1772: 131): «eta oetati Abadiaren errenta asko ezpada», baita: «alimentaze-coaz gañeti izan dezen zerequiñ socorritu».

Horrenbestez, ahozkoa eta idatzia autonomian lantzea gogoan hartzeko faktore ezin baztertua da. Gaurkoz, ez dugu sakonagora joko, nahiz eta ederto dakigun zein elementu aberatsen bazterketa egiten duen etxetik euskara aberatsa dakarren hiztun askok.

Baieztatutakoaren ondorik, erabateko garrantzia hartzen dute bideoek, minidiskak eta gaurko tresneria erabiltzeek, baita ulertzeak etxeko euskara eskolaratzeko didaktika aproposaren, egokiaren jabe izan behar dugula.

3.2. Euskalkia eta hezkuntza

Euskararen kanpo-historiak eta bere barrukoak eraginik, ikerketa-lan nahiz doktore-tesi ugari argitaratu da azken urteotan euskalkien gainean. Euskalkia irakaskuntzan gaitzat hartuta, ostera, oso gutxi, baina ez gure artean bakarrik, Europa zabalean ere aurrerakuntza franko oraintsu-oraintsukoa da-eta. Euskalkiaren eta Hezkuntzaren gaia, beraz, azterketa arlo berrien artean sailka genezake.

3.2.1. *D Eredua bikoiztu egiten dugu*, lehen hizkuntza euskara duten ikasleentzat atxikitze-eredu bilakatuz, eta lehen hizkuntza gaztelera edo frantsesa dutenentzat murgiltze-eredu bihurtuz. Hitzaldi honen helburua irakaskuntzako atxikitze-ereduaren barruan kokatzen dugu, bertan etxetik euskaldun datozenak harturik.

3.2.2. *Irakasbide hau dakigunetik ez dakigunera* doa: René Descartes, dio bere *Regulae ad directionem ingenii* liburuan (1628an): «Pentsamendu metodikoaren ideia zein urratsez urratseko ebidentziaz gidatua den eta EZA-GUNTIK EZEZAGUNERA doan, sinpletik konplexora».

Bestalde, Labayru Ikastegiak horixe lema hori erabili izan du bere jardunean.

3.2.3. *Euskal Diglosia Irazia* deritzagu, ehundegian ehuna egitean legez gauzatzen delako, euskara batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak bata besteari harien artean bilbea igarota (1).

Euskalkia, **heteronomoa** da, Mitxelena maisuak zioenez *4dialecto de*». Horrenbestez, euskalkia ez da irakatsi behar beste berbeta bat balitz legez, baizik eta idatzian –atxikitze-ereduko ikasleez ari naiz– euskara batua ardatz dela, euskalkia aldamenean izanik eta ahozkoan, etxeko euskara ardatz dela eta euskara batua alboan.

Gertatzen den diglosiarako, C. A. Ferguson-en definiziora jo dugu: «*Hizkuntzaren dialekto desberdinen aldamenean, aldaki oso kualifikatu bat*» dela diglosiaren egoera adierazteko. Ulertzen da, barietate linguistiko biren arteko harreman egonkor bezala, bat gora (high) eta bestea behera (low).

Euskal Herrian den endoglosia (Txillardegi) hemen Diglosia Irazi legez lantzen da, ehundegian ehuna egitean bezala, euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkiak bata besteari harien artean bilbea igarota.

Diglosia Funtzionala –funtzio batzuetarako euskara batua, besteetarako euskalkia– Erramon Baxoken ekarriz baliaturik jorratzen da.

Diglosia Kateatua, L. J. Calvet-i jarraikiz, lehenik, euskara batuaren eta euskalki literarioaren arteko kateaketa gisa hartzen da; bigarrenik, euskalki literarioaren eta azpieuskalkiaren artekoa, hots, kateatua eta irazia.

3.2.4. *Ikasketa esanguratsua*: D. P. Ausubel-ek dakarren ikuspegi aldaketa darabilgu ostean Ikasketa Esanguratsua bideratzeko, hortxe bertan kokatzeko Dakigunetik Ez Dakigunera goiburua, neska-mutilak etxetik dakarten berbetatik has daitezten. Horrek ez du esan gura adin batera arte euskalkia eta gero batua irakatsi behar direnik, ezpada ze biak batera, ikasketa-prozesu osoan uztarrarian eroanik

(1) AZKUE, R. M. (1969): Diccionario vasco-español-francés. La Gran Enciclopedia Vasca: Irazi: 'ardir el lienzo en el telar': curdir le tissu sur le métier'. AN-b-lez, B-a-o-ts, G-ber.

Ondorioen artean, baieztatuko dugu, eskolak etxetik euskalkia jakinik datorren ikaslea dakienetik ez dakienera eraman behar duela, euskara batua euskalkiaren arartekotasunaz ikasirik –Ikasketa Esanguratsua arabera, arterik ezagun zaizkion sinboloen bitartez– eta horretarako familiako berbeta landu egin behar dela irakaskuntzan, ezen euskara batua jakiteak ez baitakar «per se» euskalkian alfabetatzea.

EUSKALKIA ETA IKASKETA NATURALA

Euskalkian gabiltzalarik, zabalagora edo sakonagora iritsi nahiz, testuinguru naturalaz egiten dugu topo, hau da, hizkuntzaz jabetzeko testuinguru naturalaz.

Honaino helduak garelarik, ordea, euskalkiaren hiperonimo bilakatzen zaigu euskara era naturalean ikastea. Bestera esanik, familiako eredia bilakatzen zaigu edozein berbeta ikasteko prozedurarik eraginkorren. Beraz, hitzaldiko zeregin nagusia izango da argitzea zein den euskara ikasteko era naturala eta noraino birsor daitekeen ikasgelan.

Ez gurasoek, ez neba-arrebek ez dute parte hartzen modu sistematikoan, ez eta aurrez erabakitakoan hitz egiten ikasteko prozesuan. Hala ere, ez dira ikusle huts, nahiz eta lehen begiradan itxura hori hartu, hala berbeta ikastea gertatzen den espontaneitateagatik, nola oharkabetasunagatik edo afektibitate giroarengatik.

Horrenbestez, etxean erabili ohi diren estrategietatik, zein ekar daiteke eskolara? Lehenik, arestian etxekoa dela-eta esanekora jotzen badugu, baieztatuko dugu, umeak daukan garapen mailatik abiatu garela. Horretarako, beharrezkotzat jo dugu haurraren mintzamoldera hurreratzea, ez nonbait, maila horretan geratzeko, baizik eta Vigotsky-ren Garape Hurbileko Gunea (GHG) tresnatzat harturik ikasketa konplexuagorantz jotzeko.

Gainera, umearen interesgune eta esperientzietatik abia gaitezen komeni da, eskolak eskaintzen dion mezua interesez jaso dezan.

Aipatu dugun estrategia horretan, metodo desegokitzat har daiteke, behin honezkero, umeari akatsak errepikatzea edo errepikaraztea, zeren porrot egin duenaren sentazioaz gera baitaiteke, eta horren kariaz komunikazioarako eragozpenak sortu.

Bestalde, euskara ereduaren aldetik, familian ikasketarako testuinguru aproposa elkarriketa da. Halanda ze, eskolan ere berba egin behar zaio umeari, egin behar du umeak, irakasleak eurekin solasaldiak eginik, perpausak osatuz, berez-berezko joko linguistikoetan parte hartuta. Harreman hauen guztien bitartez egiten da posible hizkuntzaz jabetzea.

Horrez gain, indartu egin gura bada hizkuntzaren jabekuntza prozesua, hor dugu hizkuntzako «klase-ordua», non ahozkorako bide tradizionala –ira-

kasleak berba egin eta ikasleak entzun– apurte eta irakaskuntza osoaren berbalizaziora jo behar den.

Guztiarekin ere, gurasoetatik seme-alabetara datorren euskara eredia hain beharrezkoa izanik, ez da aipamena merezi duen bakarra, ezen hizkuntza aldi berean ontzi eta edari izanik, hots, komunikazio tresna eta kultura, bada edarrietan –kulturan– hizkuntza baino elementu gehiagorik. Euren artean dira, euskal gizarteko ospakizunak, dantzak, olgetak, sarritan ume-kantetan gordez bizi izan direnak gure egunok arte.

Euskalkiaz ari garenean, etxeko euskara eskolara ekartzeaz dihardugu, etxeko euskal kultura eskolara sarraraztearen gainean berba egiten ere bagabiltza.

Hona ezkerro, ordea, berriro aurkezten zaizkigu ikasle multzo bi, bata, etxean haur-kantak entzun, lo egin, jolastu eta, finean, ikasirik datorren haurra, eta bestea, bigarren hizkuntzara datorren –zorioneko– haur hori. Erdal familiatik hurbildu denak, jakina, bere etxetiko abesti ederrak dakartza, eta etxetik euskaldun datorkigunak bereak. Gertatzen da, ordea, euskaraz atxikitze-eredutik –familia euskaldunetik– eta murgiltze-eredutik –erdaldunetik– ailegaten denak protagonismo desberdina izan behar dutela. Zer dioguna baino diafanoagorik, batez ere, ahozko berbetaren eta kulturaren –kanten, esate baterako– trataeran dihardugunean!

Egin diezaiogun so ume kanta herrikoi bati, «Aitaita dala tutulun berde»ri. Hara Iñaki Gamindek jaso dituen Lekeitiokoa, Zamudiokoa eta Zeanurikoa:

Zamudiokoa	Lekeitiokoa	Zeanurikoa
Aitaita dala tutulun-berde amama dala masusta Bitoriatik etorri da-ta umea bidean galduta, oba, oba.	Aitaita dala txutxulunberde amama dala masustra aita gurea tabernan da-ta amama-txori emoten.	Aitaita dala susulun-berde amama dala masusta aita joan da Bituriara ama lepoan hartuta aita etorri da Bituriatik ama bidean galduta aitak topau dau ama kamaran gona gorria jantzita.

Bizkaieraren barruan, hiru azpieuskalki eta hiruretako ukitu kulturala topatzen ditugu. Etxetik euskaldun datorrenak lekuan lekuko aldaera landu deza ke eskolan, batez ere berak etxean jasoaz lotzeko. Jokabide honetan, atxikitze-eredukoaren ekarriari jaramon eginez antola daiteke irakaskuntza. Ez litzateke kontua, beraz, euskara moldea bakarrik, ezpada eduki kulturala ere bai. Argi dago, orduan, honetan euskaldun datorrenak hartuko lukeela protagonismoa.

Baina, hori horrela izanik, noiz legokioke protagonismoa murgiltze-eredukoari? Batez ere, ikasle guztientzat abestietarik bat eredutzat jarri, buruz ikasi eta haren gaineko teoria azal dadinean.

Beste modu batera adieraziz, egin duguna izan da, familia erdaldunekoa-ri euskara kanpotik barrurantz doakiola kontuan hartu, ikasgelatik bihotzerantz eta etxean euskaraz haziari, intimitatetik gramatikarantz. Jarraibide desberdinak.

Finean, gure kulturako aberastasuna tradizio hutsean laga barik, ikasiz biziberritu egingo litzateke. Beti ere, ikasle multzo biak ikasgela berean direla, baina bakoitzari era moldatuan irakatsirik. Barakaldoko ikasleak kanta honen bertsio bakarra jakitea aski du –ahal delarik hedatuena–, ostera, Lekeitiokoa, Zamudiokoa nahiz Zeanurikoa ez ditugu euren herrian, etxeetan, menderik mende umeak lotartzeko, alaitzeko, erabilia landu barik utziko, ohartzen garen moduan ohartzen garela, gainera, desberdintasunak aberastasun direla, hala doinuan nola letzan. Zertara letorke, bestela, dakigunetik ez dakigunera ari-tzea?

Ausubelek (1977) dioenez, esperientzia edukatibo formalen eragina ikaslearen hazte pertsonalean ere aurretiko ezagupenek baldintzatuta dago. Ezagupenok, era berean, izan daitezke aurretiko esperientzia edukatibo bateko emaitza –dela eskolakoa edo ez– edo eta aprendizaiaren espontaneoarena. Era berean, aprendizaiako egoera berrien eskarrietara gehiago edo gutxiago doituta egon daitezke eta zuzentasun handiago edo txikerragoko izan. Dena dela, zailtzarik ez dagoena da, eskola-ikasketa berria hasten duen ikaslea, hasten dela abiatu aurreko esperientzian eraikitako ezagupen, errepresentazio, ulerkera eta kontzeptuetatik eta erabiltzen dituela irakurketako tresna eta interpretazio-ko moduan aprendizaiaren emaitza baldintzatuz.

Ausubelek eta bere lankideek zuzentzen dituzten formulazioek ikuspegi aldaketa suposatzen dute. Oraingoan ez da indar egiten ikaslearen gaitasun intelektualean –zuzenean edo zeharka bere garapen mailaz loturik–, baizik eta aurretiko ezagupenen jabetzan. Ulerkera tradizionalen eta ohikoan, ikaslearen aprendizaiaren zuzen-zuzenean zegoen irakaslearen eraginaren eta erabilitako metodologiaren pentzudan. Oraingoan, pentsatzeko prozesuetan eta arteragoko ezagupenetan jartzen da enfokoa.

«Hezkuntza psikologia guztia printzipio bakarrean bildu behar banu, hone-laxe enuntziatuko nuke: aprendizaiaren eraginik handiena duen faktorea, ikasleak badakiena da. Iker bedi hori eta irakats dadila kontsekuenteki. *Ausubel (1993: 1)*

Ausubel-ek baieztapen hori aprendizaiaren esanguratsuen barruan egiten du. Aprendizaiaren esanguratsuan esanahi berriak jasotzeaz mintzo gara eta horretarako aurreuposatu egiten da aprendizaiaren esanguratsurako joera, baita aprendizaiaren zeregin potentzialki esanguratsua ere –hots, zeregin bat erlazionaturik egon daitekeena modu substantzial eta ez arbitrarioan ikasleak jadanik

ezagutzen duenarekin-. Bestela esanik, ikasle batentzat erreferente jakin batek benetan esan gura badu zeozer, orduan deitzen dugu esanguratsu.

Ikasleen ikasketa esanguratsua neurria handian dago arterik jasotako eza-gutzaren pentzudan. Arterik izaten den eskema mentala da oinarri ezagutza berria ulertzeko nahiz prozesatzeko. Guk lantzen dihardugun arlorako, haur eskolan sartzen den umearentzat –Otik 3 urtera arteko Haur Hezkuntzako Lehen Ziklokoentzat– etxean jarritako oinarriak dira aurretiko ezagutza, hau da etxean ikasitako berbeta zein kantak

Honetan ere, honenbestez, euskalkia versus ikasketa naturalera jo dugu (**versus** Patinezko zentzuan hartuta **-rantz**; ez ingeleseko «**aurka**» erabilera okerrean).

Ezin egin duguna da –eta honexetan datza euskalkiko seme-alaben gal-tze-prozesu deitoragarria– uniformitatearen izenean euskaldunak zein erdaldu-nak murgiltze-eredu berekotzat jo, alegia, gela jakin baten diren euskaldunak ez balira bezala jokatu, den-denekin zerotik hasiz, guztientzat ere euskara bi-garren hizkuntza balitz bezala jokaturik, Ausubelek argitu izan digun ikasketa esanguratsua, arterik izaten den ezagutza oinarri (duen), ikasketa hori ez ba-litz bezala jokaturik.

Beraz, eskolak etxetik euskalkia jakinik datorren ikaslea dakienetik ez da-kienera eraman behar du, euskara batua euskalkiaren arartekotasunaz ikasirik –Ikasketa Esanguratsuaren arabera, arterik ezagun zaizkion sinboloen bitartez– eta horretarako familiako berbeta landu egin behar da irakaskuntzan, ezen eus-kara batua jakiteak ez baitakar «per se» euskalkian alfabetatzea.

Sakonera jota, aintzat hartu behar da Erramun Baxokek dioskuna:

«Behin betikotz jakin dezagula, jatorrizko hitzunek daukatela kompeten-tzia eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima ga-beko euskaranto hil bat baizik.» Erramun Baxok (1985).

Eta azkenik, berba laburretan, zer da uraren barren-barrenean bila gabil-tzana? Bada, euskaldun izatea, unibertsoan euskara entzun dadin erdiestea.

3.2.5. *Irakaskuntzaren berbalizazioa*

Edozelan ere, irakasle guztiak ahozko berbetarako irakasle baliozko bila-ka daitezten, ezinbestekoa da Irakaskuntzaren Berbalizazioa deritzagun para-digman jokatzea.

Berbalizazioa deritzagu, ideiak, sentimenduak, gertaerak berbalizatzeari, elez adierazteari, hitzez iragartzera emateari. Ikasgelan mutu dautzan mahai, liburu, arbel zein koadernoak mintzoaren sarean sartzea da berbalizazioa. Ge-lan dihardugula dihardugunean, egoera komunikatiboa sortu behar da, hezike-

ta mutua gainditzeko. Horretarako, goizeko egunonetik beretik eskatu behar dugu erantzuna, ez dakit tankerako topikoetan ezkutatzea gaitzetsiz.

Behin ahozko jardunean ari garenean, euskalkia berez-berez azaltzen zaigu, ezen euskara idatzia bakarra bada ere, euskara mintzatuak anitz baitira. Beraz, euskalkia zergatik baino zelan izango da auzia, nola gauzatu behar dugun euskara batuaren jorra eta nola euskalkiarena.

Berba egiterakoan ez ditugu gogoan hizkuntzetako departamentuak soilik, asignatura guztietakoak baino. Ahozkoa gai desberdinen inguruan praktika daiteke, edozein gertaeraz balia gaitzke hitz egiteko. Nahi balitz hala izendatu, ahozkoa zehar gai bat da, arlo guztiak hartzen dituen, irakasle guztiak dagokiena, eraberean erabilgarria matematikako zenbakiak lantzean nahiz fisikako neurriak. Ez baita gomendagarriana 2-1 (bi bat) irakurtzen duen ikasleari, «bi eta bat» irakurtzen matematikakoak baino euskarakoak irakatsi beharra.

Irakaskuntzaren berbalizazioak ez du eskatzen eguneroko jardunetik aldentzerik –Euskal Hizkuntza eta Literaturan baliatuko dira, batez ere, hizkuntzen irakaskuntzarako erabili ohi diren ahozko ariketez edo bertsolaritzaz–, egunerokoan aski da irakasleak berak azaldua azaleraztea ikasleari edo liburuko idatzia ahoz emanaraztea edo arbeleko buruketa bozgoraz adieraziz osotzea.

Berbalizazioa irakasbide bat da, metodoa, ariketa apartekoa baino gehiago. Idatzizko euskarria hor izango dugu testuliburuetan, koadernoan, arbelean, agendan. Ahozkoa ezin etor daiteke ordezkatzera, bai, ordea, inoiz galdu behar ez zuen lekua berreskuratzea, Aristotelesen peripatew hura geureganatzera.

Gaiari osotasuna emateko, ahozko azterketak egin behar dira. Azterketa idatziez gainera, eskolako curriculumean sartu behar da ahozko frogak, bestela ikasleak ez bailuke aintzat hartuko kurtso guztiko ahozkototasuna. Gaur, baina, ez dugu gehiagotarako betarik.

GALDERAK ETA ERANTZUNAK

Entzun ziren galderen artean, bazen bat erantzun gabe laga nuena: «Euskalki kontua ongi, baina gure arazoa euskañola duk, gero eta traketsago mintzatzen direla».

Egia aitor badezaket, hitzaldiko denbora agortuta neukala baino galderari benetako zentzua hartzen ez niolako utzi nuen erantzun gabe, ezin bainuen aditu euskalkia euskañolaren antidotoetarik bat baino.

Hara! Ni aritu nintzen Ausubelez, Ikasketa esanguratsuaz, Vigotsky-ren eta Piaget-en haurren garai egoentrikoaz; Hizkuntzaren ikasketa naturalaz; curriculumaz; diglosiaz,...hau da, irakaskuntzaren hobekuntzarako baliabideez. Gainera, arrazoitu egin nuen etxetik euskaldun datozenak murgiltzera datozengandik bereiztu beharra. Eta berrogei minutuak agortu ostean «Bai, baina arazoa euskañola da». Berbaldi guzti-guztia ez ota zen, ba, euskararen kalitatea hobetzeko saioa, alegia euskañol kontuei irtenbidea aurkitzeko. Beraz, ez nion kontesturik aurkitzen itaunari.

Nire erantzuna, laburrean hauxe zatekeen, eta da orain:

1. Galderagile horrek arrazoi duzu, baldin badiozu euskañolak berdintu eragiten duela atxikitze-ereduan zein murgiltze-ereduan, ezen Iñaki Martínez de Lunak dioskunez, «hizkuntza pobrezia hori egunerokoan erdara nagusitzen den giroetako euskaldunen –titikoen nahiz berrien- ajea baita» (2).

2. Alderantziz, oker zaude oso, adierazi gura baduzu euskalkia gelara ekartzea lan alferra dela euskañolaren aurrean.

2.1. Alferreko balitz, ez lituzkete bidaliko –hainbeste diru xahutuz– seme-alabak Irlandara ingelesa jatorrizkoekin praktikatzera. Zeure gelan ikasia non erabil daiteke euskaldunen artean ez bada, non deseuskañoldu euskaraz bizi diren gazteekin izan ezik, hots, gaurko Euskal Herrian norekin euskalkian mintzatzen direnekin –gaurkoz gutxiegia euskara batuan– egin ezik?

2.2. Uste dut ez duzula ulertu behar bezain sakon euskalkiak eskolan zer suposatzen duen. Ez da aldaera bitxiago edo lekukoago bat, dialektologoei bakarrik interesatzen zaiena, ezpada hizkuntza bizia. Beste hitz batzuekin adieraziz, euskalkia da euskara herri horretan, alegia, euskalkia kendurik ez da euskararik.

2.3. Nahi baduzu, eskolan euskalkiaren ekarri aintzat hartzea –beste edozein ekarri bezala– ez da bakarrean nahiko izango. Hala ere, eskolak erantzun egin behar dio dagokion betebeharrari. Eskolak ondo irakatsi behar du, behintzat alemaneko ikastetxeetan irakasten den bezain ongi. Eskolaz kanpo beste batzuek dira nor euskara biziartzeko eta ezin beteko du eskolak gizarteak egin beharreko guztia.

2.4. Norengandik jaso daiteke ahozko erregistroa eta horko azentu, keinu, txanda emate eta abar, betiko euskaldunen ahoetatik ez bada?

2.5. Zabalegia, garrantzitsuegia da gal dadin uzten dugun aberastasuna euskalkia lantzen ez badugu, orain zehaztuko ez dugun arren.

Mila esker zuen harrera eta jarrera beroarengatik.

(2) *Jakin* 126,107. or.

EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK NAFARROAKO ADMINISTRAZIOAN ETA HEZKUNTZAN:

Inkesta baten emaitzak, kezak eta ondorioak

Paskual Rekalde Irigoien

Patxi Iñigo Ariztegi

1. SARRERA

Euskara batuaren sorreraz geroztik beti izan da korapilatsua euskararen eta euskalkien arteko eztabaida: zer den euskara batua eta zer euskalkia, noiz, non eta nola erabili behar den bata ala bestea.

Euskaltzaindiak «Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak» adierazpenean (1), gaiari buruzko irizpide batzuk finkatu zituen.

Harrezkero euskararen estatusa urtetik urtera aldatuz joan zenez gero, Euskaltzaindiak, euskalkien erabilera eguneratu nahiez, beste adierazpen bat egin zuen 1994an «Euskalkien erabilera Administrazioako 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan» izeneko agirian (2). Horretan ere, euskalkian idatzi nahi denarako beste irizpide batzuk finkatu zituen.

Azken aldian euskalkien erabilera eguneratzen jarraitzeko asmotan, Euskaltzaindiak Euskalkien lantaldea eratu zuen Jagon sailean. Lantalde honek 2001eko apirilaren 25eko bileran erabaki zuen, besteak beste, euskara batuaren eta euskalkien gaia Nafarroan zertan zen aztertzea. Paskual Rekaldek eta Patxi Iñigok hartu zuten lan horren ardura.

Lehenik eta behin, jakin nahi izan zuten nola lantzen den euskara batuaren eta euskalkien gaia Nafarroako administrazioan eta hezkuntzan. Horretarako pentsatu zuten alor horietan lanean ari zirenei gai horretan nola jokatzeko zuten eta zer irizpide zuten galdetzea zela biderik zuzenena. Eta halaxe egin zen. Galdetegi labur bat prestatu zen eta bertan galdetu zitzaizkien zein gaiaz zituzten kezak, irizpideak, jokabideak eta zalantzak.

(1) *Euskera* 24 (1979-1), 103-106 orr.

(2) *Euskera* 40 (1995-2, 3), 1019-1024 orr.

Hezkuntza (euskaltegi, ikastetxe, unibertsitate...) eta administrazio alorretatik (euskara itzultzaile, euskara teknikari...) erantzun asko jaso ziren (45 eta 14 erantzun, hurrenez hurren). Emaitzak biltzen zituen txostena egin eta Euskalkien lantaldearen aitzinean aurkeztu zen (3).

Horren ondoren, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak Uhartan 2003ko urrian antolatutako *Nafarroako euskalkiak* jardunaldian hezkuntza eta administrazio alorretatik jasotako erantzunak, emaitzak, zailtasunak eta zalantzak azaldu ziren. Eta hurrengo hau da, hain zuzen, jardunaldi hartan halabeharrez laburtuta azaldu genuena, osorik emana.

2. GALDETEGIA: NOLA ANTOLATU DEN

Galdetegia Nafarroako administrazioko hainbat profesionali eta hezkuntzako D ereduko hainbat ikastetxeri bidali zitzairen. Galdetegiak Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkarietatik bidali genituen. Helburua bakarra zen: euskara batuaren eta euskalkien gaia arloz arlo nola lantzen zen jakitea.

Administrazioko euskara itzultzaileek eta euskara teknikariek, eta hezkuntzako ikastetxeek bidalitako erantzunak hartu eta sailkatu ziren. Erantzun horiek guztiak (batzuetan zertxobait laburturik) agertu dira ondoko lerrootan (4).

Galdetegiko testuak paratu baino lehenago erantzunak zein eskualdetakoak diren erran dugu. Irakurketa errazteko, galderen testua laburtu da.

3. GALDETEGIA: ADMINISTRAZIOA

Nafarroako Foru Erkidegoko foru eta toki administrazioetako euskara itzultzaile eta euskara teknikariengana eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) euskara itzultzaileengana jo zen iritzia eske. Erantzuna zabala izan zen.

Galdetegiari erantzun diotenen nortasuna babestu nahi izan da. Hori dela eta, ez da pertsona edo erakunde horien izenik agerian jarri, artikulua honen eranskinetako 6. puntuan galdetegiari erantzun diotenen zerrenda izenduna jarri bada ere (5). Horretarako, gakoak asmatu dira (6.4. puntua).

(3) Esker mila galdetegiari erantzun dioten guztiei.

(4) Erantzunak egokitu eta laburtu behar izan dira, betiere erantzulearen hitzen esanahia aldatu gabe.

(5) Eranskinetako 6.3.1. puntuko hurrenkerak ez du nahitaez bat egiten artikulua honetako 3. puntuko iritziak eman dituztenenarekin.

3.1. Euskara itzultzaileak (FOADMITZ eta NUPITZ)

3.1.1. Iritziak

- Erdal eremua:
 - Foru administrazioko euskara itzultzaileak (FOADMITZ-1 eta 2)
 - Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskara itzultzaileak (NUPITZ-1)

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

- **FOADMITZ-1 (6)**
 - Bai. Euskalkiak, gaur egun, batuaren (edo «osoaren») hornitzaile gisa ikusten ditut, batez ere. Ez nau kezkatzen euskalkiak «gal-tzeak», baldin eta galera hori gertatzen bada erabiltzaileen baturanzko bilakaera «natural» baten ondorioz.
- **FOADMITZ-2 (7)**
 - Euskara estandarrekin eta teknikoarekin lanean ari garenek ditugun hutsunerik handienak bi dira: bata, ordain egokia aurkitu ezina, inongo hiztegitan agertzen ez delako, eta, bestea, termino dantza.
- **NUPITZ-1 (8)**
 - Bai. Kezka handia dut. Iruditzen zait euskalkiek ez dutela luze iraunen, euskara batuak itota. Euskalkian mintzatzen direnak gero eta gutxiago dira.
 - Tira, kezka esatea agian gehiegitxo litzateke, baina gai interesgarria da, hori bai.

(6) Galdetegi bakarra bidali zen Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuko Itzulpen Atalera. Erantzun bakarra hartu dugu eta hura erantzuna bidali duen itzultzailearen beraren iritzia da, ez talde osoarena.

(7) Galdetegi bakarra bidali zen Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzura. Erantzun bakarra hartu dugu eta hura erantzuna bidali duen itzultzailearen beraren iritzia da, ez han lanean ari diren gainerako itzultzaileena.

(8) Galdetegi bakarra bidali zen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Itzulpen Zerbitzura. Itzultzaile guztiek bidali zuten erantzuna.

2. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN LEKUA EGUNEROKO LANEAN

• FOADMITZ-1

- Gehienbat «batutzat» har daitekeena erabiltzen dugu. Izan ere, halaxe behar duela uste dut, administrazio arloko testuak direlako...

• FOADMITZ-2

- Euskara batuak hartzen du leku gehien.

• NUPITZ-1

- Euskara batua idatzizko hizkuntza da niretzat, eta euskalkia ahozkoa (hala ere, euskaldun berriekin batuaz hitz egiten saiatzen naiz, batzuetan batua eta euskalkia nahasten ditudan arren).
- Gehiena euskara batuak hartzen du, % 99, euskalkien ekarpenen bat edo bestez zipriztindua.

3. GALDERA: EUSKARA BATUA IDAZTEKO, EUSKALKIAK AHOZKORAKO. ADOS?

• FOADMITZ-1

- Horrela erratea, sobera sinplifikatzea da. Jakina, idatziak arau estuagoak ditu. Baina, azken finean, norekin-norentzat ari garen da kontua, bai ahoz bai idatziz. Zer elkarriketa mota, zer testu klase.
- Uste dut irizpide konbergente edo bateratzailea izan behar genukeela, oro har. Gaur egungo bizimoduak (jendearen harat-hunateko mugimenduak, komunikazio sareak, irakaskuntza, komunikabi-deak...) batzera garamatza, eta «normaltasunez» garatu diren hizkuntzek bide hori egin dute.

• FOADMITZ-2

- Nire ustez idatzian euskara batuaren ortografia sistema erabili behar da, esperimentu arrarorik egin gabe.

• NUPITZ-1

- Ez, ez nago erabat ados. Iruditzen zait euskalkian ere idatz daitekeela, idatziaren hartzailea euskalki berekoa bada.
- Ez, idazteko ere izan daiteke euskalkia. Kontua da nori zuzendua den, nork egingo duen, idazkiak zer hedapen izango duen... Eta eus-

kara batua ahozkorako ere bai, jakina. Zein da bestela Iruñeko euskalkia?

4. GALDERA: EUSKARA BATU MOTA (HUTSA, EUSKALKIEN EKARPENEZ ABERASTUA)

• FOADMITZ-1

- Baina, zein da «estandar hutsa»? Zer da «euskara batua»? Zerbait egina eta bukatua, edo egiten ari den zerbait? Euskara batua egiten ari gara eta euskalkiek hornitzen dute, jakina. Zer aterako den? Arlo bakoitzean (literaturan, kazetaritzan, administrazioan...) nork duen indarrak (pisurik) handiena, huraxe.

• FOADMITZ-2

- Onena izango litzateke euskara batua euskalkien ekarpenez idaztea (hiztegi, esamolde... mailan). Uste dut euskara estandarra bultzatu behar dela orain arte bultzatu dena baino gehiago, hizkuntzaren berezko bidea baita.

• NUPITZ-1

- Euskalkia buruan izaten dut nik, batuan idazten dudanean; hau da, euskara batuak ematen dizkidan aukeren barnean, nire euskalkiko morfologia, sintaxia eta hitzak erabiltzen ditut.
- Idazten duenaren esku gelditzen da gure etxe honetan [unibertsitate publikoan]. Finkatuta dugun gauza bakarra da testu beraren barruan koherenteak izatea.

5. GALDERA: NOIZ ETA NOLA IDATZI EUSKALKIAN; EUSKALKIAN IDAZTEKO ARAUAK; AHOSKATU BEZALA IDATZI?

• FOADMITZ-1

- Ez dakit zer erantzun. Ttipi-Ttapa aldizkarian idatzi behar da «euskalkian»? Ez dut oso garbi. Eta zer da euskalkian idaztea? Dena dela, niri ez zait bidezkoa iruditzen herri bakoitzean erraten den moduan idatzi nahi izatea. Alegia, ahoskatu bezala idazten hasten bagara, mila forma diferente aterako zaizkigu hitz bakoitzarentzat...

- **FOADMITZ-2**

- Ez nator bat ortografia paraleloak egitearekin. Uste dut langintza horretan egin behar den ahaleginak etekin hobea ekarriko lukeela eus-kara batuaren ajeak garbitzen erabiliko balitz.

- **NUPITZ-1**

- Tokiko hedabideetan eta erakundeetan tokiko euskalkia idatzi eta mintzatu behar da.
- Inola ere ez da idatzi behar ahoskatzen den bezala.
- Hizkuntza idatzia, hain zuzen ere, idazteko da, bere legeak dauzka, eta ezin ditu ahozko xehetasun guztiak jaso. Euskaltzaindiak idatzirako arauak finkatu ondoren, astakeria iruditzen zait, esaterako, «behar dugu» adizkia hamaika modutan idaztea (biaugu, beadu...) Legeak emanda dauzkagu.
- Idazten ahal dela bai, geuk idatziko genukeela, ez dut uste, ez bada oso gauza zehatza eta toki jakin batera zuzendua.
- Euskalkian idazteko arauak finkatu beharko lirateke eta adituek esan beharko lukete nola idatzi euskalkiak.

**6. GALDERA: NOLA IDATZI BEHAR DEN JAKITEKO
ERABAKI FINKORIK HARTU BADA, HORRETARAKO
ARRAZOIAK**

- **NUPITZ-1**

- Ez dut euskalkian idazten, Iruñean eta unibertsitatean egiten baitut lan.
- Ez dugu halako erabakirik hartu unibertsitatean.

* * *

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO
ITZULTZAILE BATEN OHARRAK**

- «Euskalkian idatzi» esaten denean, «euskalki literario historikoetan» idaztea esan nahi da? Badirudi ezetz, ezta? Badirudi jendeak esan nahi duela «bere herrian hitz egiten den bezala idatzi»; beraz, niri

arazoa zertan den jakiteko funtsezkoa iruditzen zait ahozkoa/idatzia (tradizioz idatzia) bereiztea.

- Mintzatzen den moduan edo modutsuan idazteari dagokionez, nik batzuetan sasi-problema bat dela uste dut.
- Zer irabaziko genuke, eta zer galdu, euskalkia sartuko bagenu? Ez dakit, benetan. Ez ditudalako galderaren terminoak ulertzen. Nik uste dut «euskalkiaren aldeko» batzuek uste dutela horrela kultura idatziaren aldeko atxikimendu gehiago lortuko direla. Zoritxarrez, niri iruditzen zait planteamendu hori egiten dutenek beren burua engainatzen dutela.
- «Euskalkia» zer den ere ez dut hain garbi ikusten. Fonetika da? Aditza da? Hiztegia da? Morfologia da?
- Euskalkia euskara batuan sartzeari dagokionez, «sartu» ere ez dakit zer den. Hau da, niri, hainbat tokitan, ederki iruditzen zait; ederki ez ezik, beharrezkoa eta gisakoa. Baina oso eremu txikiak iruditzen zaizkit, oso egoera puntualak. Herrietako jaiak iragartzeaz gain, udaletxean, agian, zenbait gauzatan ere, ez dut gaizki ikusten. Horik aurrera... Ez dakit, bada.
- Euskalkietatik benetan eta urjentziaz erreskatatu beharrezkoa iruditzen zaidana hiztegia eta esamoldeak (lokuizioak, erranairuak, eta abar) dira; selektiboki, gainera.

3.1.2. *Emaitzak*

1. *galdera*

Ezbairik ez dago: foru administrazioko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko itzultzaileek kezkarik izan badute esku artean dugun gai honetan. Hala ere, erraten ahal da denek ez dutela kezka bat eta bera.

Azpimarratzekoak dira arlo horietako profesionalak egin dituzten hainbat baieztapen:

- Euskalkiak batuaren edo hornitzaile dira.
- Euskalkien galera, baturanzko joera naturalaren ondorio dira.
- Euskalkian mintzatzen direnak gero eta gutxiago dira.

2. *galdera*

Erantzunak askotarikoak dira. Hala ere, erran dezakegu euskara batuaz idazten direla, oro har, administrazioko eta unibertsitate publikoko testuak, Na-

farroa osorako egiten baitira. Halarik ere, euskalkien ekarpena ez da bazterrean uzten.

3. *galdera*

Gehienak ez daude ados. Itzultzaile batendako gaia sobera sinplifikatzea da. Beste batendako euskalkian idatzi behar bada, euskara batuaren ortografia sistema bera erabili behar da. Euskalkian ere idatz daiteke. Euskara batua ahozkoan ere erabil daiteke.

4. *galdera*

Itzultzaile baten erranetan, euskara batua egiten ari garen zerbait da, bukatu gabeko prozesua. Literaturako, kazetaritzako, administrazio... joerek markatuko dituzte euskara batuaren ildoak. Dena dela, garbi samar dago euskalkien ekarpenarekin osatzen ahal dela euskara batua.

5. *galdera*

Oro har, euskalkian idazterik badela onartzen badute ere galdetutakoek, hain garbi ez dutena da nola, non eta norendako egin behar den euskalkian. Ahoskatu bezala ez dela idatzi behar ere aski garbi geratu da erantzunak ikusi eta azterturik.

Euskalkian idazteko arauak finkatu beharko dira eta adituek erran beharko dute zer eta nola idatzi behar den euskalkian.

6. *galdera*

Eskuarki, inon ez da hartu erabaki finkorik. Hala ere, administrazio osorako eta unibertsitateko ari diren profesionalek egokiagotzat jotzen dute testuak euskara batuaz idaztea, ahal dela Nafarroako euskalkien ekarpenaz baliaturik.

7. *galdera*

Foru administrazioko eta unibertsitateko langileen iritzia desberdinak badira ere, bat egiten dute eskuarki euskara batuaren behararekin, euskara batu aberatsa egin behararekin eta tokian tokiko euskalkien ezaugarriak euskara zuzen diren heinean, euskara batuan txertatzearekin.

Nafarroako euskalkiak askotarikoak dira. Hori hala izanik, zail egiten da euskalki horiek (edo euskalki zehatz bat) nola eta non ezarri behar den erabakitzea.

3.2. Euskara teknikariak (FOADMTEK eta TOADMTEK)

3.2.1. Iritziak

- Euskal eremua:
 - Toki administrazioko euskara teknikariak (TOADMTEK-1, 2, 3, 4 eta 5)
- Erdal eremua:
 - Foru administrazioko euskara teknikariak (FOADMTEK-1)
 - Toki administrazioko euskara teknikariak (TOADMTEK-6, 7 eta 8)

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

- **FOADMTEK-1**
 - Bai. Kezka aspaldikoa da. Tokian tokikoa egin behar dela uste duen horietakoa nauzu.
 - Nire ustez tokian tokiko euskalkia erabiltzea da, teorian, egin beharrekoa. Baina gure Iruñea honetan zein euskalkitan hitz egiten dugu?
- **TOADMTEK-1**
 - Bai. Kezka euskalkiaren ezagutzak eta erabilerak hizkuntzaren erabilerari ematen dizkion baliabideak eta aukerak neurri batean galzten ari direlako edo.
 - Euskalkiarekiko kezka, bestalde, euskararekiko atxikimendua eta motibazioa indartu nahiak ere eragiten digu.
- **TOADMTEK-2**
 - Bai. Gure inguruan bada kezka gai honen inguruan. Bertako jendeak, oro har, euskalki propioa erabiltzen du eta batzuek euskara batua ulertzeko zailtasunak dituzte.
 - Euskalkia mantendu behar dela uste dugu, estandarra, batez ere haur eta gazteenen artean gero eta gehiago erabiltzen baita.

• **TOADMTEK-3**

- Bai, jakina! Euskal Herri osorako komunikabide euskaldunetan erabiltzen den euskara batuarekin ere tira-bira eta eztabaidak izan ohi dira, batez ere zenbait etxetan arras arrotza egiten baitzaie euskara batuan entzutea.
- Batuak berebiziko garrantzia du, baina euskalkiak ere ezin ditugu ahantzi, eta bakoitza bere lekuan eta bere unean erabiltzen jakin beharko genuke, biei dagokien garrantzia emanez.

• **TOADMTEK-4**

- Bai. Badut kezka gai honen inguruan. Bi kezka desberdin ahozko eta idatzizko erabileran. Inguru honetara iritsitakoan hasi nintzen bertako hizkeran trebatzen eta (ahal nuen neurrian) erabiltzen. Erabilera idatziari dagokionez berdin.
- Bertako moduan idazten saiatzen naiz, dena den, horrek ez du erran nahi euskalkian idazten dudarik, *erran, honat, aitzin...* euskara batua baitira.

• **TOADMTEK-5**

- Bai. Hala ere, ez dakit «kezka» deitzen ahal zaion. Ahalegintzen gara sortzen dugun dokumentazioan euskalkia erabiltzen, batez ere jendaurreko dokumentua baldin bada, aisago uler dezaten.

• **TOADMTEK-6**

- Batuaren bidez datorkigu euskararen berreskuratzea, bai eskoletan, bai helduak euskalduntzeko ikastegietan.
- Gure kezkarik handiena euskara batua finkatzea eta honen ezagutza areagotzea da; bertako euskalkien berreskuratzea geroago etor daigukeelakoan gaude...
- Euskalkien gaineko kezka hor dago, baina euskara batuarekiko kezka handiagoa dela (ezagutza eta erabilera handitzearena) esan dezakegu.

• **TOADMTEK-7**

- Bai, noski! Normalizazio linguistikoa arrakastaz burutzeko, euskararen erregistro ugari eta aberatsak behar ditugu funtzionalki esparru guztietan euskara egoki zabaltzeko.

- Hau bezalako ingurune erdaldunduetan erregistroen defizita oso larria da.

- **TOADMTEK-8**

- Iruñerrian bizi naiz eta gehienbat euskaldun berriekin hitz egiten dut. Horren ondorioz, nahiz eta ni euskaldun zaharra izan, nahiko baztertuta daukat herriko euskalkiaren erabilera.

2. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN LEKUA EGUNEROKO LANEAN

- **FOADMTEK-1**

- % 98 euskara batuari dagokio; administrazio zentrala, nafar guztiona, ez da euskalki bakar batean aritzen ahal.
- Ez dut uste hizkuntzak pairatzen duen egoera makurra ikusita, horrelako sasi-banaketa eta hautaketak onartuko lituzkeenik.
- Administrazioan lan teknikoa egiten dugunok gaztelaniaz idazten ditugu txosten «ofizial» guztiak, hasteko (ez dugu beste biderik). Barneko txostenak, berriz, batuaz.
- Nik uste dut, Nafarroan ez dagoela euskalki bakar bat, bariante asko eta diferenteak direla, eta horren ondorioz batuaz idatzi behar dugula.

- **TOADMTEK-1**

- Oro har, espazio banaketa garbi samarra egiten da. Zeregin idatzietan euskara batua erabiltzen da eta ahozko harremanetarako euskalkia-edo.
- Administrazioan, euskara batua idatziz.

- **TOADMTEK-2**

- Normalki, batua da erabiltzen duguna: idatzi ofizialetan, beste administrazioekiko harremanetan.
- Euskalkia batuarekin tartekatzen dugu bertako biztanleei oharren bat igorri behar zaienean. Oro har, egitura estandarra erabiltzen dugu, baina bertako euskalkiko hitz edo/eta esamolde zehatzak tartekatzen ditugu.

• TOADMTEK-3

- Euskara batua normalki idazteko erabiltzen dut, nahiz eta euskalkiaren ezaugarri batzuk sartu.

• TOADMTEK4

- Ez ditut bi gauza kontrajarri bezala ikusten, baina ahozko erabileran bertako hizkera erabiltzen saiatzen naiz eta idatzizkoan, batua bertako solas eta egiturekin aberasten.
- Erran behar da batua eta bertako nafar euskalkia ez direla hain desberdinak.

• TOADMTEK-5

- Normalki gure produkzio idatzi gehiena eskualde mailan bertzerik ez da hedatzen. Gehienetan euskalkia erabiltzen dugu, betiere nora/nori zuzendua den kontuan hartuta.

• TOADMTEK-6

- Eguneroko lanean erabiltzen duguna euskara batua da.
- Eskoletako haurrek ere batua baino ez dute ikasten. Gure kasuan, euskalkietatik erabiltzen duguna hainbat hitz izan ohi dira, hots: hilabeteen izenak, *aiza-bilgua* udalaren ordeaz, etab.

• TOADMTEK-7

- Nire eguneroko lanean batua % 100 da.
- Gure kasuan (udal mailako administrazioa baita) Nafarroa osoko ezaugarriak erabiltzen saiatzen gara.
- Bertako euskara galdu den eskualdeetan konpondu beharreko arazoak daukagu: gertuen daukagun euskalkia ekarri edo erabileraren poderioz sortuko (?) diren erregistro ez-formalen zain egon?
- Ziur aski erdibidean dago soluzioa: inguruko euskalkietan oinarritutako eredu egokiak eskaini eta zabaldu, eta hiztunen sormenari leku handia utzi.

• TOADMTEK-8

- Ia erabat, euskara batua erabiltzen dut.

3. GALDERA: EUSKARA BATUA IDAZTEKO, EUSKALKIAK AHOZKORAKO. ADOS?

• FOADMTEK-1

- Ez nago ados. Euskalkia bizirik dagoenean bera da aprobetxatu behar dena, ahoz zein idatziz, bera baita komunikazioa ahalbidetuko diguna.
- Toki administrazioak aise betetzen ahal du arau hau: tokian tokikoa. Baina, administrazio zentralean zer egin? Eta euskara galdu den tokietan, zer?
- Ene ustez arazoa hau da: ba al da nafarrerarik? Eta zein da nafarrera? Bortzerrietan egiten dena? Eta Arbizun egiten dena ez al da nafarrera?

• TOADMTEK-1

- Ez nago ados. Euskalkiak idatziz ere erabil daitezke eta horixe da azken urteotan lantzen ari naizen proposamena, nahiz eta zailtasun handi samarrak izan.
- Zenbait idatzi arrunt eta erraz bertako hizkeran eman beharko lirake. Oso formalak direnak, oraingoz, euskara batuaz eman behar direla uste dut...
- Euskalkia idatziz erabiltzeko araurik ez dagoenez, ezinezkoa iruditzen zait testu formal eta luzeetan euskalkiaren erabilera idatzi duin eta zuzena egitea.
- Euskalkia idazteko ere erabili behar dela pentsatzen duenak arazo praktikoa du: nola idatzi.

• TOADMTEK-2

- Bai idazterakoan bai hitz egiterakoan egoera nolakoa den ikusi behar da.
- Idazterakoan egokiagoa da batua erabiltzea gure eremutik kanpoko harremanetan, baina bertakoekin euskalkia erabil daiteke.
- Ahozkoan euskalkia ahalik eta egoera gehienetan erabili behar dela uste dugu, gutxienez ulertzeko arazoak sortzen ez diren egoeretan.

• TOADMTEK-3

- Ez modu hertsu batean, hau da, printzipioz bai, baina eskualdeko euskalkiaren berezitasunak ere kontuan hartu beharko lirateke lexikoan, etab.
- Ez dugu hitz egiten den moduan idatziko, baina zenbait hitz eta esapide mantentzen ahal direla uste dut.
- Administrazioan euskara batuan, baina bertako euskalkiaren ezauzgarriak sartuz idatziko nuke.

• TOADMTEK-4

- Ez nator bat baieztapen honekin, euskalkia ere idazteko erabil daitekeela uste baitut, baina ez beti, esparru jakin batzuetan: adibidez, irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza arte), aisialdian, herri komunikabideetan, herri mailako administrazioan.

• TOADMTEK-5

- Inondik ere ez. Biak bietarako erabili behar dira, bakoitza bere lekuan eta bere garaian.
- Herritarrei eta eskualde mailan zabaltzen diren mezuak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskalkian egitea komeni da.
- Iruditzen zaigu euskalkian emateak gauzak errazten dituela.

• TOADMTEK-6

- Bai, baina... Gurean beste aukerarik ez dugulako, baina nik uste euskalkiek euskara batua aberasterik badutela.

• TOADMTEK-7

- Esaldia gaiaren sinplifikazioa iruditzen zait.
- Orain arteko lan handiena erregistro formaletan egin da (euskara batua, nagusiki).
- Esparru ezformalean euskalkiak ezinbesteko iturri dira, baina oker egonen ginateke Nafarroako euskalkien azterketa filologikoak arazoa konponduko duela pentsatuko bagenu.

• TOADMTEK-8

- Esaldi hori zehaztu behar da.

- Ahozko zuzeneko harremanetan, ongi deritzot euskalkiak erabiltzeari, nahiz eta oso zaila ikusi hori egitea, zeren eta, nongo euskalkia erabili behar dugu Iruñerrian?

4. GALDERA: EUSKARA BATU MOTA (HUTSA, EUSKALKIEN EKARPENEZ ABERASTUA)

• FOADMTEK-1

- Batek daki! Nik neronek ere ez dakit estandarra, asmatua edo zer euskara mota erabiltzen dudan. Ahal dudana, dakidana eta jasotzailearen arabera.
- Gure kasuan [Euskara Zerbitzuarenean] euskara batua defendatzen dut nik. Estandarra? Baliteke. Dena den nik ez dut inongo arazorik ikusten euskalkien ekarpenez aberastea. Hala ere, nolabaiteko koherentzia izan beharko lukeela uste dut.

• TOADMTEK-1

- Nire ustez euskara batua idazteko eta hitz egiteko da.
- Euskara batuak euskalkien ekarpenak jaso behar ditu. Ezinbestean, hizkuntza aberatsa eta koloreduna nahi badugu.
- Gure inguruan erabiltzen den edo dugun euskara batua nahikoa «aseptikoa» dela esanen nuke.

• TOADMTEK-2

- Idaztean estandarra erabiltzea egokiagoa da kasu gehienetan, baina, zenbaitetan, bertako hizkeraren ezaugarriak ere erabili beharra dago.

• TOADMTEK-3

- Bertako euskal-kiaren ekarpenez aberastutako euskaraz idazten saiatzen gara.

• TOADMTEK-4

- Ez dut uste euskara batua idazteko bakarrik erabil dezakegula, gure euskalkia ez dakien norbaitekin komunikatzeko, batua edo gure euskalkitik abiatuta batura hurbiltzen den hizkera erabili beharko dugu.

• **TOADMTEK-5**

- Agian erabiltzen duguna «estandarra + euskalkiaren ekarpenak» izanen da.

• **TOADMTEK-6**

- Egokiena litzateke estandarra erabiltzea, baina sinonimoak jartzera-koan euskalkiak oso aberasgarriak izan daitezke.

• **TOADMTEK-7**

- Dena den, euskara batua ez da bakarrik idazteko. Argi dago.

• **TOADMTEK-8**

- Saiatzen naiz euskara batua erabiltzen, baina neure eskualdeko euskalkiaren ukituarekin.

**5. GALDERA: NOIZ ETA NOLA IDATZI EUSKALKIAN;
EUSKALKIAN IDAZTEKO ARAUAK; AHOSKATU
BEZALA IDATZI?**

• **FOADMTEK-1**

- Euskara batuaren arauak jarraitu behar direla uste dut. Batuak dituen arauak orokorrak dira eta euskalkiek bere gain hartu behar dituzte arau hauek guztiak.
- Eta ahoskatu bezala idatzi? Inoiz ez. Afera muturrera eramatea da, inolako konponbiderik eskaini gabe eta herritarrek guztiz nahastea.
- Euskalkietan idaztea onartzen bada, aurretik euskalkiaren arauak finkatu beharko dira. Azken finean, bi erregistro mota diferente dira.

• **TOADMTEK-2**

- Eskualdeko edo inguruetako herritarrei zuzendutako oharretan edo idazkietan erabil daiteke bertako euskalkia.
- Araurik zehaztu behar izanez gero, grafia arauak izanen lirateke agian garrantzitsuenak eskualde bateko euskalkia erabiltzerakoan.
- Estandarrean idatzia ez da ahozkoa bezala adierazten eta, euskalkien kasuan, kontu hau nola moldatu aztertu beharko litzateke...

• **TOADMTEK-3**

- Euskalkian idazten ahal baldin bada, ez nuke erraten den bezala idatziko, hau da, ortografiak guziendako bera izan behar luke, eta laburdurak, eta hitz eta bokal edo kontsonante jateak saihestuko nituzke.

• **TOADMTEK-4**

- Arauak finkatzeari dagokionez, ni ez naiz inor ezer errateko, uste dut ortografiak berdina izan behar duela beti, hau da, ezin dela idatzi ahoskatzen den moduan.

• **TOADMTEK-5**

- Euskalkian idazten ahal da bertako herri aldizkarietan eta, oro har, bertako herritarrei zuzendutako idatzi guztietan.
- Arau, gomendio edo dena delako batzuk ongi etorriko litzaizkiguke.
- Ahoskatu bezala idazteak irakurketa zaildu bertzerik ez du egiten. Zenbait herri aldizkaritan bide hori hautatu dute eta irakurtezinak direla iruditzen zaigu.

• **TOADMTEK-6**

- Uste dut arau batzuk finkatu beharko lirатеkeela.
- Ahoskatu bezala idaztea ez litzaidake oso zuzena irudituko nahastea eta okertzea oso erraza izanen litzatekeelako.

• **TOADMTEK-7**

- Nafarroan, nire ustez, euskalkiak mailaz maila erabili behar dira.
- Esparru formaletan batua erabili behar da, Nafarroa osoko ezaugarriez aberastua, nahi bada.
- Eskualde mailako komunikabide eta administrazioetan euskalki idatzia erabil daiteke / behar da (?).
- Eskolak izugarrizko garrantzia dauka. Planifikazio zehatzak egin beharko genituzke, haurrei (etxetik euskaldunak direnei eta ez direnei) euskara gaur egun baino era egokiagoan transmititzeko.
- Euskalkien kasuan ezin da araurik eman. Horrek ez du esan nahi ezin direnik eredu egokiak eta aholkuak zabaldu.

- **TOADMTEK-8**

- Euskalkien idatzizko erabilera mugatuko nuke, herri aldizkarietara eta gehienez % 25 arte. Nola idatzi beharko litzateke? Horri buruz ez dut iritzirik.

6. GALDERA: NOLA IDATZI BEHAR DEN JAKITEKO ERABAKI FINKORIK HARTU BADA, HORRETARAKO ARRAZOIAK

- **FOADMTEK1**

- Garbi dago ahal dudan moduan moldatzeko nahiko lan badudala, alajainkoa!
- Hezkuntza Administrazioa erkidego osokoa izanik, eta erkidego honetan euskalki diferenteak izanik, uste dut onena batua erabiltzea dela. Euskalki konkretu bat inposatzea Nafarroa osorako, errealitatek kanpo dagoela uste dut, jokoan duguna euskararen erabilera bera baita.

- **TOADMTEK-1**

- Oraindik erabaki finkorik ez dago. Hala ere, galdera honen erantzuna aurreko galderei emandako erantzunetan ikus daitekeela uste dut.

- **TOADMTEK-2**

- Herritarrek, idatzian azaltzen dena ulertzeko arazorik izan ez dezaten eta, bertako euskalkia bizirik mantentzeko bide bat izan daitekeelako.
- Estandar hutsa erabiliz gero, jende askok zenbait gauza ez lituzke ulertuko eta hau da, hain zuzen ere, ekidin nahi duguna.

- **TOADMTEK-3**

- Lehen erran bezala, euskara batuan eta ahal delarik behinik behin euskalkiaren ezaugarriekin (gehienetan euskara batuan ere onartutako lexikoan) edo bertan erraten diren formekin idazten saiatzen gara, batzuetan euskara batua soil-soilik arrotza izaten ahal baita bertako bizilagun zenbaitendako.

• **TOADMTEK-4**

- Laneko idazkietan euskara batua erabiltzen dut, baina bertako ekarpenekin aberastua. Alde batetik, bertako hiztunekin komunikazioan hurbiltasuna lortzeko, eta, bestetik, batua izaten jarraitzen du eta euskaldun guztiendako ulergarria.

• **TOADMTEK-5**

- Ez dugu gisa horretako erabakirik hartu.

• **TOADMTEK-7**

- Batua «nafar erara» erabiltzeko arrazoiak:
 - Administrazioa esparru formala da.
 - Hemen Nafarroa osoan erabiltzen diren hizkerak hartzen saiatzen gara.
 - Hemengo hiztun gehienak berriak dira, eta batua da hobekien ulertzen dutena.
 - Nahiago dugu asmakerietan ibiltzea baino ezagutzen duguna erabiltzea.

7. GALDERA: BESTERIK...

• **FOADMTEK-1**

- Galdera pare bat egin nahi ditut:
 - 1) Euskalki bat aukeratu behar izanez gero, zein? Hiztun kopuruaren arabera hautaketa egin beharko litzateke?
 - 2) Hiztun traketsek euskalkia aitzakiatzat hartzen dutenean zer egin?

• **TOADMTEK-1**

- Bertako euskara euskara batutik nahiko hurbil dago.
- Hemen euskara batua ez da hain «arrotza» gertatzen, batez ere gazteen artean. Horrek ere, nire irudituz, euskalkia idatziz erabiltzeko beharra leundu egiten du eta premia hori ez da hain nabarmen ikusten.

• **TOADMTEK-2**

- Eskualde bakoitzean bertako euskalkia mantentzeko eta sustatzeko jardueraren bat antolatu beharko litzateke eta batez ere belaunaldi gazteengan izan beharko luke eragina.

• **TOADMTEK-4**

- Uste dut beharbeharrezkoa dela Euskaltzaindiak gai honi heltzea. Arau eta jarraibide zehatzik ez izateak nolabaiteko anabasa sortzen baitu.

• **TOADMTEK-5**

- 5. galderan planteatu dugunari jarraituz, azpimarratu nahi genuke beharbeharrezkoa dela araudi, gomendio edo ereduren bat izatea.

• **TOADMTEK-7**

- Batua / euskalkia funtzionalki aztertu.
- Lehentasunak: eskola eta haurren eta gazteen beharrak.
- Erregistro ez-formaletan sormenari (ez bakarrik tradizioari) leku handia eman.
- Arrakasta lortzeko, hizkuntzalarien eta normalizazio eragileen arteko elkarlana ezinbestekoa da.

3.2.2. *Emaitzak*

1. galdera

Oro har, erraten ahal da foru eta toki administrazioetako euskara teknikariak kezkatu daudela gai honekin. Euskararekiko atxikimendua eta motibazioa indartu nahiak ere kezka eragiten du. Hainbat herritarrek euskara batua ulertzeko dituzten arazoak ere aipagai dira horretako dina.

Hala ere, teknikariek garrantzitsutzat jotzen dute euskara batua, baina euskalkien ekarpen baliotsua bazterrean utzi gabe. Horiek oro baliagarri zaizkie euskal eremuan lanean ari diren teknikariei.

Erdal eremuko teknikariek azpimarratzen dute, bestalde, euskara batua bidez datorrela euskararen berreskuratzea eta hori ezin dela alde batera utzi. Euskara finkatu eta haren ezagutza areagotu beharra ere azpimarratzen dute.

2. galdera

Hizkuntza eremuaren arabeko erantzunak hartu ditugu:

- *Euskal eremuko teknikariek* euskalkiak gehiago erabiltzen dituzte, dela idatzian dela ahozkoan, betiere euskalkiaren eta euskara batuaren arteko hurbiltasun-urruntasun kontzeptuari erreparaturik. Hots: zenbatenez euskalkia urrunago euskara batutik, hainbatenez euskalkia erabiliago. Nolanahi ere, euskara estandarrean idatzitako testuak dira gehienak, tokian tokiko hitz eta esamolde zehatzak tartekatzen badira ere.
- *Erdal eremuko teknikariek*, oro har, euskara batua soilik erabiltzen dute. Eskolako haurrek ere euskara batua ikasten dute eskolan. Hala ere, uste da erdal eremuen inguruko euskalkien ekarpena baliatu behar dela eta hiztunen sormenari lekua utzi.

3. galdera

Teknikari gehienak, euskal eremukoak eta erdal eremukoak, esaldiaren esanahiaren kontra daude. Euskalkiak idatziz ere erabil daitezke, euskara batua ahoz ere erabil daitekeen bezala. Idaztean euskara batua erabiltzea ego-kiagoa dela uste dute, bereziki norberaren eremutik kanpora bidali behar den testua. Hala ere, euskalkiaren aberastasuna gorde eta euskara batuan txertatu beharrekoa dela iruditzen zaie. Orain arte euskara esparru formalean landu den bezala, euskalkiak esparru ez-formalerako ere baliagarriak izaten ahal dira.

4. galdera

Teknikariak, eskuarki, euskalkiaren ekarpenarekin aberastutako euskara batua erabiltzearen alde daude. Hala ere, garrantzitsutzat jotzen dute testu idatziak koherenteak izatea.

5. galdera

Ezbairik ez dago. Euskara batuaren arauak jarraitu behar dira, bai euskara batuan idazteko bai euskalkian idazteko. Euskararen ortografiak eta egiturak bat eta bera izan behar du, bai euskara baturako bai euskalkietarako.

Astakeriatzat jotzen dituzte anitzek ahoskatu bezala idazteko joerak. Afer muturretara joan ez dadin, arauak eta gomendioak eman beharko lirateke.

Euskalkia mailaka erabili behar omen da: esparru formaletan, euskara batua Nafarroako euskal hizkeren ezaugarriez hornitua; esparru ez hain formaletan, aldiz, euskalkia ere erabiltzen ahal da. Kontua da eredu egokiak ematea jendeari.

Teknikariren baten iritziz, euskalkien erabilera mugatu egin beharko litzateke herri aldizkarietara eta, gehienez ere, % 25 arte.

6. *galdera*

Ez da inolako erabakirik hartu. Hala ere, euskara batua «nafar erara» erabiltzeko joera argia da, nahiago baita ezagutzen diren euskalki eta hizkerari hurbildu eta haien ekarpenak baliatzea, ezen ez asmakerietan ibiltzea.

7. *galdera*

Euskalkiak lantzean arazoak sortu ohi dira ezinezkoa baita euskalki bakar bat Nafarroa osorako aukeratzea. Hala ere, tokian tokiko euskara mantentzeko eta sustatzeko jarduerak egin beharko lirateke. Euskaltzaindiak ere jarraibide zehatz eta egokiak eman beharko lituzke, maiz sortzen den nahasmendua saihesteko.

4. GALDETEGIA: HEZKUNTZA

Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza zerbitzuetan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan lanean ari diren irakasleengana jo zen iritzi eske. Hala-ber, Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuaren eta Nafarroako Ikastolen Elkartearen iritzia ere bildu zen.

Galdetegiari erantzun diotenen nortasuna babestu nahi izan da. Hori dela eta, ez da pertsona edo erakunde horien izenik agerian jarri, artikuluko honen eranskineko 6. puntuan galdetegiari erantzun diotenen zerrenda izenduna jarri bada ere (9). Horretarako, gakoak asmatu dira (6.4. puntua).

Galdetegiko erantzunak laburtu behar izan dira, halaberharrez.

4.1. Hizkuntza eskolak (HIESK)

4.1.1. *Iritziak*

- Erdal eremua
 - HIESK-1
 - HIESK-2

(9) Eranskineko 6.3.2. puntuko hurrenkerak ez du nahitaez bat egiten artikuluko honetako 4. puntuko iritziak eman dituztenenarekin.

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

• HIESK-1

- Ikastaroak: Euskalduntzea; EGA/HEko Goi Zikloa; hobetzeko eta akatsak zuzentzeko ikastaroak.
- Erantzuna: Bai.
- Arrazoia: Nahiz eta eskolan batua irakatsi, uste dugu garrantzitsua dela gutxienez Nafarroako hizkeren berri izatea eta euskara horien berezitasunera hurbiltzea.

• HIESK-2

- Ikastaroak: Euskalduntzea; EGA/HEko Goi Zikloa.
- Erantzuna: -
- Arrazoia: Kezka irakaslearen araberakoa da.

2. GALDERA: ERABAKIA

• HIESK-1

- Erantzuna: Ez.
- Erabakia: Formalki ez dugu erabakirik hartu.
- Azalpena: Hala ere, praktikan lehenengo mailatik hasita, Nafarroako hizkeren berezitasun batzuk irakasten ditugu.

• HIESK-2

- Erantzuna: Ez.
- Erabakia: -
- Azalpena: -

3. GALDERA: IRAKASLEEN ASKATASUNA

• HIESK-1

- Erantzuna: Bai.

- Azalpena: Erabakirik hartu ez dugunez gero, irakasle bakoitzaren baitan dago zer eta zenbat irakatsi.

- **HIESK-2**

- Erantzuna: Bai.
- Azalpena: Azterketetan saiatzen gara, ahal den neurrian, guretzat arrotza dena baztertzen eta geurea erabiltzen. Nolanahi ere, irakaslearen baitan dago.

4. GALDERA: EUSKALKIAK IKASKETA PROGRAMETAN

- **HIESK-1**

- Erantzuna: Bai.
- Azalpena: Ez sistematikoki, baina programazioan azaltzen dira eduki lexiko eta morfosintaktikoak.

- **HIESK-2**

- Erantzuna: Ez.
- Azalpena: Ez nuke jakinen nondik hasi ere.

5. GALDERA: BATUA ETA EUSKALKIAK NOLA ERABILI

- **HIESK-1**

- Idatzian, euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.
- Ahozkoan, euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.
- Euskalkien ekarpenak, zuzenak direnean, gure ustez euskara batua ere badira.

- **HIESK-2**

- Idatzian, batuan.
- Ahozkoan, euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.

- Irakaslearen aberastasuna aprobetxatu behar da, ulermen mailan besterik ez bada ere.

6. GALDERA: EUSKALKIEN TOKIA EGA AGIRIAN EDO GOI ZIKLOKO AGIRIAN

• HIESK-1

- Bai.
- Nongoak?: Nafarroakoak.
- Goi Zikloko azterketan:
 - Idatzian: euskalkien ekarpenarekin aberastutako batua. Azterketan bereziki eskatzen ditugu.
 - Ahozkoan aukera ematen dugu batuan edo euskalkian egiteko.

• HIESK-2

- Ez.

7. GALDERA: BESTERIK...

• HIESK-1

- Euskara Departamentuak erabaki du Nafarroako hizkeren gaiari buruz gogoeta egitea, irizpideak adostea eta zer eta zenbat irakatsi arautzea.

4.1.2. Emaitzak

1. galdera

Hizkuntza eskola bateko irakasleek batuaz irakasten dute, oro har. Hala ere, berebizikoa zaie Nafarroako euskal hizkeren berri ematea eta hizkera horien berezitasunera hurbiltzea. Bigarren hizkuntza eskolan, aldiz, kezka irakaslearen araberakoa da.

2. galdera

Erabakirik ez da hartu ezein hizkuntza eskolatan. Halarik ere, hizkuntza eskola batean Nafarroako euskal hizkeren berezitasun batzuk txertatzen dira euskarazko ikasketetan, lehen urratsetarik hasirik, gainera.

3. *galdera*

Irakasleek ez dute inolako oztoporik nahi duten hizkuntza eredia hautatzean. Erabakirik hartu ez denez, irakaslearen baitan dago euskalkia txertatzea edo ez txertatzea.

4. *galdera*

Hizkuntza eskola batean Nafarroako euskal hizkeren berezitasun batzuk ikasketara programetan sartu dira. Bigarrenean, ordea, ez da halakorik egin.

5. *galdera*

Ez dago bateratasunik bi hizkuntza eskolen artean. Ahozkoan, bietan, euskalkien ekarpenarekin aberastutako euskara batua erabiltzen da ikasketetan. Idatzian ez da berdin gertatzen: batean, euskara batu hutsean irakasten da eta, bestean, euskalkien ekarpenarekin aberastutako batuan.

6. *galdera*

Nafarroako euskalkiek tokia badute hizkuntza eskoletako batek antolatzen dituen Goi Zikloa egiteko azterketetan. Ahozkoan ere aukera bikoitza dute ikasleek: proba batuan edo euskalkian egitea.

7. *galdera*

Hizkuntza eskoletako batek gogoeta egitea erabaki du, irizpideak adosteko eta irakatsi beharrekoa (eta modua) arautzeko.

4.2. Euskaltegi publikoak (EUSPUB)

4.2.1. *Iritziak*

- Erdal eremua:
 - EUSPUB-1
 - EUSPUB-2

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

- **EUSPUB-1**
 - Ikastaroak: Euskalduntzea; EGA/HEko Goi Zikloa; hobetzeko eta akatsak zuzentzeko ikastaroak.

- Erantzuna: Bai.
 - Arrazoa: Oro har bai, baina askatasunez jokatzen dugu eta irakasle bakoitza bere sentsibilitatearen eta ezagutzaren arabera aritzen da.
- **EUSPUB-2**
 - Ikastaroak: Euskalduntzea, EGA/HEko Goi Zikloa; hobetzeko eta akatsak zuzentzeko ikastaroak.
 - Erantzuna: Bai.
 - Arrazoa: Kezka badugu, baina noizbait gaiari heldu badiogu ere, ez dugu horren inguruan ezer zehatzik erabaki. Garai batean Nafarroako formen zerrenda irakasleen eskuetan ibili genuen.

2. GALDERA: ERABAKIA

- **EUSPUB-1**
 - Erantzuna: Bai.
 - Erabakia: Euskalkien ekarpenarekin osatutako batua.
 - Azalpena: Erabaki genuen, zenbait kasutan eduki linguistikoak zehazterakoan, Nafarroan gehien erabiltzen diren formak hobestea, eta beste batzuen ezagutza bermatzea.
- **EUSPUB-2**
 - Erantzuna: -
 - Erabakia: Maila pertsonaleko erabakiak hartu ohi dira.
 - Azalpena: Euskaltegiak erakunde bezala ez du horrekin ezer zehaztu. Irakasle euskaldun zaharrak, oro har, batuaz aritzen dira.

3. GALDERA: IRAKASLEEN ASKATASUNA

- **EUSPUB-1**
 - Erantzuna: Bai.

- Azalpena: Irakasleen jatorria, euskaltegiaren kokapena, ikasmaterialea, Nafarroako hizkeren aniztasuna... Egin daitekeen bakarra da irakasleen interesa piztea.

- **EUSPUB-2**

- Erantzuna: Bai.
- Azalpena: -

4. GALDERA: EUSKALKIAK IKASKETA PROGRAMETAN

- **EUSPUB-1**

- Azalpena: Euskara teknikoko ikasketetan, administrazioko langileak herritarrei eskaini behar dion harreraz ari garenean bakarrik lantzen ditugu herri hizkerak. Bestela, ez dugu betarik.

- **EUSPUB-2**

- Erantzuna: Bai.
- Azalpena: Hirugarren mailaren bukaeran (10-12. urratsak) euskalkiak gainetik aztertzen ditugu. Baita *Euskara hegan* hobekuntza ikastaroan ere.

5. GALDERA: BATUA ETA EUSKALKIAK NOLA ERABILI

- **EUSPUB-1**

- Idatzian, batuan eta euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.
- Ahozkoan, batuan eta euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.
- Iruñean egonik, zein euskalki edo zein herritako hizkera erabili beharke genuke? Kutsu bat eman, bertako zenbait esakuneren ezagutza bermatu, oso arrotza zaiguna ez hobestu... zaila da askoz gehiago egitea.

- **EUSPUB-2**

- Idatzian, batuan eta euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.

- Ahozkoan, batuan eta euskalkiaren ekarpenarekin osatutako batuan.

6. GALDERA: EUSKALKIEN TOKIA EGA AGIRIAN EDO GOI ZIKLOKO AGIRIAN

- **EUSPUB-1**

- Ez.

- **EUSPUB-2**

- Bai.
- Nongoak?: Euskal Herri osokoak.

7. GALDERA: BESTERIK...

- **EUSPUB-1**

- Gai honetan, oraindik ere uste oker asko dago, eta ongi legoke nolabaiteko dekalogotxo bat edo izatea argi uzteko zer eta zertarako den euskara batua eta zer eta zertarako euskalkiak. Eta zerk duen zinezko garrantzia hizkuntza erabiltzerakoan, eta zerk ez.

4.2.2. Emaitzak

1. galdera

Bi euskaltegi horietan badute kezkarik esku artean dugun gai honetan. Dena dela, irakasleek askatasunez jokatzeko dute. Nafarroako euskal hizkeren formak ere kontuan hartzen dituzte.

2. galdera

Euskaltegi batek erabakia (euskalkien ekarpenarekin osatutako batua) hartu du; besteak ez du horrelakorik egin. Nolanahi ere, Nafarroan gehien erabiltzen diren formak hobetsi egiten dira eta beste batzuen ezagutza bermatu.

3. galdera

Euskaltegiek ez dute inolako erabakirik hartu.

4. *galdera*

Erantzunak bitarikoak dira. Euskaltegi batean euskalkiek ez dute tokirik ikasketa programetan eta, bigarrenean, azaletik lantzen dira.

5. *galdera*

Bi euskaltegietan euskara batua eta euskalkiak erabiltzen dira, ahozkoan zein idatzian. Kontua da Iruñean kokaturik daudela eta horrek behartzen duela euskara batua erabiltzera. Nolanahi ere, hainbat herri hizkeratako esakuneak erabiltzen saiatzen dira.

6. *galdera*

Euskaltegi batean Euskal Herri osoko euskalkien ezaugarriak irakasten dira EGA agiria edo Goi Ziklokoa erdiesteari begira.

7. *galdera*

Kezka agertu dute euskaltegi bateko irakasleek. Uste okerrak saihesteko edo, komeniko litzateke nonbait zehaztea euskara batua eta euskalkiak zer eta zertarako diren.

4.3. Euskaltegi pribatuak (EUSPRI)

4.3.1. *Iritziak*

- Euskal eremua:
 - EUSPRI-1 eta 2
- Erdal eremua:
 - EUSPRI-3, 4, 5, 6 eta 7

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

• EUSPRI-1

- **Ikastaroak:** Euskalduntzea.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Arrazoia:** Euskara taldearen bitartez «A eskualdeko» hizkera batez ere eta «B eskualdeko» ere «berpizten» saiatzen ari gara.

• **EUSPRI-2**

- **Ikastaroak:** Euskalduntzea; EGA/HEko Goi Zikloa.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Arrazoia:** Bertako jendeak euskalkia erabiltzen duelako. Euskalkia badugulako.

• **EUSPRI-3**

- **Ikastaroak:** Euskalduntzea; EGA/HEko Goi Zikloa; hobetzeko eta akatsak zuzentzeko ikastaroak.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Arrazoia:** Kezka izan badugu. Euskalkiaren gainean dagoen kezka areagotzen da euskalkia bizirik dirauen lurraldeetan, hots: Sakanan, Baztanen, etab.

• **EUSPRI-4**

- **Ikastaroak:** Euskalduntzea.
- **Erantzuna:** Ez.
- **Arrazoia:** Ingurunea erdaldun samarra denez gero euskara batua baino ez dute ezagutzen.

• **EUSPRI-5**

- **Ikastaroak:** Euskalduntzea; EGA/HEko Goi Zikloa; hobetzeko eta akatsak zuzentzeko ikastaroak.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Arrazoia:** Alde batetik, gure ustez inguru honetako zein beste eskualdeetako euskalkiak galtzen ari dira eta berreskuratzeko kezka dugu.

• **EUSPRI-6**

- **Ikastaroak:** Euskalduntzea.
- **Erantzuna:** -
- **Arrazoia:** -

- **EUSPRI-7**

- **Ikastaroak:** Euskalduntzea; EGA/HEko Goi Zikloa; hobetzeko eta akatsak zuzentzeko ikastaroak.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Arrazoia:** Ama hizkuntza euskara dutenekin harremanak beharko dituzte gure ikasleek beren ikasprozesuan lagungarri dutelako eta euskararen normalizaziorako ezinbestekoa delako; hortaz, euskal hiztun guziak batuaz eta euskalkiaz ari diren, kontuan hartu behar.

2. GALDERA: ERABAKIA

- **EUSPRI-1**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Batuaz hitz egiten dugun mementotik, hori da irakasten saiatzen garena. Dena den, irakasle batek iaz gure inguruko euskalkiko hiztegia irakatsi zuen aukera izan zuenean.

- **EUSPRI-2**

- **Erantzuna:** Bai / Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Mintzamenen euskalkian aritzen saiatzen gara. Idazmena, ordea, batuaz lantzen dugu.

- **EUSPRI-3**

- **Erantzuna:** Bai / Ez.
- **Erabakia:** Denetariokoak Nafarroako AEKn.
- **Azalpena:**
 - *Alde erdaldunagoetan* euskara batu hutsez irakasteko erabakia dago, zenbait euskaltegik duen irakasle plantillaren arabera euskalkien ekarpena eranstean zaion arren, baina euskara batua ardatz nagusia izanik. Beste irakasle batzuek, berriz, euskara batu hutsez ematen dituzte klaseak, toki bateko erreferentziarik ez dutelako edo duten erreferentzia Nafarroatik urruna delako.

- *Alde ez hain erdaldunduetan* euskara batu hutsez irakatsi arren, euskalkien ekarpena maizago sartzen da.
- *Alde euskaldunagoetan*, tokian tokiko hizkera dexente bultzatzen da, materiala, gehienetan, batuan bada ere.

• **EUSPRI-4**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Gure herrian ez dago hizkera berezirik, gaztelania ez bada.

• **EUSPRI-5**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Gure euskaltegian hainbat herrialdetako jendea dago; beraz, batua irakasten diegu ikasleei.

• **EUSPRI-7**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Orokorki, batuaz irakatsi; hots, batu osatuan.
- **Azalpena:** Zoritxarrez Iruñean ez dugu karrikan bertako euskalkirik entzuten, beraz batuari eman diogu lehentasuna, Nafarroako euskalkiak gehixeago zaintzen ditugu halere, batez ere guk gerok hobekien horiek ezagutzen ditugulako eta ikasleak nafarrekin gehiagotan ari direlako.

3. GALDERA: IRAKASLEEN ASKATASUNA

• **EUSPRI-1**

- Erantzuna: Bai.
- Azalpena: -

• **EUSPRI-2**

- Erantzuna: Bai.

- **Azalpena:** Nahiz eta programazio egokiturik ez izan, euskalkiko aldaerak ahoz erabiltzen ditugu arazorik gabe.
- **EUSPRI-3**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Bai, erabateko askatasunez jokatzeko dute, baldin eta lehenesten dituzten ereduak Nafarroakoak badira.
- **EUSPRI-4**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** -
- **EUSPRI-7**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Testuei dagokienean behe urratsetan aski zorrotz, irakasleek ordea beren herriko hizkera erabiltzen dute neurri batean. Nafarroan erabiltzen ditugun hitz, espresio eta abar sartzen ditugu maiz. Askatasuneko bidea.

4. GALDERA: EUSKALKIAK IKASKETA PROGRAMETAN

- **EUSPRI-1**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** Euskaltegiak duen material estandarren gainean egin dira programazioak.
- **EUSPRI-2**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** Programazioak, gure kasuan, Iruñean edo Gasteizen eginak direlako.
- **EUSPRI-3**
 - **Erantzuna:** Ez.

- **Azalpena:** Euskalki baten programarik ez dugu izan sekula Nafarroan. Euskalkia edo tokian tokiko hizkera gure klaseetan integratu denean, irakaslearen hizkeraren bidez edota materialaren bidez izan da. Programazio gehienetan materiala euskara batuaz prestaturik dago.

- **EUSPRI-4**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -

- **EUSPRI-5**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Gehienbat goi urratsetan erabiltzen ditugu.

- **EUSPRI-7**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** EGA edo ikastaro berezietan bai goi urratsetan ere, tar-teka, euskalkietan idatziak diren edo euskalki hau edo hura darabil-tenen entzungaiak jartzen edo ematen dizkiegu ikasleei.

5. GALDERA: BATUA ETA EUSKALKIAK NOLA ERABILI

- **EUSPRI-1**
 - *Idatzian*, batuan.
 - *Ahozkoan*, batuan.
 - Euskalkian ez gara aritu ezagutza faltagatik eta material faltagatik. Hala ere, ahal izan dugunean saiatu gara zerbait klaseratzen. Adibidez, hemengo hizkeran idatzitako pasadizoak, Azkuek bildurikoak, alegia.

- **EUSPRI-2**
 - *Idatzian*, batuan, gure euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.
 - *Ahozkoan*, gure euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan.

- Idatzian bertako aldaerak ere lantzen ditugu. Ahozkoan euskalkitik ahalik eta hurbilen aritzen gara.

- **EUSPRI-3**

- *Idatzian*, batuan, euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan eta euskalkian.
- *Ahozkoan*, batuan, euskalkien ekarpenarekin osatutako batuan eta euskalkian.
- Idatzizko testuei dagokienez, euskalkiak bi modutan klaseratzen dira: idatzizko testu errealak, eta euskara batuan eginiko idatzizko testuak, baina euskalkira ekarriak. Ahozko materialari dagokionez: ahozko testu errealak, euskara batuan eginiko elkarrizketak (aldatuak), bertako hiztunak eta irakaslearen mintzaira.
- Ahozko materiala eta ahozko jarduna dira gehienbat klasean lantzen direnak...

- **EUSPRI-4**

- *Idatzian*, batuan.
- *Ahozkoan*, batuan.

- **EUSPRI-5**

- *Idatzian*, batuan.
- *Ahozkoan*, batuan.
- Gehienbat goi urratsetan erabiltzen ditugu.

- **EUSPRI-7**

- *Idatzian*, batuan (euskalkien ekarpenarekin).
- *Ahozkoan*, batuan (euskalkien ekarpenarekin).
- Lehen esan bezala, tartekatzen ditugu bestelako testuak eta entzun-gaiak. Horretaz gainera, hiztegi eta esamoldeekin kezka pitta bat badugu eta lantzen ditugu. Bai, oso noizbehinka hitzaldia emateko baten bat ekartzen ere.

6. GALDERA: EUSKALKIEN TOKIA E.G.A. AGIRIAN EDO GOI ZIKLOKO AGIRIAN

- **EUSPRI-1**

- Bai.
- *Nongoak?*: Euskal Herri osokoak.

- **EUSPRI-2**

- Bai
- *Nongoak?*: Hego Euskal Herrikoak: toki ttikia.

- **EUSPRI-4**

- Bai.
- *Nongoak?*: Nafarroakoak.

- **EUSPRI-5**

- Ez.

- **EUSPRI-7**

- Bai.
- *Nongoak?*: Euskal Herri osokoak.

7. GALDERA: BESTERIK...

- **EUSPRI-1**

- Gure ustez aipatzekoa da bertako euskara taldearen egitasmoa; hau da, tokiko hizkerak «berpizteko» saiakerak egiten ari gara, lekukotasunak grabatzen, idatzia dagoena biltzen eta eskuragarriago egiten, guk geuk euskalki hauek ezagutuz...

- **EUSPRI-2**

- Gure dialektoa (ekialdekoa) lantzeko material (gutti edo) deus gutti argitaratzen da.

- **EUSPRI-3**

- Hausnarketa sakonak izan ditugu euskalkia dela eta ez dela.
- Gauza jakina da Nafarroan ez dagoela euskalki bakar bat, batzuk baizik. Nafarroako euskalki bat aukeratzeak besteak zokoratzea ekartzen du ezinbestean.
- Euskalki adina programa egiteak bikoiztu, hirukoiztu, laukoizten ditu indarrak eta baliabideak.

- **EUSPRI-4**

- Erdal eremuan gaudenez, gai hau (batez ere lehengo urratsetan) ez da gehiegi jorratzen. Nafarroako hiztegia, berezitasunen bat... askoz jota.

- **EUSPRI-5**

- Kezka handia dugu goi urratsetan zein euskalki irakatsi; hau da, gehien erabiltzen direnak erakutsi nahiko genituzke, baina hauek zeintzuk diren ez dakigu, hain zuzen ere.

- **EUSPRI-7**

- Euskalkiak nola eta zein sartu ez dugu sistematizaturik aurreko galderetan ikus litekeen bezala «zerbait» egiten dugu.

4.3.2. *Emaitzak*

1. *galdera*

Oro har, galdetegiari erantzun dioten euskaltegiek badute kezkarik euskara batuaren eta euskalkien gaiaren gainean. Hala ere, euskal eremuko eta erdal eremuko euskaltegiek ez dute kezka bera; kezka areagotzen da lehenetan. Iruñea ingurukoetan aski lan dute euskara batua irakastearekin.

2. *galdera*

Denetarik dugu. Eskuarki, idazmena batuaz egiten da. Euskalkia bizirik dagoen tokietan bertako hizkeraren ezaugarriak txertatzen saiatzen dira. Argi dago mailakatze prozesu bat badagoela: zenbatenaz euskaldunagoa eremua, hainbatenaz erabiliagoa tokiko hizkera.

3. galdera

Irakasleak aske dira euskara batua eta euskalkiak irakasterakoan. Hala ere, erran behar da Nafarroako formak euskara batuan txertatzeko joera badagoela.

4. galdera

Euskalkiak ikasketa programetatik kanpo daude, oro har. Ez da euskalkien programarik landu. Hori hala bada ere, euskaltegi batean euskalkian idatzitako testuak edo entzungaiak erabiltzen dituzte EGA titulua eskuratzeko materialetan, tarteka bada ere.

5. eta 6. galderak

Oro har, euskara batua irakasten da idatzian eta ahozkoan. Euskal eremuetan, euskalkien ekarpenarekin osatutako euskara batua erabiltzen da. Horretaz gainera, denetariko testuak erabiltzen dira: batuaz idatzitakoak, batutik euskalkira ekarritakoak, testua aldatuak... Errazagoa da, hala ere, euskalkia ahozko testuetan lantzea.

7. galdera

Berrikitan euskara galdu duten eremuetan saioak egiten ari dira tokiko hizkerak berreskuratzeko. Ezinezkoa da Nafarroan euskalki bakar bat aukeratu eta gainerakoak bazter uztea. Nafarroan gehien erabiltzen diren formak irakatsiko lirateke, baina nola egin eta zein diren ez dago batere argi.

4.4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak (NUPIR)

Hiru sailletako irakasleek erantzun zioten galdetegiari: Hizkuntza eta Literaturako saileko 3 irakaslek, Psikologia saileko irakasle batek eta Ekonomia saileko irakasle batek.

4.4.1. Iritziak

- Erdal eremua:
 - NUPIR-1, 2, 3, 4 eta 5

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

- **NUPIR-1**
 - **Erantzuna:** Ez.

- **Azalpena:** Ageriko kezkarik ez. Beste gauza bat da irakasgai zehatzen bat edo klase barnean eztabaida jakin bat («euskalkia vs. batua», hain zuzen ere) piztu nahi bada gai hori erabiltzea. Oro har ez dago halako eztabaidarik eta iruditzen zait kezkarik ere ez dagoela.
- **NUPIR-2**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** Euskararen inguruan bai, baina «euskara batua vs. euskalkiak» gaiaren inguruan ez dut uste halako kezka berezirik dagoenik.
- **NUPIR-3**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** Ez anitzik, hori da nire ustea behinik behin.
- **NUPIR-4**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** Nolabait esateko euskarazko irakaskuntzaren inguruko normalizazioari lehentasuna ematen zaiolako.
- **NUPIR-5**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -

2. GALDERA: ERABAKIA

- **NUPIR-1**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Erabakia:** -
 - **Azalpena:** NUPen erdaraz egiten da. Ez! Gure sailean (eta unitaterik eta organorik hurbilenaz eta txikienaz ari naiz; besteak [Fakultateko Batzordea, Gobernu Batzordea, Klaustroa, etab.] lekutan gelditzen dira!!!) nahiz euskaldun dexente izan (3tik bat), erdaraz egiten dira bilera guztiak. Euskarak toki sinbolikoa besterik ez du.

• **NUPIR-2**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Jakintzat ematen da batuan irakatsi behar dela. Hori denek barneratu dugu. Gainera irakasleetako anitz euskaldun berriak gara eta batuan egin behar nahitaez.

• **NUPIR-3**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Aktak itzultzeraz bidaltzen dira eta euskara hutsean ezer gutxi mintzatzen da.

• **NUPIR-4**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Saileko Euskara normalizatzeko batzordean Unibertsitateko Errektoretzak euskarari egiten dizkion erasoei aurre egiten nahiko izaten dugulako.

• **NUPIR-5**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** -

**3. GALDERA: EUSKARA BATUA IDAZTEKO,
EUSKALKIAK AHOZKORAKO. ADOS?**

• **NUPIR-1**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Nik uste baietz. Bizkaitarren bat edo beste badago (kasu nabarmen bezala) eta beren ukitua ematen diotela uste dut, batu antzekoa egiten dute hala ere. Egia esan honetaz ez gara sekula (serioski), mintzatu.

- **NUPIR-2**

- **Erantzuna:** -
- **Erabakia:** Arazorik ez baitago askatasunarena sobera dela uste dut. Gero, hori bai, bakoitzak ezagutzen duen hizkeraren kolorea ematen dio.

- **NUPIR-3**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** Tabernan eta lagunen arteko jokaera bestelakoa dela iruditzen zait.

- **NUPIR-4**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** Nahiko mugatuak.

- **NUPIR-5**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** Euskararen egoera normalizatuta ez dagoelako unibertitatean eta beste esparruetan. Beraz, euskararen erabilpena murriztazi egiten digute.

4. GALDERA: IKASLEEN KEZKA

- **NUPIR-1**

- **Erantzuna:** Pixka bat, gehiegirik ez.
- **Azalpena:** Maisutako ikasten ari dira eta herri euskaldunen batean tokatuz gero zer eta nola eginen duten galdetzen diote beren buruari. Baina nik uste garbi dutela gehienek (ikastoletatik heldu den jendea baita gehiengo) batuan egin behar dutela, edo gehienez ere moldatzez gero zertxobait moldatuko dutela herriko hizkerara.

- **NUPIR-2**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** Denek dena batuan egiten dute. Batuan ongi eginen balute bederen!

- **NUPIR-3**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Nik badut irakasgai bat «Nafarroako euskalkiak» deitzen dena; eta hor irakasgai honekiko kezka agertzen dira.

- **NUPIR-4**

- **Erantzuna:** Bai/Ez.
- **Azalpena:** Gehien bat euskara teknikoaren gainean badute kezkarik nik ematen ditudan irakasgaiak beraiantzat berriak direlako. Ene us-tez, herri euskaldunetatik etortzen diren ikasleentzat aukera gutxi daude beren euskaran edo beren euskalkian egiteko.

- **NUPIR-5**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** -

5. GALDERA: ZEIN ERREGISTROTAN IRAKATSI

- **NUPIR-1**

- **Erantzuna:** Batuan.
- **Azalpena:** Egoera formaletan hizkuntza formala, non eta lehen esan bezala, gai jakin bat jorratzen ez den.

- **NUPIR-2**

- **Erantzuna:** Batuan.
- **Azalpena:** Aurreko erantzunetan dago honi dagokiona.

- **NUPIR-3**

- **Erantzuna:** Batuan.
- **Azalpena:** Gehienetan batuan, nahiz euskalkiaren nolakotasunak ere zenbaitetan agertzen diren.

- **NUPIR-4**

- **Erantzuna:** Batuan.

- **Azalpena:** Arrazoi ezberdinengatik euskara batua ikasi nuelako eta nik irakasten ditudan irakasgaien dokumentuak euskara batuan dardelako.

- **NUPIR-5**

- **Erantzuna:** Batuan.
- **Azalpena:** -

6. GALDERA: EUSKALKIEN ETA BATUAREN TOKIA

- **NUPIR-1**

- *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.

- **NUPIR-2**

- *Batuan*, idatzian, «Nafarroako euskalkiak» irakasgaietan.
- *Euskalkian*, ahozkoan, «Nafarroako euskalkiak» irakasgaietan.

- **NUPIR-4**

- *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.

7. GALDERA: BESTERIK...

- **NUPIR-1**

- Zenbait irakasgaitan erabil daiteke eztabaida moduan: batua/euskalkia. Baina, oro har, ez zait iruditzen hori denik kezka nagusia; soziologia, ekonomia, ingeniari, kimika, etab. ikasteko, eztabaida honek ez du lekurik. Baina NUPen hori ere ez da egin, gero eta eskasagoa da eta, gero eta gutxiago ematen da eta. Azkenean (ia) dena kenduko dute, eta orduan ezta batuan ere ez da emanen.

- **NUPIR-2**

- Bai. Hemen borroka ez dagoela inola ere batuan eta euskalkiaren artean, erdararen eta euskararen artean baizik.

4.4.2. *Emaitzak*

1. *galdera*

Ez dago euskalkien gainean inolako kezkarik NUPeko irakasleen artean. Hala ere, bada kezkarik eta, gainera, handia euskararen inguruan. Euskarazko irakaskuntzaren inguruko normalizazioak lehenetsua du gainerako gaien artean alderatuz gero.

2. *galdera*

Ez da inolako erabakirik hartu, euskarak toki sinbolikoa baitu hainbat irakaslerendako. Jakintzat ematen da euskara batua erabili behar dela lanean.

3. *galdera*

Oro har, ez daude ados esaldiaren mamiarekin. Irakasle baten aburuz, euskara ez dago normalizatuta unibertsitatean eta erabilera murrizturik du.

4. *galdera*

Ikasleen kezkez galdeturik, irakasleen erantzunak askotarikoak izan dira. Karrera ateratzen dutenek garbi samar izaten dute euskara batuaz emanen ditzutela klaseak (eta, gehienez ere, zein herri/eskualdetara joan, hango hizkeraren ukitua eman beharko diotela).

Irakasle baten aburuz, herri euskaldunetako ikasleek aukera gutxi dute beren euskalkian egiteko.

5. *galdera*

Ezbairik ez dago. Irakasle guztiek uste dute euskara batuaz irakatsi behar dela unibertsitatean.

6. *galdera*

Denetarik dago. Gehien-gehienek euskara batua erabiltzen dute, bai idatzian bai ahozkoan. Euskalkian ahozkoan erabili ohi dira «Nafarroako euskalkiak» irakasgaietan.

7. *galdera*

Irakasle baten ustez, «euskara batua/euskalkiak» gaia erabili izan da eztabaida modura, baina kezka nagusia ez da hori. Borroka gaztelaniaren eta euskararen artekoa da (hala dio beste irakasle batek).

4.5. Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzua

1. galdera: Hezkuntza Departamentuan, oro har, bada kezkarik euskara batuaren eta euskalkien gaiaren gainean?

– Bai.

2. galdera: Hezkuntza Departamentuak kezkarik izan badu euskara batuaren eta euskalkien gaien, nola jokatu du Euskara Zerbitzuak afera honetan?

- Gaiaren planteamendu orokorra egin du: Ez.
- Euskalkien inguruko ikasmateriala argitaratu du: Bai.
- Gaiaren ildo nagusiak hezkuntza arloetako curriculumetan sartu ditu: Bai.
- Gaiaren irizpide orokorrak ezarri ditu: Ez.
- Irakasleei nafar euskalkien gaineko ikastaroak eskaini dizkie: Bai.

3. galdera: Goian aipatu erabakiren bat hartu bada, nola hartu dute irakasleek?

– Ongi.

4. galdera: Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen euskarazko probetan (EGA, irakasleen E.G.A...) edo irakasleen birziklapenari dagozkion programetan, kontuan izan dira Nafarroako euskalkiak edo tokian tokiko hizkerak?

– Bai. Zenbait E.G.A. probatan.

4.6. Nafarroako Ikastolen Elkarteak

1. galdera: Nafarroako Ikastolen Elkarteak, oro har, bada kezkarik euskara batuaren eta euskalkien gaiaren gainean?

Elkarteko batzuek badugu kezka, baina bertze batzuek batere ez. Pedagogia mailan elkarte gisa ez dut uste sekula planteatu denik modu orokorrean.

2. galdera: Kezkarik izan baduzue euskara batuaren eta euskalkien gaien, nola jokatu du Elkarteak afera honetan?

- Gaiaren planteamendu orokorra egin du: Ez.
- Euskalkien inguruko ikasmateriala argitaratu du: Ez.
- Gaiaren ildo nagusiak hezkuntza arloetako curriculumetan sartu ditu: Ez.

- Gaiaren irizpide orokorrak ezarri ditu: Ez.
- Irakasleei nafar euskalkien gaineko ikastaroak eskaini dizkie: Ez.
- Besterik: Ikastola batzuetan ari dira.

3. galdera: Goian aipatu erabakiren bat hartu bada, nola hartu dute irakasleek?

– Ikastolek berek erantzun behar lukete.

4. galdera: Euskalkiak edo herri hizkerak mintzatzan diren eskualdeetan (Sakana, Bortzerriak, Baztan...) dauden ikastolei aholkurik eman diezue, esate baterako, irakasleak kontratatzean tokiko hizkera jakitea nahitaezkoa edo komenigarria dela?

- Ez.
- Ez da gaia modu orokorrean planteatu.

5. galdera: Zein erregistrotan irakasten duzue?

– Kasu gehien-gehienetan batuaz.

6. galdera: Besterik...

Nafarroako ikastolek gainditu gabeko ikasgaia da hau, oro har eta salbuespenak salbuespen. Iruñerriko ikastolek haur euskaldunen kasua nola landu behar duten edo planteamendu berezirik behar ote duen ere ez dute argi.

4.7. Ikastetxe publikoak (IKPUB)

4.7.1. Iritziak

Nafarroako ikastetxe publikoak hainbat eskualdetan antolatu dira. Eskualde horiek «euskal eremuan» eta «erdal eremuan» daude (6.2. puntua).

- Euskal eremua:
 - Eskualdea-1: IKPUB-1, 2 eta 3
 - Eskualdea-2: IKPUB-4, 5 eta 6
 - Eskualdea-3: IKPUB-7, 8, 9 eta 10
 - Eskualdea-4: IKPUB-11, 12 eta 13
 - Eskualdea-5: IKPUB-14 eta 15
 - Eskualdea-6: IKPUB-16 eta 17

- Erdal eremua:
 - Eskualdea-7: IKPUB-19 eta 20
 - Eskualdea-8: IKPUB-21

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

- **IKPUB-1**
 - **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Euskal eremuan lanean ari garenez, gure ikasleak eskolarara bertako euskalkia erabiliz datozkigu eta gure ustez errespetua eta bultzada merezi du.
- **IKPUB-2**
 - **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -
- **IKPUB-3**
 - **Ikasketak:** A eta D ereduak. DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Gaur egun batua gailentzen ari den honetan, gure inguruko euskalkien erabilera bermatzea inportantea iruditzen zaigu.
- **IKPUB-4**
 - **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** Aho hizkuntzan hemengo euskara erabiltzen dugu. Hizkuntza idatzian arauak jarraitzen ditugu eta ezagutzen ez ditugun hitzak edota estrukturak egokitzen ditugu.

• **IKPUB-5**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Inguru hauetan euskalki eta hizkera propioen aberastasuna nabaria da. Dena den, biztanleak bezala hizkuntza ezaugarri hauek ere desagertzeko bidean dira.

• **IKPUB-6**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Elkar entenditzeko euskara batua beharrezkoa iruditzen zaigu, baina euskalkiak mantendu behar ditugu herrikoak ditugulako.

• **IKPUB-7**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** -
- **Azalpena:** Klaustroan anitzetan atera den gaia da.

• **IKPUB-8**

- **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBHko 1. zikloa.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Batetik bestera dabiltzan irakasleek bertako euskalkia ezagutzeko eta erabiltzeko arazoak izaten dituztelako.

• **IKPUB-9**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-10**

- **Ikasketak:** B eta D ereduak. Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.
- **Erantzuna:** Bai.

- **Azalpena:** Gure ikasleekin bertako euskalkiari zein trataera eman ez dakigu.
- **IKPUB-11**
 - **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBHko 1. zikloa.
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Bai, kontuan harturik gure ikastetxean irakasle gehienok beste herrietakoak garela, bertako euskalkia geletan landu behar ala ez, maiz egiten ditugun galderak dira.
- **IKPUB-12**
 - **Ikasketak:** D eredua. DBH eta DOBH.
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Zein euskalkitan sartu behar da tokiko euskara? Erdialdeko euskaran? Goi-nafarreran? Gaur egun ezaugarri faltsuak erabiltzen dira: *erran*, bertze, etab.
- **IKPUB-13**
 - **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -
- **IKPUB-14**
 - **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBHko 1. zikloa.
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Hemengo euskalkia galduta dagoelako edo, hobeto esanda, euskara batua eta euskalkia antzekoak direlako.
- **IKPUB-15**
 - **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBHko 1. zikloa.
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -

• **IKPUB-16**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-17**

- **Ikasketak:** D eredua. HH.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Bertako umeak (guztiak), bertako euskalkian mintzaten dira, eta herriko gazte asko batuaz mintzatzeko gai ez direla ikusita, euskara batuan indarra jartzen da, betiere beraien euskalkia baztertu gabe.

• **IKPUB-18**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Euskalkiak laguntzen du euskara bizia izan dadin.

• **IKPUB-19**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** ?
- **Azalpena:** Erdara nagusi den eremu honetan, gure kezka nagusiak beste batzuk dira: euskaraz mintzaraztea, harreman positiboak sortu hizkuntzaren inguruan...

• **IKPUB-20**

- **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.
- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-21**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** Mementoz, euskara batua bakarrik lantzen dugu ikasleekin.

2. GALDERA: ERABAKIA

• IKPUB-1

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Batua eta euskalkia ez dira elkarren kontrakoak osagarriak baizik. Batua beharrezkoa da, erabiltzen dugun material idatzi gehiena batuaz heldu da. Ikasleen produkzio idatzian euskalkia errespetatzen da. Hala ere, batzuetan zalantzak ere baditugu.

• IKPUB-2

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

• IKPUB-3

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Koordinazio Pedagogikoaren Batzordean hartutakoa: ahozkoan bertako euskalkiak bultzatzea eta idatzian egungo arauak errespetaraztea (bai batuan, bai euskalkietan).

• IKPUB-4

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Euskaltzaindiak ematen dituen arauak betetzen saiatzen garelako eta bertzea bururatu ere ez zaigulako.

• IKPUB-5

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Hala ere, zertxobait hitz egin izan da, baina eskola txikia da oso (5 ikasle) eta aukerak ere murrizak dira.

• IKPUB-6

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

- **Azalpena:** Nork bere hizkera erabil dezala.
- **IKPUB-7**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Erabakia:** Euskara batu osoan egitea.
 - **Azalpena:** Gure irakasleak Euskal Herri osotik heldu dira. Bakoitzak bere hizkera erabiltzen ahal du, betiere batuaren arauetara egokitua.
- **IKPUB-8**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Erabakia:** Hitz egitean bertako euskalkia erabiltzea.
 - **Azalpena:** Klaustroak hartu zuen erabaki hau, bertako euskalkia mantendu ahal izateko. Hau aitzinera eramateko zailtasunak daude hiztegi baten beharra daukagulako.
- **IKPUB-9**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Erabakia:** -
 - **Azalpena:** Bertako euskalkia erabiltzen da.
- **IKPUB-10**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Erabakia:** -
 - **Azalpena:** Ez da eskola mailan planteatu.
- **IKPUB-11**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Erabakia:** Ikaslearen hizkuntza abiapuntutzat harturik euskara maila hobetu eta sendotu.
 - **Azalpena:** HHko mailetan eta LHko mailetan (aho-adierazpenean, behintzat) bertako euskalkia erabiltzen ahalegintzen gara. Idatziaren adierazpenari dagokionez, euskara batua irakasten da.

• IKPUB-12

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Materiala eta jardun orokorra euskara batuaz.
- **Azalpena:** Irakasle guztiak ez dira gai bertako euskara menderatzeko. Leku askotakoak dira. Beraz, denek batuaz egitea bidezkoena.

• IKPUB-13

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** -

• IKPUB-14

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** -

• IKPUB-15

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Ez dago arazorik euskalkian hitz egiteko; hala ere, oro har, batuaz hitz egiten da.

• IKPUB-16

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Batuan egitea.
- **Azalpena:** Batua irakatsi tokiko hizkera onartuz.

• IKPUB-17

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Unearen arabera, euskara batua edo bertako hizkeran mintzatzen gara edo irakasten dugu.

- **IKPUB-18**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -
- **Azalpena:** Herrian erabat gaztelaniaz; beraz, euskalkirik ez dago.

- **IKPUB-19**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** Suposatuzat jotzen dugu euskara batua erabiltzen dugula.

- **IKPUB-20**

- **Erantzuna:** -
- **Erabakia:** Euskara batuaz irakastea. Haur gehienak ikastolara etortzen direnean gaztelaniaz soilik mintzatzen dira.

- **IKPUB-21**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

3. GALDERA: IRAKASLEEN ASKATASUNA

- **IKPUB-1**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Batzuk tokikoak dira eta bertzeak berriz bertze eskualde batzuetakoak. Hala ere, tokiko mintzairarekiko errespetua eta egokitzapen ahalegina nabaria da.

- **IKPUB-2**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** -

- **IKPUB-3**

- **Erantzuna:** Bai.

- **Erabakia:** Aurreko puntuan jarritakoa kontuan hartuz.
- **IKPUB-4**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Beren hizkera erabiltzen dute askatasun guztiarekin.
- **IKPUB-5**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -
- **IKPUB-6**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Hizkuntzaren aberastasunagatik.
- **IKPUB-7**
 - **Erantzuna:** -
 - **Azalpena:** Erran dudan bezala, irakasle bakoitzak bere euskalkia erabiliko du. Hau aberasgarria iruditzen zaigu. Hala ere, hemengo euskalkia erabiltzen ahalegintzeko joera dago, batez ere hemengo irakasleak edota urte asko hemen eman dutenak. Idazterakoan beti batu osatuan.
- **IKPUB-8**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Ikastetxe batetik bestera dabiltzan irakasleak hemengo euskalkiaren hiztegia ezagutzen ez duten heinean erabiltzen hasten dira.
- **IKPUB-9**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Irakasleak kanpokoak badira ere beren euskara gurera moldatzen baitute.
- **IKPUB-10**
 - **Erantzuna:** Bai.

- **Azalpena:** Erabakirik ez dagoenez, bakoitzak bere kasa jokatzeko gai honetan.

- **IKPUB-11**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Aurreko guztia irakasleak bere ahalmenen arabera erabaten du aurrera.

- **IKPUB-12**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** Jendea derrigortua dago euskara batua irakaskuntzan erabiltzera. Hizkuntza kolokialean nork berea erabil dezake.

- **IKPUB-13**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** -

- **IKPUB-14**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** -

- **IKPUB-15**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** -

- **IKPUB-16**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** -

- **IKPUB-17**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Irakasleek haurren beharrak ikusita, bata, bestea edo biak erabiltzearen erabakia askatasun osoz hartzen dute.

- **IKPUB-18**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Dena den, euskaldunik ez izatean herrian arras zaila da.
- **IKPUB-19**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Erabakia:** Askatasunez bai, baina aldaera, erramolde edota azentua kenduta, batua erabiltzen dugu.
- **IKPUB-20**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Erabakia:** -
- **IKPUB-21**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Erabakia:** Bakarrik euskara batua ezagutzen dute.

4. GALDERA: EUSKALKIAK IKASKETA PROGRAMETAN

- **IKPUB-1**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Erabakia:** -
- **IKPUB-2**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Erabakia:** -
- **IKPUB-3**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Erabakia:** Batuan eta euskalkietan, bietan. Irakasleek ezagutzen dituzten euskalkien arabera, betiere.

• **IKPUB-4**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** Ez dugu arazo handirik gai horrekin.

• **IKPUB-5**

- **Erantzuna:** Ez dakit.
- **Azalpena:** Bertako euskalkian deus prestaturik ez dagoelako. Eta Euskara Departamentuak (oraingoz) ez digu prestakuntza on bat eskaini (nahiz eta guk eskatu).

• **IKPUB-6**

- **Erantzuna:** -
- **Azalpena:** Unitate bakarreko eskola gara eta ez daukagu programarik. Bagenu, hizkerak landuko genituzke.

• **IKPUB-7**

- **Erantzuna:** -
- **Azalpena:** Euskalkiak aipatzen dira, baina ez dira ikasten. Hemen-goak soilik.

• **IKPUB-8**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** Ez dago inolako arretarik, eta euskararekiko errespetua berriz guttiago (Hezkuntza Administrazioak idazkiak gaztelania hutsean bidaltzen dituelako).

• **IKPUB-9**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-10**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Azalpena:** Programetan agertzen dira, baina ez DBHn, ez Batxilergoan ez ditugu oinarritzko edukietan sailkaturik. Beraz, gutxi lantzen dira.

- **IKPUB-11**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-12**
 - **Erantzuna:** -
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-13**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** Curriculumean eta programetan ezarri gabe egon arren, lantzen dira.

- **IKPUB-14**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-15**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-17**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Azalpena:** Curriculuma egin gabe dago, baina bertako hizkera lantzearen afera kontuan hartuko da batuarekin batera, biek baitute (batuak/euskalkiak) beren garrantzia.

- **IKPUB-18**
 - **Erantzuna:** Ez.
 - **Azalpena:**-

- **IKPUB-19**
 - **Erantzuna:** ?

- **Erabakia:** Gure aukeran dagoen edukia izan daiteke. Testuinguru ez-formaletan lantzen duguna, bereziki, egonaldien bitartez.

- **IKPUB-20**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

- **IKPUB-21**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

5. GALDERA: ZEIN ERREGISTROTAN IRAKATSI

- **IKPUB-1**

- **Erantzuna:** Batuan eta euskalkietan, bietan.
- **Erabakia:** Euskalkiarekiko moldaketa irakaslearen ezagutzaren araberakoa da.

- **IKPUB-2**

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

- **IKPUB-3**

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Batxilergoko 1.ean zehazki agertzen da *curriculum* ofizialean. Institutuan gainerako mailetan ere lantzen da.

- **IKPUB-4**

- **Erantzuna:** Batuan eta euskalkian, bietan.

- **IKPUB-5**

- **Erantzuna:** Batuan eta euskalkian, bietan.

- **IKPUB-6**
 - **Erantzuna:** Euskalkian.

- **IKPUB-7**
 - **Erantzuna:** Batuan eta euskalkian, bietan.
 - **Azalpena:** Ahozko mailan euskalkia bultzatu behar dugula uste dugu. Idazterakoan beti Euskaltzaindiaren Arauak erakusten dira.

- **IKPUB-8**
 - **Erantzuna:** Batuan, idatzia eta, ahozkoan, bertako euskalkian.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-9**
 - **Erantzuna:** Euskalkian.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-10**
 - **Erantzuna:** Batuan DBHn eta DOBHn.
 - **Azalpena:** Hainbat euskalkitako hiztunak ditugu irakasleak, alde batetik eta, bestetik, testu liburuak ere euskara batuan ditugu.

- **IKPUB-11**
 - **Erantzuna:** Batuan, idatzian, LHn; idatzian eta ahozkoan, DBHn. Euskalkian, HHn.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-13**
 - **Erantzuna:** Euskalkian, HHn eta LHn.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-14**
 - **Erantzuna:** Batuan, HHn, LHn eta DBHn.
 - **Azalpena:** -

- **IKPUB-15**

- **Erantzuna:** Batuan, HHn, LHn eta DBHn.

- **Azalpena:** -

- **IKPUB-16**

- **Erantzuna:** Batuan, HHn eta LHn.

- **Azalpena:** -

- **IKPUB-17**

- **Erantzuna:** Batuan eta euskalkian.

- **Azalpena:** Bai batuak eta bai euskalkiak garrantzia du, bakoitzak esparru desberdinetan: beraz, esparru horietan egoki mugitzeko, beharrezkoa da biak lantzea.

- **IKPUB-18**

- **Erantzuna:** Batuan, HHn eta LHn.

- **Azalpena:** -

- **IKPUB-19**

- **Erantzuna:** Batuan.

- **Erabakia:** -

- **IKPUB-20**

- **Erantzuna:** Batuan.

- **Erabakia:** -

- **IKPUB-21**

- **Erantzuna:** Batuan, HHn, LHn eta DBHn.

- **Erabakia:** Ikasturte honetan sartu da D eredia LHko 4. mailan. 5. mailatik gora A eredian ikasten dute batzuek eta beste batzuek, aldiz, G eredian.

6. GALDERA: EUSKALKIEN ETA BATUAREN TOKIA

- **IKPUB-1**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian, irakasgai guztietan. *Batuan eta euskalkian*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.
- **IKPUB-2**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan. *Euskalkian*, ahozkoan.
- **IKPUB-3**
 - **Erantzuna:** *Batuan eta euskalkian*, bietan idatzian eta ahozkoan, irakaslearen arabera.
- **IKPUB-4**
 - **Erantzuna:** *Batuan eta euskalkian*, bietan, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.
- **IKPUB-5**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian. *Euskalkian*, ahozkoan.
- **IKPUB-6**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian irakasgai guztietan. *Euskalkian*, ahozkoan, irakasgai guztietan.
- **IKPUB-7**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian. *Euskalkian*, ahozkoan.
 - **Azalpena:** -
- **IKPUB-8**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian, irakasgai guztietan. *Euskalkian*, ahozkoan, irakasgai guztietan.
 - **Azalpena:**
- **IKPUB-9**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian. *Euskalkian*, ahozkoan.
 - **Azalpena:** -

• **IKPUB-10**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian, oro har. *Batuan eta euskalkian*, ahozkoan, oro har.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-11**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian, LHko 2. eta 3. zikloko irakasgai guztietan, Plastikan eta Gorputz Hezkuntzan izan ezik. Ahozkoan, DBHn.
- **Azalpena:**

• **IKPUB-13**

- **Erantzuna:** *Euskalkian*, ahozkoan, irakasgai guztietan. *Batuan eta euskalkian*, idatzian.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-14**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-15**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-16**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan.
- **Azalpena:** -

• **IKPUB-17**

- **Erantzuna:** *Batuan eta euskalkian*: ahozkoan, irakasgai guztietan.
- **Azalpena:**

• **IKPUB-18**

- **Erantzuna:** *Batuan*. Ahozkoan gutxi.
- **Azalpena:** -

- **IKPUB-19**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan. *Euskalkian*, ahozkoan, egonaldietan soilik.
- **IKPUB-20**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.
- **IKPUB-21**
 - **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.

7. GALDERA: BESTERIK...

- **IKPUB-1**
 - **Erantzuna:** Euskalkiaren erabilpenean zalantzak ditugunean ez dakigu norengana jo. Gure artean moldatzen gara. Argibideak eskertuko genituzke.
- **IKPUB-3**
 - **Erantzuna:** Gure ikastetxeko errealitatea honelako inkesta batean biltzea zaila da; batez ere, egoera urtetik urtera aldatzen delako.
- **IKPUB-4**
 - **Erantzuna:** Solasterakoan saiatzen gara hemengo euskara erabiltzen. Arazo gehiago izaten ditugu testu liburuetan agertzen diren zenbait hitzekin. Orduan hemen erabiltzen ez direnak egokitzen ditugu.
- **IKPUB-8**
 - **Erantzuna:** Ikerketa honen emaitzaren berri jakin nahiko genuke.
 - **Azalpena:**
- **IKPUB-10**
 - **Erantzuna:** -
 - **Azalpena:** Hainbat herritako euskalki edo aldaerak indartu behar direla uste dugu. Hori dela eta, irakasleen formazio planetan eskaini daiteke lekuan lekuko euskalkian trebatzeko ikastaroa eta berau

ikasleekin erabili eta landu ahal izateko. Bestalde, eskertuko genizuke zuen aldetik gai honen barruan irizpideak sortzea irakaskuntzan hauek kontuan hartzeko. Honekin loturik ere, bertako euskalkiaren erabilera idazkeran ere islatzeko gomendioak eta irizpideak beharko genituzke.

- **IKPUB-19**

- Erantzuna: Sarritan mintzatu gara «Iruñerriko euskalkiaz». Gure errealitatea ezagutuz aski garbi dugu batuaz aritzea egokiena iruditzen zaigula (arloak lantzerakoan) eta, hori bai, gainerako euskal hizkerak ere gelaratz.

4.7.2. *Emaitzak*

1. galdera

Erantzunak begiratu ondoren, erratan ahal da ikastetxe guztiek ez dutela kezka bera.

- *Euskal eremuko ikastetxeei dagokienez*, euskara batuaren eta euskalkien gaiarekin kezkatuta daude irakasleak. Etxeko euskara ahoan heldu diren ikasleak ezin dira bazterrean utzi, eta etxeko hizkuntza hori eta euskara batua edo estandarra txertatzen ahalegindu behar da. Hainbat ikastetxetan lan idatzietan euskara batua egokitzen dute ahozko hizkuntzara. Hala ere, ez dute euskara batua baztertzeko, bi erregistroak behar-beharrezkoak baitira. Euskalkiak eskolako lanetan txertatzeko arazo handiak daude, bereziki ikastetxe batetik bestera dabiltzan irakasleek ez dituztelako tokian tokiko hizkerak ezagutzen. Ondoko esaldi hauek ederki islatzen dute egoera:
 - Euskara batua eta euskalkiak: biak beharrezkoak dira.
 - Euskal eremuko ikasleek tokiko mintzoan hitz egiten dutenez gero, errespetua zor diegu.
 - Euskalkien erabilera bermatu behar da.
 - Euskara batua beharrezkoa da elkar ulertzeko, baita euskalkiak ere, tokikoak direlako.
- *Erdal eremuko ikastetxeei dagokienez*, kezkak bestelakoak dira. Euskara batua soilik irakasten da. Ahalegina egin behar da ikasleak elkarren artean euskaraz ari daitezen eta hizkuntzarekiko harreman positiboak sor daitezen, besteak beste.

2. *galdera*

Erabakirik hartu ez duten ikastetxeak gehiago dira erabaki finko bat hartu dutenak baino. Erabakia hartu dutenak ere mota bat baino gehiagokoak dira. Honako baieztapen hauek interesgarriak dira:

- Euskara batua eta euskalkiak elkarren osagarriak dira.
- Euskara idatzian (batuan eta euskalkietan) arauak errespetatu eta ahozko euskaran bertako euskalkiak bultzatzea.
- Euskara batu osoan egitea.
- Hitz egitean bertako euskalkia erabiltzea.
- Euskara maila hobetu eta sendotzea.
- Euskara batua irakatsi eta bertako hizkera onartzea.

Ikastetxe gehienek EZ erantzun dute. Arrazoiak ere bat baino gehiago dira:

- Nork bere hizkera erabiltzea.
- Ez da eskolan planteatu.
- Eskola txikia delako.
- Tokiko euskalkia erabiltzen delako.
- Euskara batuaz irakatsi behar dugu, haurrak gaztelaniadun hutsak direlako.

Nolanahi ere, erraten ahal da erabakirik ez hartu izanak ez duela erran nahi gaia alde batera utzi dutela ikastetxeek.

3. *galdera*

Irakasleek, oro har, askatasunez jokatzeko dute gai honetan, euskal eremukoek batez ere. Ez dute arazorik nork bere hizkera erabiltzeko eskolan. Aberasgarriztat jotzen dute, gainera. Eskuarki, kanpotik heldu diren irakasleekin arazo handirik ez dago: beren euskara tokikora moldatzeko ahalegina egiten dute.

Erdal eremukoek, aldiz, aukera bakarra dute: euskara batuaz irakastea. Hala ere, saiatzen dira aldaerak, esamoldeak eta antzekoak euskalkian irakasten.

4. *galdera*

Euskalkiak ez daude sistematikoki txertaturik ikasketa programetan, ez gehienetan behintzat.

Euskal eremuko ikastetxeak kexu agertu dira tokian tokiko euskalkian egindako material gutxi dagoelako eta euskalkiak aipatzen badira ere, irakasten ez direlako. Hala egin nahi izanez gero, ezinezkoa izanen litzateke. Hala ere, nork edo nork adierazi du euskalkian irakasten duela programetan ezarrita ez badago ere.

5. eta 6. galderak

Erantzunei erreparatuz gero, aukera hauek ditugu:

- Euskara batua, idatzian eta ahozkoan.
- Euskara batua, idatzian; euskara batua eta euskalkia, ahozkoan.
- Euskara batua, idatzian; euskalkia, ahozkoan.
- Euskara batua (eta euskalkia), idatzian; euskalkia (eta batua), ahozkoan.
- Euskara batua (eta euskalkia), idatzian; euskalkia, ahozkoan.

7. galdera

Aski azalpen interesgarriak egin dituzte irakasleek. Hona hemen horietako batzuk, laburturik:

- Zalantzak daude euskalkiak irakaskuntzak nola erabili behar diren jakiteko: argibideak nahi dituzte, behar dituzte.
- Ahozkoan tokian tokikoa erabiltzeko asmoa. Zailagoa ikasliburuetan hitzak tokian tokiko euskara egokitzea.
- Irakasleen prestakuntza planean tokia behar dute euskalkiek.

4.8. Ikastolak (IKAST)

4.8.1. Iritziak

Nafarroako ikastolak hainbat eskualdetan antolatu dira. Eskualde horiek «euskal eremuan» eta «erdal eremuan» daude (6.2. puntua).

- Euskal eremua:
 - Eskualdea-1: IKAST-1
 - Eskualdea-3: IKAST-2
- Erdal eremua:
 - Eskualdea-7: IKAST-3 eta 4
 - Eskualdea-9: IKAST-5

1. GALDERA: EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN GAINEKO KEZKA

• IKAST-1

➤ **Ikasketak:** D eredua. HH eta LH.

➤ **Erantzuna:** Ez.

➤ **Azalpena:** -

• IKAST-2

➤ **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBH.

➤ **Erantzuna:** Bai.

➤ **Azalpena:** Biak beharrezko ikusten ditugu eta biek izan beharko lukete dagokien lekua.

• IKAST-3

➤ **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBH.

➤ **Erantzuna:** Ez.

➤ **Azalpena:** Irakasten dena batua da eta nork bere euskalkia islatzen du mintzamina lantzean.

• IKAST-4

➤ **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBH.

➤ **Erantzuna:** Bai.

➤ **Azalpena:** Nafarroan gaude, irakasleen artean gehienak euskaldun zaharrak gara eta ikasleen artean ere kezka eta interesa ere badago.

• IKAST-5

➤ **Ikasketak:** D eredua. HH, LH eta DBH.

➤ **Erantzuna:** ?

➤ **Azalpena:** Erdian kokatu dugu erantzuna, nolabaiteko kezka dugulako. Sarritan mintzatu gara, nahiz eta egitasmorik ez gauzatu, Nafarroako euskalkien hainbat ezaugarri txertatu beharko genituzkeela gure eguneroko jardunean.

2. GALDERA: ERABAKIA

• IKAST-1

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

• IKAST-2

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Euskalkia indartu batez ere ahozko adierazpenetan eta sistematizatu idatzizkoetan. Ahoz aski zabaldua den arren, erregistro jasoan ustezko autokorrekziora jotzen du ikasleak. Idatzizkoan euskalki estandarizaturantz jotzen dugu: oso = aitz (ahozkoan); hagitx (idatzian).

• IKAST-3

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

• IKAST-4

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** Argi dugu euskara batuan egin behar dugula. Ikasle gehienen ama hizkuntza gaztelania da.

• IKAST-5

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** Batez ere inguruan inolako euskalki bizirik ez dagoelako.

3. GALDERA: IRAKASLEEN ASKATASUNA

• IKAST-1

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** -

• IKAST-2

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Ardura handiena, ordea, euskara irakasleak du.

• IKAST-3

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Halere, kontuan hartzekoa da Nafarroan ari garela eta hemengo euskalkirik ezagutzen duen gutxi dagoela; gipuzkoar eta bizkaitarrei ez zaigu sobera egokia iruditzen norberarena gailentzea, hortxe kokka.

• IKAST-4

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** Euskara batua da gure ikastolako oinarria eta eredia, naturaltasun osoz.

• IKAST-5

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Askatasunez jokatzeko badute ere, eguneroko dinamikak eta inguruneak euskara batua erabiltzera bultzatzen ditu.

4. GALDERA: EUSKALKIAK IKASKETA PROGRAMETAN

• IKAST-1

- **Erantzuna:** Ez.
- **Erabakia:** -

• IKAST-2

- **Erantzuna:** Bai.
- **Erabakia:** Ez modu sistematikoan, ordea.

• IKAST-3

- **Erantzuna:** Ez.

- **Erabakia:** Halere, DBHko 2. kurtsoko unitate batean zertxobait irakasten da.

- **IKAST-4**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Erabakia:** Ikastola bakoitza aske da arlo honetan.

- **IKAST-5**
 - **Erantzuna:** Bai.
 - **Erabakia:** Euskalkiak zeintzuk diren irakasten da eta euren ezau-garri batzuk ikusi ere bai, baina oso azaletik, sakondu gabe.

5. GALDERA: ZEIN ERREGISTROTAN IRAKATSI

- **IKAST-1**
 - **Erantzuna:** Batuan eta euskalkian.
 - **Erabakia:** -

- **IKAST-2**
 - **Erantzuna:** Euskalkian.
 - **Erabakia:** Batuak hemengo goi-nafarrera bereganatzen duen neurrian eta alderantziz.

- **IKAST-3**
 - **Erantzuna:** Batuan, HHn, LHn eta DBHn.
 - **Erabakia:**

- **IKAST-4**
 - **Erantzuna:** Batuan, arlo guztietan.
 - **Erabakia:** Inongo arazorik gabe eta bakoitzak duen euskalkiarekin goxatuz!

- **IKAST-5**

- **Erantzuna:** Batuan.
- **Erabakia:** Gauden lekuan gaudelako. Gure asmoa euskara batua nafarreraren koloreaz apaindua erabiltzea da.

6. GALDERA: EUSKALKIEN ETA EUSKARA BATUAREN TOKIA

- **IKAST-1**

- **Erantzuna:** *Batuan eta euskalkian*, idatzian eta ahozkoan.

- **IKAST-2**

- **Erantzuna:** *Euskalkian*, ahozkoan, irakasgai guztietan. *Batuan eta euskalkian*, idatzian, zenbait irakasgaitan.

- **IKAST-3**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan. *Euskalkian*, ahozkoan, irakaslearen arabera.

- **IKAST-4**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.

- **IKAST-5**

- **Erantzuna:** *Batuan*, idatzian eta ahozkoan, irakasgai guztietan.

7. GALDERA: BESTERIK...

- **IKAST-1**

- **Erantzuna:** Egia errateko ahozkoan euskalkian eta idatzian batuan egiten dugu gehienetan.

- **IKAST-2**

- **Erantzuna:** Saiatzen gara bertakoak ez diren irakasleak bertako euskalkia lantzen eta haien ekarpena aldi berean bultzatzen.

• **IKAST-4**

- **Erantzuna:** Euskalkiek gure ikastolan badute nolabaiteko presentzia. LHko hirugarren zikloan eta DBHn badute beren txokoa. Entzumena, ulermena, bokabularioa... lantzen dira. (DBHko 4. kurtsuan bereziki).

• **IKAST-5**

- **Erantzuna:** Gure kezka hauxe da: euskalkirik ez dagoen tokian beti euskara batuaz aritu behar da? Batuaren bidez arlo askotan gipuzkera zabaltzen da: ahoskera, hiztegia... Horrexegatik nafarrera, neurri batean behintzat, txertatzea gustatuko litzaiguke.

4.8.2. *Emaitzak*

1. *galdera:*

Bereizketa egin behar da euskal eremuko eta erdal eremuko ikastolen artean.

- *Euskal eremuko* ikastoletako irakasleen aburuz, euskara batua eta euskalkiak beharrezkoak dira, oro har, batuaz irakasten bada ere. Euskalkia mintzamenean islatzen da, hala ere.
- *Erdal eremuko* ikastolen artean denetarik dugu. Nolanahi ere, aipatu beharra dago Nafarroako euskararen ezaugarriak eguneroko euskararen txertatzea garrantzitsutzat jotzen dutela.

2. *galdera:*

Oro har, ez da erabakirik hartu. Erabakia hartu duen ikastola bateko oharak ezin interesgarriagoak dira: euskalkia indartu beharko litzateke, batez ere ahozkoan. Idatzizkoan ere sistematizatu beharko litzateke.

Ezetz erantzun dutenek, oro har, erraten dute euskara batuaz irakatsi behar dutela eta, horretaz gainera, inguruan ez dutela inolako euskalkirik.

3. *galdera:*

Ikastoletako irakasleek, eskuarki, askatasunez jokatzeko afera honetan. Hala ere, ikastola batean diote eguneroko dinamikak eta inguruneak euskara batua erabiltzera bultzatzen duela. Ezin ukatu euskara batua dela ikastola bateko irakaskuntzaren oinarria eta, gainera, naturaltasun osoz.

4. galdera:

Denetarik dugu. Ikastola batzuetako ikasketa programetan euskalkiak sartuta daude. Hala ere, euskalkien ezagutza/irakaskuntza ez da sistematikoa. Beste ikastola batzuetan, ordea, ez da euskalkirik aipatzen.

5. eta 6. galderak:

Bereizketa garbia egin behar da.

- *Euskal eremuko ikastoletan*, batuaz eta euskalkiaz egiten dute, ahoz eta idatziz.
- *Erdal eremuko ikastoletan*, berriz, batuaz egiten dute, ahoz eta idatziz. Euskalkiak ahozkoan ere sartzen ahalegintzen dira.

7. galdera:

Euskal eremuko eta erdal eremuko ikastolen arteko ezberdintasunak agerian gelditu dira.

- *Euskal eremukoetan*, bertakoak ez diren irakasleak tokiko euskalkira egokitzen eta hura lantzen ahalegintzen dira eta, aldi berean, haien ekarpena ikastolan txertatzen. Euskara aberatsa egiten, alegia.
- *Erdal eremukoetan*, aldiz, azalekoa da euskalkien presentzia ikasketetan. Halarik ere, Nafarroako euskararen ezaugarriak ikasketetan txertatu balira, atseginez hartuko litzateke.

5. KEZKAK ETA ZALANTZAK

Galdetegiko erantzunak azterturik, honako kezka eta zalantza hauek atera daitezke ondorio modura:

5.1. Administrazioa

5.1.1. Euskara itzultzaileak

- Euskalkiek ez dute luze iraunen, euskara batuak itota. Iritzi kontra-rria: ez nau kezkatzen euskalkiak galtzeak, baldin eta galera hori erabiltzailearen baturanzko bilakaera natural baten ondorio bada.
- Zer da euskara «estandar hutsa»? Zer da «euskara batua»? Zerbait egi- na edo bukatua, edota egiten ari garen zerbait?
- Ahoskatu bezala idazten hasiz gero, nahasmena.

- Zer da euskalkia? Nola txertatu behar da euskalkiaren ekarpena euskara batuan?

5.1.2. *Euskara teknikariak*

- *Euskal eremuko enaburuz...*
 - Kezka euskalkiaren ezagutzak eta erabilerak sortzen du hizkuntza-
ren erabilerari ematen dizkion baliabideak eta aukerak neurri batean
galtzen ari direlako.
 - Euskalkiarekiko kezka euskararekiko atxikimendua eta motibazioa
indartu nahiak eragiten du.
- *Erdal eremuko enaburuz...*
 - Kezkarik handiena euskara batua finkatzea eta haren ezagutza area-
gotzea da.
 - Euskalkiez kezkatuik bagaude ere, euskara batuarekiko kezka han-
diagoa da: euskararen ezagutza eta erabilera handitu behar dira.
 - Euskararen normalizazio linguistikoa erdiesteko euskalkiak beha-
rezkoak dira, euskara esparru guztietara egoki zabaltzeko.

5.2. **Hezkuntza**

5.2.1. *Hizkuntza eskolak eta euskaltegiak*

- Gai honetan nahasmen handia dago.
- Gai honen gaineko gogoeta egin behar da.
- Hainbatek ez du argi zer den batua eta zer diren euskalkiak.
- Nafarroan euskalki anitz dago. Zein hartu?
- Euskalkiak irakasteko material gutxi dago.

5.2.2. *Ikastetxe publikoak eta ikastolak*

- Ikastetxe anitzek (irakasle anitzek) ez dakite nola jokatu gai honetan.
- Ikastetxe anitzek (irakasle anitzek) ez dakite nora jo argibide bila.

- Irakasle anitzek tokian tokiko euskalkian trebatzeko ikastaroak nahi dituzte.
- Irakasle anitzek euskalkien eta euskara batuaren gaiari buruzko gomendioak eta irizpideak nahi dituzte.
- Irakasle batzuen ustez, euskara batuaren izenean gipuzkera zabaltzen da anitz arlotan.

5.2.3. *Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak*

- Borroka ez da batuaren eta euskalkien artekoa, euskararen eta gaztelaniaren artekoa baizik.

6. ERANSKINA

6.1. Galdetegi ereduak

6.1.1. *Administrazioa (euskara itzultzaile eta teknikariak)*

GALDETEGIA

Nafarroako Foru Erkidegoko administrazioa eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Itzulpen Zerbitzua

1. Baduzue kezkarik euskara batuaren eta euskalkien gaiaren gainean? Arrazoitu erantzuna.
2. Zer leku hartzen du euskara batuak zuen eguneroko lanean? Eta euskalkiek? Arrazoitu erantzuna.
3. Euskara batua idazteko, euskalkiak ahozkorako. Ados zaudete esaldi horrekin? Arrazoitu erantzuna.
4. Zuen ustez, euskara batua idazteko bada soilik, zer euskara batu idazten duzue? Estandar hutsa, euskalkien ekarpenaz aberastutako estandarra...
5. Zuen ustez euskalkietan ere idazten ahal baldin bada, zer, non eta nola idatziko zenukete euskalkian? Euskalkian idazteko araurik finkatuko zenukete? Ahoskatu bezala idatzi behar litzateke? Arrazoitu erantzuna.
6. Hizkuntza eredu jakin batean eta ez bertze batean (errate baterako, batuan eta ez euskalkietan, edo alderantziz) idazteko erabaki finkorik hartu baduzue, jakin nahi genuke zein arrazoik bultzatuta jotatzen duzuen horrela.
7. Iradokizunak.

6.1.2. *Hezkuntza*

6.1.2.1. Hizkuntza eskola ofizialak eta euskaltegiak

GALDETEGIA

Hizkuntza eskola ofizialak eta euskaltegiak

Hizkuntza eskolaren izena: ...

Herria: ...

Ikastaroak: ...

1. Zuen hizkuntza eskolan edo euskaltegian, oro har, baduzue kezkarik euskara batuaren eta euskalkien gainean?
– Bai. / Ez.
– Arrazoitu erantzuna: ...
2. Hizkuntza eskolako euskara sailak edo euskaltegiko klaustroak hartu du noizbait erabakirik, esate baterako, euskara batu hutsean irakasteko, edo euskalkian edo tokian tokiko hizkeran irakasteko, edo euskara batu osatuan (euskalkien ekarpenarekin) irakasteko?
– Bai. / Ez.
– Erabakia: ...
– Arrazoitu erantzuna: ...
3. Irakasleek askatasunez jokatzeko dute afera honetan?
– Bai. / Ez.
– Arrazoitu erantzuna: ...
4. Ikasketa programetan sartu dira euskalkiak edo tokian tokiko hizkerak?
– Bai. / Ez.
– Arrazoitu erantzuna: ...
5. Batua eta/edo euskalkia (edo tokian tokiko hizkera) erabiltzen badituzue, zein modutan egiten duzue?
– Idatzian: Batuan. / Batuan (euskalkiaren ekarpenarekin). / Euskalkian.
– Ahozkoan: Batuan. / Batuan (euskalkiaren ekarpenarekin). / Euskalkian.

– Arrazoitu erantzuna: ...

6. Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo Hizkuntza Eskolako Goi Zikloko agiria erdiesteko programetan eta agiri horiek eskuratzeko probetan, badute lekuri euskalkiek?

Bai. Nongoak?: Euskal Herri osokoak. / Hego Euskal Herrikoak. / Ipar Euskal Herrikoak. / Nafarroakoak.

Ez.

7. Besterik esan nahi baduzue...

6.1.2.2. Ikastetxe publikoak eta ikastolak

GALDETEGIA

Ikastetxe publikoak eta ikastolak

Eskolaren edo ikastolaren izena:...

Herria: ...

Hizkuntza ereduak: A / B / D

Hezkuntza arloak: Haur Hezkuntza (HH); Lehen Hezkuntza (LH); Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH); Batxilergoa (Batz); Heziketa zikloak (HZ).

1. Zuen eskolan edo ikastolan, oro har, baduzue kezkarik euskara batua-ren eta euskalkien gainean?

– Bai. / Ez.

– Arrazoitu erantzuna: ...

2. Zuen eskolako Eskola Kontseiluak (edo Irakasleen Klaustroak edo Euskara Mintegiak) hartu du noizbait erabakirik, esate baterako, euskara batu hutsean irakasteko, edo euskalkian edo tokian tokiko hizkeran irakasteko, edo euskara batu osatuan (euskalkien ekarpenarekin) irakasteko?

– Bai. / Ez.

– Erabakia: ...

– Arrazoitu erantzuna: ...

3. Irakasleek askatasunez jokatzeko dute afera honetan?

– Bai. / Ez.

- Arrazoitu erantzuna: ...
- 4. Hezkuntza administrazioak ezarri curriculum eta programetan, euskalkiak edo tokian tokiko hizkerak lantzen dira?
 - Bai. / Ez.
 - Arrazoitu erantzuna: ...
- 5. Zein erregistrotan irakasten duzue?
 - Batuan. Zein arlotan?: HH / LH / DBH / Batx / HZ
 - Euskalkian. Zein arlotan?: HH / LH / DBH / Batx / HZ
 - Bietan. Zein arlotan?: HH / LH / DBH / Batx / HZArrazoitu erantzuna: ...
- 6. Batua eta/edo euskalkia (edo tokian tokiko hizkera) erabiltzen badituzue, zein modutan egiten duzue?
 - BATUAN: Idatzian. / Ahozkoan.Zein irakasgaita:
 - EUSKALKIAN: Idatzian. / Ahozkoan.Zein irakasgaitan: ...
 - BIETAN: Idatzian. / Ahozkoan.Zein irakasgaitan: ...
- 7. Besterik esan nahi baduzue...

6.2. Eremuak

6.2.1. Euskal eremua

- Baztan
- Bertizarana eta Malerreka
- Bortzerriak
- Leitza-Goizueta-Areso
- Larraun-Araitz
- Sakana-Burunda

6.2.2. *Erdal eremua*

- Iruñerria
- Erronkari
- Tafallaldea

6.3. Galdetegiari erantzun dioten pertsonen eta erakundeen zerrenda

6.3.1. *Administrazioa*

6.3.1.1. Euskara itzultzaileak

- Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuko itzultzaile bat (Iruñea)
- Nafarroako Aldizkari Ofizialeko itzultzaile bat (Iruñea)
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko hiru itzultzaile (Iruñea)

6.3.1.2. Euskara teknikariak

- Antsoingo Euskararen aldeko Patronatuko euskara teknikaria (Iruñerria)
- Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuko euskara teknikaria
- Berriozarko Udaleko euskara teknikaria (Berriozar - Iruñerria)
- Bortzerrietako Euskara Mankomunitateko euskara teknikaria
- Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuko bi euskara teknikari (Iruñea)
- Iparraldeko Euskara Mankomunitateko euskara teknikaria (Larraun-Araitz)
- Iparraldeko Euskara Mankomunitateko euskara teknikaria (Leitza)
- Malerrekako Mankomunitateko euskara teknikaria
- Zaraitzuko eta Erronkariko Euskara Zerbitzuko euskara teknikaria

6.3.2. *Hezkuntza*

6.3.2.1. Hizkuntza eskola ofizialak

- Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala
- Tuterako Hizkuntza Eskola Ofiziala

6.3.2.2. Euskaltegi publikoak

- Nafarroako Administrazio Publikoetako Euskaltegia (Iruñea)
- Zubiarte euskaltegia (Uhartea - Iruñerria)

6.3.2.3. Euskaltegi pribatuak

- AEK - Agoitz
- AEK - Arrosadia (Iruñea)
- AEK - Etxabarrengoa (Aezkoa eta Erroibar)
- AEK - Iruñea
- AEK - Zangoza
- IKA - Arturo Kanpion (Iruñea)
- IKA - Matxinbeltzenea (Lesaka - Bortzerriak)

6.3.2.4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko bost irakasle

6.3.2.5. Ikastetxe publikoak

- Amazabal BHI (Leitza)
- Andres Nabarro «Xalto» IP (Goizueta)
- Arantzako IP (Bortzerriak)
- Araxes IP (Betelu - Arantz)
- Aresoko IP

- Arrano Beltza IP (Iturmendi - Burunda)
- Axular IP (Iruñea)
- Baztango IPak (Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Arizkun, Gartzain, Irurita, Ziga, Almandoz, Arraioz eta Oronoz).
- Baztango ikastola (Elizondo - Baztan)
- Eskolagainea IP (Beintza-Labaien - Malerreka)
- Fernando Urkia IP (Arbizu - Sakana)
- Hegoalde IP (Iruñea)
- Igantziko IP (Bortzerriak)
- Julian Gayarre IP eta Roncal DBHI (Erronkari)
- Legasako IP (Legasa - Bertizarana)
- Lekaroz-Elizondoko BHI (Lekaroz - Baztan)
- Lekunberriko IP (Larraun)
- Ricardo Baroja IP (Bera - Bortzerriak)
- Saldiasko IP (Basaburua Txikia)
- San Frantzisko IP (Elizondo - Baztan)
- San Migel IP (Doneztebe - Malerreka)
- Sebastian Goikoetxea IP (Urdiain - Burunda)
- Toki Ona BHI (Bera - Bortzerriak)

6.3.2.6. Ikastolak

- Francisco de Jaso ikastola (Iruñea)
- Garces de los Fayos ikastola (Tafalla)
- Labiaga ikastola (Bera - Bortzerriak)
- Paz de Ziganda ikastola (Atarrabia - Iruñerria)

6.3.2.7. Erakundeak

- Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzua (Iruñea)
- Nafarroako Ikastolen Elkartea (Iruñea)

6.4. Gakoak eta laburduren zerrenda

Gakoak eta laburdurak	Izen osoa
Batx	Batxilergoa
BHI	Bigarren hezkuntzako institutua
DBH	Derrigorrezko bigarren hezkuntza
DBHI	Derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutua
DOBH	Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntza
EGA	Euskararen Gaitasun Agiria
EUSPRI	Euskaltegi pribatua
EUSPUB	Euskaltegi publikoa
FOADMITZ	Foru administrazioko euskara itzultzailea
FOADMTEK	Foru administrazioko euskara teknikaria
HE	Hizkuntza eskola
HH	Haur hezkuntza
HIESK	Hizkuntza eskola ofiziala
HZ	Heziketa zikloak
IKAST	Ikastola
IKPUB	Ikastetxe publikoa
IP	Ikastetxe publikoa
LH	Lehen hezkuntza
NUP	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
NUPIR	Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea
NUPITZ	Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskara itzultzailea
TOADMTEK	Toki administrazioko euskara teknikaria

6.5. Hizkuntza ereduak: azalpena

- **A ereduak:** irakaskuntza gaztelania hutsez, Euskara irakasgaia izan ezik.
- **B ereduak:** irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz . Gaztelania irakasgaiaz gainera, beste irakasgai bat edo gehiago gaztelaniaz irakatsiko dira.
- **D ereduak:** irakaskuntza euskara hutsez.
- **G ereduak:** irakaskuntza gaztelania hutsez.

Euskal eremuan, A, B eta D ereduetan ikasten ahal da (Euskara irakaskaria nahitaez irakatsi behar da).

Eremu mistoan, A, B, D eta G ereduetan ikasten ahal da.

Eremu ez-euskaldunean, A eta G ereduetan ikasten ahal da.

Iturria: 159/1988 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa.

NAFARROA HIZKUNTZA KARTOGRAFIAN

(Nafarroako euskal dialektologiaren berrikuspen kritikoa)

G. Aurrekoetxea

EHU

1. SARRERA

Nafarroako euskal hizkeren ikerketak zertan dauden azaldu nahi nuke le-
rro hauen bidez. Orain artean Komunitate Foraleko hizkeren gainean egin di-
ren ikerketen azterketa hau, gainera, ikuspegi kritiko batekin eginez.

Ezaguna da dialektologian ere mota askotako ikerketak egin daitezkeela
eta egiten direla; hizkera bati buruzko monografietatik abiatuz ikuspuntu ge-
olinguistikoa lantzen duten hizkuntza atlasetaraino.

Ikerketa mota bakoitzak metodologia eta prozedura desberdinak erabil-
tzen ditu, bai datu-bilketarako, eta baita datuen analisirako ere.

Hori dela eta lan-esparrua bitan bananduko dut: a) Nafarroako aldaeren
azterketetan kartografia erabili duten lanak, batetik; mapak erabiltzen dituzten
lanak, alegia. Eta b) Nafarroako hizkeren azterketa monografikoak.

Planteamendu hau Nafarroan arlo honetan egin diren lanen perspektiba
historikorik ez duenarentzat, edo Nafarroako euskalkiak aztertzeraz hurbildu
nahi duenarentzat interesgarri izango dela uste dut, batetik; eta, arlo hone-
tan ibiliarentzat ere onuragarri izango zaiola uste dut han-hor-hemen eta az-
ken 30 urteotan argitaratu diren lan nagusien erreferentzia aurkituko due-
lako.

2. NAFARROAKO EUSKARAREN LURRALDEA BARNE HARTU DUTEN LAN GEOLINGUISTIKOAK

Hizkuntza atlasgintza edo antzeko lanen egitasmoetan Nafarroako lur-
rak behin baino gehiagotan izan dira arakatuak, hizkuntza ezaugarrien bila. Aipa-
gai ditugun lanok multzo desberdinetan sailkatu ditugu:

a) Euskara biltzeko proiektu handiak

b) Gaztelania biltzeko proiektu handiak

c) Bestelako lanak

d) Nafarroa osoa hartuz ezaugarri bakar edo gutxi batzuk baino ez dituztenak landu.

e) Sintesiko lanak

Nafarroako euskararen sailkapenerako Bonaparteren sailkapena jarraituko da, nahiz aurretik eta batez ere atzetik beste sailkapen batzuk ere badiren. Bonaparteren sailkapena bi zentzutan gorde eta jarraituko dugu: euskalkien banaketan, alde batetik; eta euskalki, azpieuskalki eta aldaerak izendatzean bestetik. Izan ere bai bata zein bestea dira, bestelako proposamenak izan diren arren, oraindik modu «ofizialean» erabiltzen direnak. Euskaltzaindiak hala izendatzen ditu (1), *Orotariko Euskal Hiztegiak*, *Hiztegi Batuak* zein gainerako Euskaltzaindiaren argitalpenek ere izendapen horiek eta saiekapen hori erabiltzen dute. Bidezkoena ez eze arrazoizkoa ere dirudi erabilera horri jarraitzea da, beraz.

Besterik gabe, ikus dezagun Nafarroako euskalkien azterketarako egin diren ikerketa geolinguistikoen ekarria.

2.1. Erizkizundi Irukoitza (E.I.) (2)

Euskara biltzeko era honetako proiektuen artean lehena *Erizkizundi Irukoitza* (E.I.) dugu. Resurrección María de Azkue izan zen proiektuaren sortzaile eta bultzatzaile nagusia. 1921ean, hizkuntzaren batasunari buruzko erabakiak hartzen hasteko datu fidagarriak izateko, galdesorta baten bidez datuak biltzeko eritasmoa aurkeztu zion Euskaltzaindiari.

Hau da euskararen eremu osoan (Nafarroa barne) euskarari buruzko datuak jasotzeko egin den lehen inkesta geolinguistikoa, Bonaparte printzearena ezin baita hartu inkesta geolinguistikotzat.

Ondorengo urteetan egin ziren inkestetatik gutxi batzuk baino ez zuten argia ikusi *Euskera* agerkarian (1922tik 1930ra bitartean). Baina 1984an A. M. Echaidek paratu zuen argitalpen osoa, bi liburukitan.

(1) Hona hemen izendapenok: Arabako euskara, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, zuberera, (goi) nafarrera zein (goi-) nafarrera, eta (behe) nafarrera nahiz (behe-) nafarrera.

(2) A. M. Echaide (arg.), 1984, *Erizkizundi irukoitza / triple questionnaire (euskara 1925)*, Iker 3, Euskaltzaindia, Bilbo.

Ez naiz gehiegi luzatuko proiektu honen inguruko gorabeheretan xehetasunak argitaratuta baitaude eta oso eskuragarriak baitira. Bakar batzuetara baino ez naiz mugatuko.

2.1.1. *Galdesorta*

Galdesortak hiru atal ditu: fonetika (52 ezaugarri-136 galdera), morfologia (69 ezaugarri eta 245 galdera) eta lexikoa (68-117). Guztira 189 ezaugarri eta 498 galdera biltzen ditu.

2.1.2. *Inkesta-lekuak*

Egitasmo honek izan duen historia dela eta bildutako datu asko galdu egin dira. Guztira 260 herritako jaso baziren ere, 172 herritakoak baino ez dira gordetzen. Hona hemen lurraldeka:

- Bizkaia: 70 gordetzen dira eta 30 galdu dira.
- Araba: 10 gordetzen dira eta 1 desagertuta
- Gipuzkoa: 59 gordetzen eta 20 galduta
- Nafarroa: 28 gordetzen eta 44 galduta
- Lapurdi: 10 gordetzen eta 2 galduta
- Nafarroa Beherea: 5 gordetzen dira eta 1 galdu da
- Zuberoa 3 argitaratu dira eta 1 galduta

Beraz, Nafarroan jasotako datuetarik %40 eskas ezagutzen da. Hala ere Nafarroan zehar egin diren bilketak kontuan izanik, gainerako proiektu gehienetan baino herri gehiagotako datuak eskaintzen ditu oraindik ere.

2.1.3. *Inkestak*

Inkestak 1922tik 1925era bitartean gauzatu ziren. Datu-bilketan ibili ziren inkestagileak oro har garaiko euskaltzain, Euskaltzaindiaren hurbileko eta euskalgintzan aritutako jendea izan zen. Nafarroan parte hartu zutenak ondoak izan ziren:

- Polikarpo Iraizoz izan zen inkesta gehien egin zituena, guztira 10 inkesta egin zituen (Betelu, Lekunberri, Lezaeta-Azpiroz, Irañeta, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Olazagutia, Uharte-Arakil, Ituren, Zubieta)

– Etxalarko Eusebiok 7 inkesta (Olo, Donamaria, Osteritz, Arrieta, Oroz-Betelu, Iriberrri (Aezkoa), Eskarotze)

– Angel edo Aingeru Madariagak 3 inkesta: Nabaz (Txalapen), Gartzaron (Basaburua)

– Azkuek 5 inkesta (Aldaz, Bera, Arrieta, Abaurrepea, Iriberrri) (3)

– Damaso Inzak 4 inkesta (Beruete, Iragi, Uztarrotz, Urzainki)

Ikus daitekeenez, datu-bilketan aritutakoak jende prestatua zen oso; Polikarpo Izaizoz, Azkue eta Damaso Inzak ez dute aurkezpen beharrik, oso ezagunak baitira. Ez dira orde, hain ezagunak beharbada, Etxalarko Eusebio eta Angel edo Aingeru (bietara izenpetzen baitu) Madariaga.

Etxalarko Eusebio Lekarozen bizi izandako fraile kaputxinoa izan zen eta besteak beste ondoko lanen egile dugu: «Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos» (4), «Palabras vascas en monumentos romanos» (*Yakintza*, 1933; 1934, 1935), «Voces vascas en los Fueros de Navarra» (*BCMN*, 1920, XI eta XII) edo «El canto de Lelo, el canto de los cántabros» (*BCMN*, 1925 XVI eta 1926 XVII). Formazio handiko pertsona baten aurrean gaudela ezin dugu ukatu.

Angel edo Aingeru Madariaga (Bermeo 1893-) frantziskotarra, ere ez zen hasi berria euskalgintzan eta kultura munduan. Besteak beste «Escritores [franciscanos] en euskera» (*Seráfica Provincia de Cantabria*, Aránzazu 1935, 168-179), eta liburu gisa *Escritores franciscanos de la provincia de Cantabria*, «Euskerearen bakuntzeaz» (*Euskera* 1922, III-1, 58-61) idatzi zituen (5).

Honek erakusten digu E.I.-rako datu-bilketan Nafarroan jende aditua ari-ri zela, gainerako kasuetan bezalaxe.

2.1.4. *Emaitzak*

Datu guztiak, esan bezala, bi liburukitan argitaratu dira. Lehen liburukian galdesorta, lekukoak eta erantzunen zerrendak, erantzunen tipologiaren arabera sailkatuta, azaltzen dira; bigarrenean mapak. Guztira 350 mapa egin dira.

Mapak zenbakien bidez daude eraikita; lehen liburukian galderaz galdera erantzunen zerrenda azaltzen da. Zerrenda honek hiru ezaugarri biltzen ditu:

(3) Datuek erakusten dutenez Iriberrin inkesta bi egin ziren: bata Azkuek eta bestea Etxalarko Eusebiok.

(4) in Carreras y Candi, *Geografía general del País Vasco-Navarro*, Vol IV, «Provincia de Navarra», T. I, 1049-1099.

(5) Datuok Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako langile finei esker lortu ditut, bihoazkie hemendik eskerrik beroena.

erantzunak, erantzunari dagokion kodea eta erantzunak jaso diren herrien kodeak. Erantzunen kodeak hizki bat eta, batzuetan, zenbaki batez daude eraikita; kodeok A hizkirekin hasten dira eta behar adina hizki agertzen dira. Herrien kodea zenbaki baten bidez jaso da. Herrien kodea beti finkoa da, galdera guztietan bera. Mapetan erantzun bakoitzari dagokion kodea agertzen da herriari dagokion puntuxuaren ondoan. Herriak puntu batez markatzen dira mapan eta ez da dagokien zenbakirik agertzen.

2.1.5. *Lanaren balioa*

Balio handiko datuak eskaintzen ditu argitalpen honek. Euskarari dagokionez lehen datu-bilketa geolinguistikoa da, gorago esan bezala. Ahozko hizkerari buruz ezagutzen diren lehen materialak dira. Eta ondorengo urte askotan ere ez da izango horrelako lanik. Izaera honek berez duen garrantzia handiagotu egiten du.

Dena den, datu-bilketa aberats hau ez da parekatu behar garai hartan Europan egiten hasiak ziren hizkuntza atlasekin. Bai planteamenduan, bai helburuetan, bai metodologia eta prozeduretan desberdinak dira eta ez datoz bat bi egitasmoak.

Datuen argitalpenari dagokionez, nire uste apalean argitalpen motak asko baldintzatu du lanaren erabilpena. Zaila da halako datu kopuru handia behar bezala argitaratzea, baliabide egokiak ez diren bitartean. Kasu honetan holako zer-bait ez ote den izan beldur naiz. Eta egia esan behar bada, nire ustez ez da asmatu argitalpen mota egokienarekin. Bi liburukitan argitaratzeak eta hitzen edo ezaugarrien hedaduraz ohartzeko bata bestearekin irakurri behar izateak ez du laguntzen datuen irakurketa geolinguistikoa erraztasunez egiten. Liburuki bakar batean argitaratu izan balitz askoz ere erabilpen handiagoa izango zuelakoan nago.

Bestalde, mapen irakurketa ez da modu errazean egiten, mapetan herrien koderik ez azaltzeak oraindik zailago egiten du irakurketa.

Lagungarri izan zitekeen mapak eraikitzeko oinarrizko datuak leienda batean ipini izan balira.

2.2. A. M. Echaideren *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas* (6)

Nafarroako euskal hizkerak hartzen dituen ikerketa geolinguistikoa egin zuen Ana Mari Echaidek 1965-1967 bitartean. Mitxelenak aholkatuta hasi zuen lana A. Marik eta «Euskararen Hizkuntz Atlas» egiteko prestaketa moduko bat egitea zuten buruan.

(6) Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

2.2.1. *Lanaren ezaugarriak*

Erabilitako galdesortak 301 galdera biltzen ditu. Galdera gehienak lexi-koari buruzkoak dira (268 galdera); hala ere baditu gramatikazkoak ere (33 galdera), nahiz denetan ez den garbi galderaren helburua lexikoa ala ezaugarri gramatikal bat den. Horien artean kokatzen dira, adibidez, lehen bi galderak: 1. «tengo agua», 2. «no tengo agua».

Lexikoari dagozkionetan, bestalde, lexiko orokorra biltzen da: astegunak, hilegunak, urteko jaiak, giza-parteak, sendia...

Inkesta-bilketa 72 lekutan egin bazen ere, 60 herritako datuak baino ez dira argitaratu.

Berriemaileen ezaugarriak dialektologia tradizionalan erabiltzen direnak dira: proiektu honetan 50 urte baino gehiagokoak aukeratu ziren. Eta, salbuespenak salbuespen, herri bakoitzeko berriemaile bat, hizkuntza atlasetan ohikoa den legez.

Emaitzak zerrendetan argitaratu dira. 301 galderatako erantzunak biltzen dira herriz herri sailkatuta Errokaritik hasiz hurrenkera geografikoa jarraituz ordenatuta. Ez da, beraz, lan kartografikorik egin.

Erantzunak transkribatzeko alfabeto fonetikoa erabiltzen du; Euskaltzaindiak Dialektologiari buruzko III. jardunaldietan (Markina 1983) erabakitakoa, hain zuzen ere.

2.2.2. *Lanaren balioa*

Aberastasun handia biltzen da 301 galderotako erantzunetan. Aberastasun hau maila desberdinetan sailka daiteke. Ezaugarri batzuk aipatzearen lexiko eta fonologiako bakar batzuk aipatuko ditut:

a) Lexikoan

- Jada egiten ez diren edo galduz doazen bizibideetako hitzak (adibidez, 124. Galderan ‘requesón’ eta 125.ean ‘cuajada’) galdetzen dira. Lehenengoan *errekesona* mailegatuaren ondoan *senberona* eta bere aldaerak agertzen zaizkigu; 125.ean aldiz *gaztanbera*, *kallatua* eta *mamia*. Garrantzitsua da bizitza eta kultura tradizionala biltzen duten lanetan bi kontzeptu hauek ongi bereiztea. Izan ere, bizimodu tradizionalaz ondo jabetzen ez denak ez duelako desberdintasunik atzematzen.
- Euskararen eremuan agertzen diren hitz guztiak biltzen dira Nafarroako eremuetan galdera batzuen erantzunetan. Hori gertatzen da adibidez «139 carro»-ko erantzunetan: Euskal Herri osoan agertzen diren hitzak biltzen dira Nafarroan bakarrik, Euskal Herriaren bilduma bat balitz be-

zala (*karroa*, *gurdi* eta *orga*). Berdin gertatzen da *emazte*, (*e*)*masteki*, (*e*)*makume*, *andre* 188. galderan ‘mujer’ adierazteko; edo (*e*)*mazte* eta *andre* «189.eko ‘esposa’ kontzeptuko erantzun bakarretan (Anueko Etulaingo *nere atxoa* salbu).

- Hitzen aldaera edo forma zaharrak ere biltzen dira lan honetan: horietakoak dira adibidez *bida-bide-bira* (35 herritan), *irur* eta *laur* (Ekialdeko 7 herritan).

b) Fonologian:

- Arau fonologiko batzuen kate-maila erdi-galduak aurkitzen dira erantzunen artean. Eufonia bokaliko edo arau morfonologikoen kontuan ere lurralde batzuetan dokumentatu gabe dauden burutzapen batzuk aurkitzen dira: ezaguna da, adibidez, *-i* bokalez amaitzen diren hitzei *-a* artikulua eranstea sortzen diren hots egokitzapenak. Burutzapen ezagunen artean agertzen dira *-ia*, *-ie*, *-ixa*, *-ixe*, *-iya*, *-iye* eta *-i*. Azken honetara heltzeko dokumentatzen zaila den *-ii*, emaitza ere aurkitzen da; hain zuzen ere 131. galderako erantzunen artean *afarií* aurkitzen dugu Beruete, Baraibar eta Oderitzen.
- Edo Nafarroako ekialdean (Zaraitzun) baino aurkitzen ez den *-a + -a > -ara* arau morfonologiko ezaguna beste behin ere dokumentatuta azaltzen zaigu: *gamintara* (143-Iz-Esp-Ja), *sartágiará* (146-Iz)

Beraz, balio handiko datuak dira ikerketa honetan argitaratu direnak eta Nafarroako euskararen errealitatea ezagutzeko ezinbestekoak.

2.3. Euskalerriko atlas etnolingüistikoa (EAEL) (7)

Euskalerriko atlas etnolingüistikoa-EAEL deitutako proiektua abiatu zuen Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnologia Mintegiak 1975. urtean. Datuen argitalpena bi liburukitan egin da: lehenengoa 1983an eta bigarrena 1990ean.

2.3.1. Proiektuaren ezaugarriak

Lantaldea: Fermin Leizaola koordinatzaile zela M. Egaña, K. Artola eta J. Jose Arbelaiz aritu ziren talde teknikoan.

(7) F. Leizaola (koord.), *Euskalerriko atlas etnolingüistikoa - EAEL*, I. liburukia 1983, II. liburukia 1990, Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Galdesortak 570 galdera ditu eta Marcel Cohen-ek hizkuntza desberdinean aplikatzeko prestatutako *Questionnaire linguistique* delakoa da.

Inkesta-lekuak: euskararen eremu osoa hartzen duen proiektu honek 190 inkesta-lekutako datuak bildu ditu, baina 80 herritakoak baino ez dira argitaratu. Lurraldeka herriak hauek dira:

- Bizkaia: 13 herri
- Araba: 3
- Gipuzkoa: 18
- Nafarroa: 26
- Lapurdi: 7
- Behe Nafarroa: 6
- Zuberoa: 7

Inkestagileak: egitasmo honetako datu-bilketan jende askok hartu zuen parte. Hauen artean denetarik aurkitzen bada ere, nagusiki ikasleen bidez jasotako datuak dira. Nafarroan, esaterako, 41 inkestagilek hartu zuten parte. Gehienek, gainera, herri bakarreko datuak jaso zituzten. Baina badira salbuespenak; hauen artean Koldo Artola aipatu behar da (13 inkesta egin zituen); Koldo Artola, formazioz hizkuntzalaria ez bada ere, inkestagintzako sekretu guztiak ezagutzen dituela esan behar da, datu-biltzaile bikaina baita, bere argitalpenetan erakutsi duen bezala. Inkestagileen artean entzute handiko beste bakan batzuk ere agertzen dira: horien artean aurkitzen dira Sánchez Carrión eta Mariano Izeta.

Datuak bi liburukitan argitaratu dira: bietan sistema bera erabili da: ezkerreko orrialdean mapa eta leienda, eskuinekoan erantzunen zerrenda. Mapa ikurren bidez eraiki da. Erantzunen zerrenda herrialdeka eratuta aurkezten da.

II. liburukian, eranskin gisara, «Etnotestu linguistikoak» izenburupean herriz herri gai desberdinez bildutako testuak agertzen dira. Bonaparte printzearen sailkapenari jarraituz euskalki, azpieuskalki eta hizkera edo barietate guztietako testuak bildu eta argitaratu dituzte. Guztira 55 herritako testuak agertzen dira. Euskararen eremuaren mapa gaurkotua ere argitaratu dute liburuki honetan.

2.3.2. *Lanaren balioa*

Izan dituzten arazo guztien gainetik eta izan dituzten kritika guztiak albo batera utziz (8), esan daiteke ezer baino lehen, datu berriak agertzen zaizkigula eta alde horretatik urrats berria dela gure hizkuntzaren ezagutzarako.

Datu interesgarriak eta probetxugarriak agerrarazten dituztela ezin da ukatu. Hala ere, proiektuaren ibilbidean izan zituzten arazoak, taldearen aldaketak, inkestagile ez profesionalak aritzea, datu-bilketarako metodologia zehatza ez ezartzea (alfabeto fonetikoak, erantzunen zehaztasuna eta egokitasuna...) datuak kontuz hartzera gonbidatzen gaituzte. Zenbait kasutan datuen ziurtasuna zalantzan izateak ez dio proiektuari balioa kendu behar, baina ezin dio inolaz ere inori fidagarritasun osoz erabiltzeko zilegitasunik eman behar. Egokitzat jo behar da, alabaina, datuak frogatzeko edo beste ikerketa batzuetan jasotakoan alboan ezartzeko duen balioa.

Dena den, irakurketa geolinguistikorako baliagarri gertatzen da, bestek beste, adibidez, J. Allières-ek lan hau erabiliz egindako lanetan erakutsi legez.

2.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) (9)

Euskaltzaindiak 1993an abiarazi zuen, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas EHHA* izenarekin, gaur egun *Euskararen Herri Hizkeren Atlas EHHA* deitzen den proiektua.

2.4.1. *Proiektuaren ezaugarriak*

Egitasmo honek lortu du Euskal Herrian inoiz egin den datu-bilketarik handiena. Euskararen lurretako hiru administrazio esparruak hartzen ditu: Euskadiko Komunitate Autonomoa, Nafarroako Komunitate Forala eta Pirineo Atlantikoetako euskararen lurralde historikoak.

Egitasmoak 2.875 galdera dituen galdesorta erabili du 145 herritan. Hauerarik 27 herri Nafarroako Komunitate Foralean kokatzen dira.

(8) Ikus adibidez, J. Elortza / J. L. Ormaetxea, 1995, «EAEL eta Arrasateko hizkera», in R. Gómez / J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua* (Donostia, 1991ko irailak 2-6), ASJUren Gehigarriak-XXVIII, Donostia, 479-494.

(9) G. Aurrekoetxea / X. Videgain, 1987, «Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren ezaugarri nagusiak», in *II. Euskal Mundu Biltzarra*, 2.II, 457-462; G. Aurrekoetxea / X. Videgain, 1988, «Euskal Herriko Hizkuntza Atlas 1987an», *Euskera* XXXIII, 625-632; G. Aurrekoetxea / X. Videgain, 1989, «L'atlas linguistique du Pays Basque. Euskal Herriko Hizkuntza Atlas», *Bulletin du Musée Basque* 1. trim., 495-510; G. Aurrekoetxea / X. Videgain, 1990, «Euskal Herriko Hizkuntza Atlasari buruzko zertzelada batzu», *Karmel* 193, 44-48.

Inkestak 1986. urtean hasi eta 1992an amaitu ziren. Nafarroan datu-bilketan lau ikertzaile aritu dira: A. M. Echaide, Koro Seguro, Izaskun Etxebeste eta Gotzon Aurrekoetxea. Lauok jarraitzen dute oraindik ere EHHako lanetan, dedikazio eta zeregin desberdinekin bada ere.

Aurreko egitasmoetatik bereizten duen EHHako datu-bilketaren ezaugarri bat inkestak osoki grabatu izana da; Nafarroan 670 ordu inguru grabatu dira. Honek inoiz Nafarroan egin den datu-bilketa sistematiko handiena dela esan nahi du. Baina datu-bilketa honek badu beste ezaugarri bat oraindik garrantzitsuagoa egiten duena: bilketan jasotako guztia audioan jaso dela, hain zuzen ere. Material audio hau, CD-tan ezarria, Azkue Bibliotekan jarri du ikertzaileentzat eskuragarri Euskaltzaindiak. Informazio hau guztia euskararen ikerketan aurreratzeko bildu zen eta helburu horrekin erabiltzea aldarrikatzen dugu, biltzean izan zuten helburuz kanpoko erabilerak gaitzetsiz.

Datu-bilketa era honek, aurreko guztiak gutxietsi gabe, ikertzaileak datu bat ere ez duelako gutxietsi behar, geolinguistikan duen garrantzia aipatu nahi nuke hemen. Izan ere, aurrerantzean egin daitezkeen ikerketa askoren atek irekitzen dituelako.

Oraindik lehen liburukia ere argitaratu ez den arren, Euskaltzaindian lanean diharduen EHHA lantaldeak dagonekoz 4. liburukia amaitzean du une honetan.

Egitasmo honek berrikuntza handiak dakartza hizkuntz kartografiara. Bi azpimarratu nahi nituzke aurkezpen labur honetan:

- Inkesta-metodologia. Metodologia hau erabiliz bi motatako informazioa bildu da: a) informazio-emaileak galdera bati emandako erantzunak; eta b) inkestagileak herrian erabiltzen diren galdetuz proposatutako hitzak; hots, lekukoak bere kaxa emandako erantzunak eta proposatutako en arreean izan duen jarrera landu da. Halaber, informazioa bi euskarritan erabil lezake: material audioa kontsultatuz edo transkribapenak erabiliz. Bestalde, erantzunez gain, galderen eta erantzunen inguruko datu eta kultura tradizionalari dagozkion ezaugarriekin testuak ere bildu dira.
- Mapagintza. Mapak egitean bi irizpide erabili dira: datuak hizkuntz interpretazio batekin lagunduta eta interpretazio kartografiko batekin argitaratzea. Hizkuntz interpretazioa galdera batean jasotako erantzunak multzokatzean erabiltzen diren irizpideek eragindakoa da. EHHAn ez dira erantzunak jaso bezala maparitzen; irizpide batzuk jarraituz datuak multzokatu egiten dira lematizazioa deitzen den prozedura baten bidez. Lematizazio honen emaitza da mapetako leienda egiten duena. Mapak eraikitzean, hizkuntz atlasetako kartografia ereduak alde batera utziz, berrikuntzak dakartza EHHAk. Mapen oinarria hizkuntza eremuak dira, zeinetan lema bakoitza kolore batez marrazten den. Lortzen den mapa ohikoa baino irakurgarriagoa da. Esaten dudana egiaztatzeko erkatu bai-

no ez dago ALEANReko mapak eta EHHAk ekoiztu dituenak desberdintasuna ikusteko.

2.4.2. *Lanen egoera*

Hizkuntza atlasgintzan zeregin desberdinak burutu behar izaten dira. Hats handiko ikerketetan bezalaxe, denbora asko eskatzen duten lanak izaten dira egin beharrekoak: datu-bilketa, datuen informatizazioa eta argitalpena prestatzea.

EHHAn datu-bilketa amaitu ostean, datuen informatizazioa eta argitalpena prestatzea modu kateatuan egitea erabaki da: une honetan oraindik datuak informatizatzen ari garen bitartean, jada informatizatuta daudenen argitaratze-lanetan dihardu lan-taldeak.

Datuak informatizatzeke %30 gelditzen da une honetan. Aldi berean, aurreikusten diren 10 liburukietatik laugarren liburukiaren prestaketa-lanetan ari dira.

2.5. Atlas Lingüístico de la Península Ibérica (ALPI) (10)

Espanian burutu den lehen hizkuntza atlasaren egitasmoa gerra aurrean sortu zen. Tomás Navarro Tomásek gidatu zuen gerra sortu arte. Sakabanatu ziren lanak bildu ostean lehen liburukia, Fonetikari buruzkoa, 1962. urtean argitaratu zen. Argitaratu den liburuki honek 75 galdera biltzen ditu.

Galdesorta bi ataletan bananduta dago: I. atalak (fonetika, morfologia eta sintaxia) 411 galdera biltzen ditu, zeinetatik 281 hitz isolatuak diren eta gainerako 130 esaldi laburrak. II. atalean (lexikoa eta etnografia) bi galdesorta daude: II G (417 galdera) eta II E (833 galdera). II E galdesorta da nagusiki erabili zena.

Inkesta-lekuak: Penintsula osoa hartzen du, «las tres lenguas románicas de la Península Ibérica» (ALPI-ren sarrera) besarkatuz. Baina ez zituzten Penintsulako lurralde guztiak aztertu eta Penintsulaz kanpoko lurralde batean, Rosellónen, ere bildu zituzten datuak («Si bien el Rosellón pertenece a Fran-

(10) ALPIko metodologiaz bibliografia: Navarro Tomás, «The linguistic Atlas of Spain and the Spanish of America», *Bulletin of the American Council fo Learned Societies* (Washington, 1944), 68-74; L. Rodríguez Castellano, *El Atlas Lingüístico de la Península Ibérica (ALPI)*, Archivum (Oviedo, 1952), II, 288-296; M. Sanchis Guarner, *La Cartografía lingüística en la actualidad y el Atlas de la Península Ibérica*, CSIC, Monografías de Ciencia Moderna 43 (Madrid, 1953), 74 orr; eta «Cartografía Lingüística Catalana», *VII Congreso Internacional de Lingüística Románica. Actas y Memorias II* (Barcelona, 1955), 647-654; L. F. Lindley Cintra, «Enquêtes au Portugal pour l'Atlas Linguistique de la Péninsule Ibérique», *Orbis III* (1954), 417-418.

cia desde el siglo XVII, ha sido incluido en el ALPI, puesto que en él es el catalán la lengua autóctona», ídem). Baina Penintsulako bi eremu utzi zituzten bilketatik kanpoan: Aran «(...) aunque el Valle de Arán se encuentra en territorio español (provincia de Lérida), ha quedado excluido del ALPI, pues su habla vernácula, el aranés, es un subdialecto gascón y pertenece a la familia galorrománica» (ídem) eta euskara, «Como el ALPI estudia las lenguas peninsulares románicas, fuera de él ha quedado el vasco, lengua no indoeuropea con problemas particulares, que requiere un atlas lingüístico y etnográfico propio; se incluyen en el ALPI, sin embargo, algunos puntos de las zonas históricas del vasco, en que hoy solamente, o casi solamente, se habla castellano» (ídem). hauen artean kokatzen dira 4 Araban eta 1 Bizkaian eta 5 Nafarroan.

528 inkesta-leku biltzen ditu guztira ALPI-k: 156 galego-portugesaren eremuan, 276 gatzelaniakoan, 96 katalanean.

Nafarroan 5 herri aukeratu ziren: Goñi (600), Orisoain (601), Arguedas (602), Uscarrés (603) eta Itzazu (604). Nafarroako lurraldeetan inkestagintzan Espinosa, Castellano eta Sanchis Guarner aritu ziren.

Berriemaile pertsona zaharrak aukeratzeko joera izan zuen proiektuak, baina ez zaharregiak; bertan jaiok eta gurasoak ere bertakoak zituztenak, gutxi bidaiatuak eta inoiz kanpoan bizi gabekoak eta gizonezkoak, gehienki nekazaritzaz ari delako nagusiki galdesorta.

Argitalpenaz, Balbín-en zuzendaritzapean, Sanchis Guarner arduratu zen: erredaktore taldea koordinatzen, mapak egiten eta probak zuzentzen.

Argitaratu den liburuki bakarrean (fonetikari buruzkoa) mapak alfabetikoki ordenatuta agertzen dira. Egiaz, ez da liburukia, oso tamaina handiko argitalpena baizik, oso desegokia eta erabiltezina, ez apaletan, ez fotokopia makinetan sartzerik ez duen horietakoa da.

Nafarroan jasotako datuetan ba ote euskarazko erantzunik? Egia esan, oso informazio gutxi dago erantzunen artean euskarari dagokionez. Argitaratu diren 75 mapetatik 3tan baino ez da euskarazko zerbait jaso. Mapok 3.a, 7.a eta 11.a dira:

Hala, 2. mapan 'denominación de los habitantes': Goñin (600 puntua) «goñikos» eta Itzaltzun (604 puntua) «izalzuarras» jaso dira; 7.ean ('abrevadero') Goñin, Orisoain-en (601), Uzkartzen (603) eta Itzaltzun «aska» jaso da eta Arguedas-en «pila»; 11.ean 'aguijón (de la abeja)' Orisoain-en «etzen».

Ez da liburuki gehiago argitaratu orain artean. Proiektua alboratua izan zen eta materialak sakabanatuta gelditu ziren. Berrikitan David Heap kanadiarra proiektua berreskuratze lanetan ari da eta bildu dituen materialak interneten jarri asmo ditu. Baina hori proiektuaren geroan sartzea da eta ikusi beharko litzateke erantzunen artean euskal hitzik agertzen den.

2.6. Atlas Lingüístico y Etnográfico de Aragón, Navarra y la Rioja (ALEANR)

Nafarroako euskarari buruz askoz datu gehiago bildu ditu Manuel Alvarrek diseinatu eta, A. Llorente, T. Buesa eta E. Alvarren laguntzarekin, burutu zuen proiektuak. Datuak 12 liburukitan argitaratu dira (1979-1983).

Proiektu honen galdesortak 2.565 galdera izan ditu (fonetikaz 132, morfologiaz 117, sintaxiaz 93 eta lexikoaz 2.223).

Inkesta-lekuak: izenburuak dioen bezala, Aragoiko hiru probintzietako (Zaragoza, Huesca eta Teruel), Nafarroa, Errioxa eta Soriako lurrak, eta Guadalajara, Cuenca, Valentzia eta Castellóneko muga herriak hartzen ditu. Guztira 179 inkesta-lekutan jaso dira datuak. Horietarik 36 Nafarroan.

Inkestak 1963tik 1968ra bitartean egin zituzten hiru inkestagileren artean (M. Alvar bera, T. Buesa eta A. Llorente). 7 lekutan izan ezik gainerako guztietan inkestagile bakarra aritu zen datuak biltzen.

Atlas hau ere gaztelaniaren atlasa da, baina euskararen eremuan gaztelaniazko zein euskarazko erantzunak agertzen dira.

Galderen artean, eta kuriositate batzuk aipatzearren, bada galdera bat (5.a) zeinetan itauntzen den herrian egiten den hizkuntza zein den. Euskararen eremuan jasotako erantzunak ondokoak dira:

- Na100: Bera: euskara eta kastellano / basko eta erdara
- Na101: Goizueta: vasco, kastellano
- Na102: Arriba: vasco
- Na103: Arcos (Urantzia): euskera
- Na104: Arbizu: vasco
- Na105: Ziordia: castellano
- Na106: Olo: castellano
- Na200: Lekaroz: euskera, vasco
- Na201: Espinal (Aurizperri): castellano
- Na202: Egozkue: vasco, castellano (vasco: se habla poco)
- Na203: Erro: castellano
- Na204: Garaioa: azkuano
- Na205: Otsagabia: montañes
- Na206: Erronkari: ronkales, ronkaliarras
- Na300: Iruñea: castellano

Gainerakoetan «castellano» hitz egiten dela diote nagusiki, nahiz beste-lako erantzunak ere bildu diren; hala nola, *baturre*, *hablar basto*, *a lo bruto*, *hablar torzido*, *español*.

Hizkuntza atlas honetan euskarak duen presentzia norainokoa den eta zein garrantzia duen ez da oraindik modu sistematiko batean aztertu; hala ere, baditugu bide erakusgarriak diren lanak: horietakoen artean kokatzen dugu Asunción Martínezen artzantzari buruzko euskal lexikoaren azterketa (11).

3. EREMU DESBERDINAK BILTZEN DITUZTEN IKERLANAK

Lan geolinguistiko handi eta orokor hauez gain, badira eremu txikiago edo arazo konkretu bat edo batzuk baino landu ez dituztenak ere.

3.1. Horietakoen artean kokatzen dira Pedro de Yrizarren lanak. Euskararen eremu osoa kontuan hartuz adizki jokatuari buruzko egin duen lan ikaragarriaren lehen emaitza burutu zuen 1981. urtean argitaratutako *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* liburu ezagunean. Ondoren zendu artean ekin dio aditza lantzeari euskararen aldaera guztietako aditz laguntzailea bilduz. Hegoaldeko nafarrerari dagokionez *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki), *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* eta *Morfología del verbo auxiliar roncalés* argitaratu ditu, behe-nafarreran sartzen diren hegoaldeko Nafarroako hizkeraz gain. Lan esker-ga da burutu duena, laguntzaile fin eta adituez baliatuz.

3.2. Iñaki Gamindek lan asko burutu ditu Nafarroako hizkeren gainean, Nafarroako Komunitate Foraleko eremu osoa nahiz eremu txikiagoak hartuz. Ikerketa lerro nagusienak aditza eta azentua izan ditu. Aditzari buruz *Aditza Ipar goi nafarreraz* (3 liburuki) da lanik biribilena. Azentuari buruz Nafarroako hizkeren sailkapena gauzatu du (Gaminde 1998). Lau eremu bereizten ditu:

- a) Bidasoa (Bera, Arano, Zugarramurdi)
- b) Mendebaldea-Sakana (Alli, Beruete, Olazagutia, Lizarraga, Lakuntza)
- c) Erronkari-Zaraitzu (Erronkari, Zaraitzu)
- d) Ekialdekoa (Amaiur, Ilarregi, Mezkitrit, Abaurregaina)

(11) «El léxico vasco del pastoreo en El Atlas Lingüístico y Etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja», *ASJU* XXXIV-2 (2000), 361-396.

3.3. Sánchez Carrión <Txepetx>ek 1974an *FLV*-en *esan / erran*-en muga goi-nafarreran ezarri zuen. Bere garaian esanguratsua gertatu zen lana, zalan-tzarik gabe (12).

3.4. UEUren babesean Txillardegik gidatutako *Euskal Dialektologiaren hastapenak* eskuliburuan ezaugarri fonologikoen eta fonetikoen hedadura aztertzen duten mapak eskaintzen dira. Nafarroari dagozkionak ondokoak dira:

- /j/-ren ahoskera
- bokal harmoniari buruzkoa
- Eufonia bokalikoak
- *r / s* alternantziak
- *itxe / etxe* eremua aztertzen duena

3.5. R. M. Pagolak 1992 argitaratu duen *Euskal Fonetika Nafarroan (Euskal Herriko Hizkuntza Atlaserako ekarria)* liburuan Nafarroako 20 herri-tako datuak eskaintzen dira, 20 iparraldeko goi-nafarrerakoak eta 1 lapurtera-koa, hain zuzen ere (Auza eta Laraintzar Ultzaman; Arrarats eta Beramendi Basaburua Handian; Goldaratz Imotzen; Beunza Atezen; Aniz, Amaiur, Gart-zain, Arraioz eta Oronoz-Mugairi Baztanen; Arantza eta Etxalar Bortzirietan; Oieregi Bertizaranan; Donamaria, Sunbilla eta Ituren; Eratsun Basaburua Txikian; Aldatz Larraunen eta Zugarramurdi). Galdesortak 291 itaun biltzen ditu.

Lanean mapa desberdinak erakusten ditu:

- Areatako mapak (guztira 55 mapa: 21 bokalei buruzkoak eta 34 konts.): «i»ren armonia bokaliko mugatu singularrean, «-o»ren armonia bokaliko mugatu singularrean, bustidura automatikoa, «rtz» / «st» ezaugarriaren muga; *ozkatu / autsiki* lexemen muga...
- Erantzunkako mapak: herri bakoitzean jaso den erantzuna ikurren bidez irudikatuta herriaren ondoan (II. liburuki osoa hartzen dute horrelako mapak, guztira 459 mapa).

3.6. Jaques Allièresek 1995an EAELeko datuekin izenburutzat «Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoz» duen lan bat argitaratu zuen, zeinetan 22 mapa sintetiko agertzen diren. Euskararen eremu osoa kontuan hartuz eta lexikoari dagokionez muga nagusi batzuez gain kontzeptuzko mapak ere argitaratu zituen.

(12) «Erran/esan en el área lingüística alto-navarra», *FLV* 17, 261-264.

4. MONOGRAFIAK

Ez da erraza hitz bakar batzuetan maila honetako lan mardulei buruz aritzea, ezta hau gunea horretaz jarduteko. Hemen nabarmendu nahi dena ondokoa da: badirela hizkera batzuk zeinek monografia onak dituzten eta badirela beste batzuk oraindik horrelako monografia baten zain dauden.

Aipamen hutsa eginagatik ere, ez dira lan guztiak maila berekoak eta horregatik beragatik aipamenetan ere bereizi beharra dago.

Arte eta molde desberdinetako lanak aurkituko dituzu ondorengo lerroetan: aztertzen duten gaiaren aldetik, ikuspuntu teorikoaren aldetik, ikerketaren sakontasunaren aldetik. Denek dute, hala ere, ezaugarri bateratu bat: sakontasun maila.

Elkarren segidan azaltzeak ez du esan nahi maila berean kokatzen ditugula; halako hizkeraren gainean honelako ikerketa burututa dagoela adieraztea da gure helburua, ez besterik.

Zerrenda honetan agertzen den lan bat baino gehiago dialektologia esparrutik atera ere izan da, hizkuntzalaritzari dagokion lana dela iritziz. Dialektologia hizkuntzalaritzaren barneko diziplinatzat aldarrikatzen dut; ez hizkuntzalaritzaz kanpoko zerbait. Eta ondorioz, hizkuntzalaritzaren aitzinamenduak eta marko teorikoek eragin zuzena behar dutela dialektologian ere uste dute-netarikoa nauzue. Ezinezkoa da dialektologia egitea hizkuntzalaritzaren marko teorikoak kontuan izan gabe edo horiez landa. Ez naiz arituko bada, beste norbaitek zioen bezala, dialektologia ona eta dialektologia txarra bereiziz. Nahiago dut dialektologia tradizionala edo ohiko dialektologia eta egungo dialektologiak aritzea.

Ez da bidezko dialektologiaren markoa hizkuntzalaritza historikoarekin bakarrik lotzea eta marko teoriko hori bakarrik erabiltzen zen garaietako metodologiarekin ikertzea. Hizkuntzalaritzak beste marko teoriko berri batzuk ere garatu ditu eta dialektologian ezin da horiek sortu ez balira bezala aritu. Hori aldarrikatzen zuten jada aspaldikoak diren Ø Panetan Weinreich (1954), Viaplana (1994), Trudgill (1984...), B. Newton (1972), W. Labov (1983), L. Campbell (1972) eta beste batzuk.

Zerbait bada fonologia ikertzean hizkuntz laborategirik ez erabiltzeko joera azken urteotako ikerketarik gehienetan, tresneria aspaldi garatuta dagoen arren eta euskarari dagozkion aplikazioak ere ezagunak diren arren. Honek Ø zer pentsa eman behar liguke diziplina honetan dihardugun profesionaloi.

G. N'Diaye eta P. Salabururen ikerketak izan dira bide urratzaile Nafarroako monografia dialektaletan; ez dira, haatik, molde horiek erabiltzen jarraitu eta bestelako moldez egin dira Nafarroan monografia gehienak, eskola jakin bati jarraiki. Hauetan datu eskaintza handia izan den arren, metodolo-

gian agian errepikakorregiak gertatzen dira eta ez da aurrerakuntza handirik nabari.

4.1. Geneviève N'Diayek 1970an argitaratu zuen bere *Structure du dialecte basque de Maya* tesi-ikerketak. André Martinet-en ikasle izanik, bere maisuak defendatzen zuen marko teorikoan garatu zuen Amaiurko hizkeraren azterketa. Urrats metodologikoak modu itxian jarraitutako ikerketak behar baino ospe txikiagoa izan du.

4.2. Pello Salaburuk 1984-an argitaratu zuen Baztango hizkerari buruzko bere tesi-lana. *Hizkuntzaren soinu egitura (hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia (1))* eta *Arau fonologikoak (Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia (2))* liburukietan.

Baztango euskalkiaz egin den deskribapen partzial baina sakona den hau berebiziko garrantzia duen ikerketa-lana da, garaiko hizkuntza teoria oinarritzat hartuz euskalki edo hizkera baten azterketa nola egin daitekeen erakusten du eta.

Lana partziala dela diogu fonologia baino ez duelako ikergaitzat hartzen, hizkuntzaren gainerako arloak albo batera utziz.

4.3. Orreaga Ibarrek 1994. urtean argitaratu zuen *Ultzamako hizkera* ikerketa-lanean Ultzama, Basaburua, Imotz, Atetz eta Anueko hizkeren mugak bereizteko mapak erabiltzen ditu. 40 mapatatik 8 fonologiar buruzkoak dira (geldituko / gelditiko, illera / illarra, bizkerra / bizkarra, abratsa, atra / abiatsa, atia, erran / esan, -st- / -rst- / -rtz-, joan /xoan...); 6 izen morfologiaz (semja / semeá / semii / semee, soroa / sorua, begié / begía / begié / begii, begiek / begiak / begik, -rendako / -rendako, -rentzat, -dik edo tik / -diken edo -tiken); 12 aditz morfologiaz (gaa-zaa-dee / gara-zara-dire, zaire / zaide / zaie / zait, dut-duk/n-du // txandaketa / dot-dok/n-do, dezakegu/-zu / dezakeguke/-zuke...); 5 lexikoaz (altziñe, gibela / aurre, atze, atzendu / aztu, bieli-igorri / bialdu-agindu, urrin / usai, legena / iela / elena); 9 sintesiko mapak (palatalizazioaren mapa Nafarroa eta Iparraldeko euskalkietan, sinkopa Nafarroa eta Iparraldeko euskalkietan, errotazismoa, ergatibo plurala -ek / -ak, lehenaldiko -n / Ø, iparraldeko goi-nafarrera bitan banatzeko proposamena: ekialdeko eta mendebaldeko goi-nafarrera).

4.4. Iñaki Caminok *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa* plazaratu zuen 1997an. Lan sakona zeinetan aezkeraren deskribapena sakonki burutzen duen. Aezkoako herri guztiak barne sartuz (Orbaizeta, Orbara, Aria, Hiriberri, Garralda, Aribe, Garaioa, Abaurrepea eta Abauregaina) eta hizkuntzaren arlo desberdinak deskribatuz (fonologia, izen morfologia, aditz morfologia eta sintaxia); eta azkenik, Aezkoako testu batzuk transkribaturik emanez.

Baina horrez gain, inguruko hizkerekin dituen harremanak lantzen dira: zaraitzuerarekin, goi-nafarrera eta behe-nafarrerarekin. Ez da argitarapenean hizkuntza ezaugarrien isoglosarik mapetan marrazten.

4.5. Mikel Olanok *Areso eta Leitzako hizkerak (bertako hitz eta historian barrena)* argitaratu zuen 1998an. Bertan egileak bi herriotako hizkeren ohiko deskribapen dialektologikoa egiten du. Azken partean, ia ehun orrialde-tan, jasotako testuak biltzen dira.

4.6. Eneka Maiz eta Iñaki Mundiñanok 1998an *Etxarrietatik Sakanera* deitu liburua argitaratu zuten. Bertan ezaugarri batzuek mapetan ezarri dituzte: dot / det / dut, asko /aski, bidali / igorri, bits / apar, domeka / igande, esnatu / i(r)atzarri, igo / itzego / igan, izara / maindire, ondo / ongi.

4.7. Orreaga Ibarrek *Erroibarko eta Esteribarko hizkera* argitaratu zuen 2000. urtean. Ohiko dialektologiaren ikusmoldearekin burututako ikerlan honetan zenbait mapa eskaintzen ditu Ibarrek: (g)au - (g)oi - (g)ura / au - oi - ura, nitze(n) / nitzen / nitza, dako / dio /dio-dako, dauzut / dizut...

4.8. Jose Luis Erdoziak *Sakana erdialdeko euskara* ikertuz bere ekarpena argitaratu zuen 2001ean. Bere tesi-lan honetan, nagusiki ondorioetan, ezaugarri baten ingurukoak zein mapa orokorrakoak agertzen dira, azter-eremua nafarrera barnean kokatzen duen proposamena egiteko.

4.9. Cabodevillak *Aetzen uskara* argitalpenean bertako gramatika (izen eta aditz morfologia), hiztegia (euskara-gaztelania) eta Mateo santuaren ebanjelioa aetzeraz biltzen ditu.

4.10. Aitor Aranaren *Zaraitzuko uskara (zaraitzuera ikasteko liburua)* izenburuak dioen bezala haran horretako hizkera ikasteko gramatika ordenatu bat da, bere ariketa eta guzti, hizkuntza bat ikasteko metodoa baino.

4.11. Jose Estornés Lasaren *Erronkariko uskara* bertako hizkera ikasteko liburu historikoa da, testu, kantu eta esaera batzuek hornitua.

4.12. R. Karasatorre, J. L. Erdozia eta E. Ulaiaarren *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia* liburuak bi zati garbi biltzen ditu izenburuan azaltzen den bezala. Gramatikari dagokionez hizkeraren ezaugarrien deskribapen laburra eskaintzen da.

4.13. I. Caminok Goñiko hizkeraren gainean egindako lana ere aipagarri da arlo honetan. Hiru emanalditan deskribapen zehatza egiten du.

4.14. Estibalitz Montoyak Zugarramurdiko hizkera aztertu du oraindik argitaratu ez den bere doktorego tesian.

5. HIZTEGIAK

Hiztegiak hizkeren ikerketa monografikoetan leku gutxi izaten dute; molde honetako ikerketetan ohikoa da, bestalde.

Izate honek garrantzi handia ematen dio hizkera desberdinetako hiztegiak bildu eta argitaratzeari.

Arlo honetan ere aurreratu da azken urteotan Nafarroako hizkeren lexikoa biltzen.

5.1. Mariano Izetak *Baztango Hiztegia* liburuan txalogarria da hitzen sarrerak hautatzean erabili den irizpidea. Hiztegiaren egitura, oro har, gomendagarria da zeinahi argitalpenetarako.

5.2. Josu Cabodevillak *Aetzen uskara* argitalpenean aetzera-gaztelania hiztegia agertzen du.

5.3. Aitor Aranaren *Zaraitzuko hiztegia* liburua zaraitzuera-batua / batua-zaraitzuera hiztegia da. Hiztegiak 6.000 sarrera biltzen ditu, bakoitzaren jatorria zehaztuz eta adibideekin hornituta.

5.4. Eneka Maiz eta Iñaki Mundiñanok gorago aipatutako *Etxarrietatik Sakanerara* argitalpenean bertan erabiltzen diren hitzen zerrenda bat dakarte; «ez da, inolaz ere, hiztegi osatu bat, hitz aipagarri batzuen bilduma baizik» (153. or.). Hiztegi honen osagarri aldaera edo hitzen eremua zehazten duten mapak azaltzen dira. asko / aski, bidali / igorri, bits / apar, domeka / igande, esnatu / i(ra)tzarri, izara / maindire, ondo / ongi.

5.5. Erdoziaren *Sakana erdialdeko euskara* liburuko lexikoari dagokion kapitulua, alor semantikoka banandurik eta Sakana inguruko hizkerekin alderatuz agertzen dena, osatu egiten du *Sakana erdialdeko hiztegia* argitalpenak.

5.6. R. Karasatorre, J. L. Erdozia eta E. Ulaiarren *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia* liburuaren bigarren zatian Arañaz elkarteko hitz erabilienak biltzen dira. Baina horrez gain, Elkarte bereko (Dorreo, Unanue, Lizarraga, Arbizu eta Etxarri-Aranatz) etxe-izenak eta gainerako toponimo batzuk ere biltzen dira.

6. TESTUAK

Ezein hizkeratako testuak biltzeak ezin ukatuzko garrantzia duela esan behar da. Testuen bidez biltzen den hizkeraren eta hiztunen bizitzari buruzko ezaugarriak azaltzen dira. Arlo desberdinetarako izan daitezke baliagarri testuak biltzea; izan dadin filologiarako (bere zentzu zabalenean hartuta), izan dadin etnografiarako, izan dadin historiarako, zein beste alor batzuetarako.

Testuen bilketan garrantzi handia hartzen du testuok soinu eta bideo bidez jasotzea. Maiz ezkutatuta gelditzen da egiten diren ikerketan datu-bilketaren ezaugarriak eta datu zein testuen bilketan soinua baldintza egokietan biltzeak duen garrantzia ez da kontuan izaten.

Ondoan aipatzen diren argitalpenetan, salbuespenak salbuespen, ez dira soinuak argitaratu, nahiz jada arruntak diren CD bidezko argitalpenak. Ezer deitoratzen bada, ikuspuntu kritiko batetik, hori da hain zuzen ere. Akatsa barregarria litzateke jasotako material audio hori fonotekaren baten esku utzita balego.

Ondoan Nafarroako hizkeren gaineko bilketetan jasotako testuak argitaratu dituzten liburuen zerrenda daukazu.

6.1. Patziku Perurenak *Leitzako errege erreginak (ahoz belarrirako urre altxorretan)* argitaratu zuen Ø 1996an. Leitzarrek ekoiztutako testuak (bertsoak eta beste), idatziak zein ahozkoak (hainbat berriemailerengandik jasoak) biltzen ditu liburu honetan.

Beti esan ohi da testu bilketak garrantzi handia duela herri baten kultura jasotzeko. Garrantzi handiagoa hartzen du ekimen honek Euskal Herrian gaur egun, bizimodu eta kultura tradizionalen bizi izandako belaunaldia galduz doakigun garai honetan. Horregatik bakarrik ere merezi du sentipen eta kultura hori biltzea.

6.2. Olanoren *Areso eta Leitzako hizkerak* lanean 21 testuz gain bildutako esapide eta esaera zaharrak dakartza, batzuek eta besteak gaika sailkatuta.

6.3. Euskalerrria irratia / Matias Múgicaren *Nafarroako euskaldunen mintzoak* (2 liburuki) 26 herritako testuak biltzen dira, ez arras dialektologian testuen transkribaketan erabiltzen diren irizpideak jarraituz, baina denak interesgarriak.

6.4. Zia taldeak argitaratutako *Berako erranera zaharrak* liburuan hainbat pertsonari jasotako atsotitzak jaso eta sailkaturik eskaintzen dituzte.

6.5. Pello Salaburuk *Baztango euskalkiaz* liburuan Bruno Etxenikek Bonaparte printzeari itzulitako testuak eskaintzen ditu. XIX. mende amaierako Baztango hizkeraren ezaugarriak zehazteko guztiz baliagarria da argitalpen hau.

6.6. Mariano Izetaren *Baztango kontuak* liburuan egileak ezagututako Baztango kultura islatzen du: kisu-labeak, inauteak, apostuak, ipuinak, bertso-kontuak, eta erramolde eta errainairuak.

6.7. Orreaga Ibarraren *Erroibarko eta Esteribarko hizkera* lanean jatorri desberdinetako testu batzuk biltzen ditu; bere urritasunean ederrak eremu horretako hizkeren ezaugarriez ohartzeko.

6.8. Aitor Aranaren *Zaraitzuko uskara* lanean 8 testu biltzen dira, bertako hiztunei jasoak.

6.9. R. Karasatorre, J. L. Erdozia eta E. Ulaiarren *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia* liburuan 10 bat orrialdetan esaera zahar, kantu eta ipuin banaka batzuk azaltzen dira.

6.10. Nora Iriarte eta Maite Lakarrek herri kultura tradizionala jaso eta bertako hizkeraren berri emanez *Bortzirietan aditutakoak. Ahozko tradizioaren bilduma* liburua argitaratu dute.

7. SINTESI LANAK

Azkenik, galderakako mapak eta arazo edo ezaugarri baten inguruan sortutako mapak utziz sintesi lan baten ondorioz sortutako mapak aztertuko ditugu.

Mapa hauen eraiketakako erabili behar den metodologia desberdina da. Egia esan, ez dago metodo bakar bat. Nagusiki bi metodologia desberdin erabili dira Nafarroan.

7.1. Aurrekoetxea

Aurrekoetxeak 1992an Nafarroako hizkeren egituraketaren azterketa egin du. Horretarako A. M. Echaideren *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)* laneko datuak erabili zituen, hots, lexikoa.

Bonaparte printzeak euskalkien mapa egitean erabilitako irizpideak fonetika eta morfologikoak izan arren, Aurrekoetxearen ondorioetan euskalkien sailkapena baliagarritzat jotzen da.

1999an entregatu baina oraindik argitaratu ez den gai honi buruzko bigarren ikerlanean Nafarroako hizkeren sailkapen berria aurkezten du. Nafarroa osoa bi eremutan banantzen du eta eremu bakoitza beste bitan:

- A eremua: Nafarroako ekialde osoa, Erronkaritik hasi eta Ultzamaraino.
 - A1 eremua: ekialdea
 - A2 eremua: Nafarroako erdialdea
- B eremua: Nafarroako iparraldea, Sakana eta Araitz.
 - B1 eremua: mendebaldea
 - B2 eremua: Iparraldea

Aurrekoetxeak sailkapen hau egiteko metodologia sailkatzaile eta estatistikoak erabili ditu, nagusiki dialektometria deitua izan den disziplinan erabiltzen diren prozedurak baliatuz: sailkapen automatikoa, kluster analisia...

7.2. Zuazo

Zuazok 1998an euskalkien mapa proposatzean Nafarroari dagokion lurraldea hiru eremutan sailkatzen du:

- Ekialdeko nafarrera: Zaraitzu hartzen duelarik;
- Nafarrera deituan Aezkoatik Bortzirietara eta Goizuetatik Atetzera Malerrera eta Ultzamatik pasatuz, eta Sakana eta Burundako zatia sartzen du.
- Erdialdekoa deituan ohiko gipuzkerarekin batean Nafarroako Areso, Basaburua, Araitz, Larraun eta Imotz; eta hauekin batean Sakana eta Burundako zati bat.

Zuazok erabili dituen prozedura eta datuak eta Aurrekoetxeak erabili dituenak desberdinak dira:

- datuak: Aurrekoetxeak datu lexikalak bakarrik erabili ditu, Echaidek Nafarroako hizkerak aztertzeako egindako inkestan jasotako 301 galderatako erantzunak. Zuazok ezaugarri fonologikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak.
- Prozedurak: Aurrekoetxeak hizkerak sailkatzeko erabiltzen diren prozedura sailkatzaileak erabiltzen ditu, Zuazok, aldiz, aldez aurretik zehaztutako eremuetako ezaugarriak biltzen ditu eta eremuetako mugak zehazteko erabiltzen ditu.

Ez da unea ez lekua bi ikertzaileon arteko desberdintasunaz hitz egiteko edo eztabaidatzeko, nahiz pozik egingo nukeen hizkeren arteko distantziak eta hizkeren sailkapenari buruzko lanetan erabili beharko liratekeen irizpide eta prozedurez.

8. ONDORIOAK

Nafarroako euskal hizkeren ikerketan egindakoa asko dela esatearekin ez da gauza berririk esaten. Azken urteotan ikaragarri hazi da ikerketa kopurua eta maila berean ikerketen sakontasun eta kalitatea.

Ikerketak hizkuntzaren arlo desberdinetan kokatzeak aberastasun handia eskaintzen du. Ikerketa desberdinak sailkatzean batzuk hizkuntz atlasen metodologia erabiliz burututakoak dira, beste batzuk monografiatan kokatu dira (gehienetan herri edo hizkera baten gramatika biltzen da), badira hiztegiak eta badira, azkenik, testu etnografikoen bilketak.

Egindakoaren gainean ezer deitoratzen bada orain arteko argitalpenetan ahozko dokumentuak entzuteko moduko euskarrietan gutxi argitaratu izana da. Argitalpen klasikora jo da nagusiki eta ez dira egungo teknologiak erabili.

Sail bakoitzari dagokion mapa begiratzuz gero ohar gaitzke, eremuak da-
gokienez, oraindik ikertu gabe dauden eremuak zein diren.

Asko dago, hala ere, egiteko Nafarroan hizkuntz kartografia arloan orain-
dik; adibidez, orain arteko ikerketa-lan nagusien ildotik jarraituz falta diren
eremuetako monografiak, hiztegiak zein testu-bilketak egiten jarraitu behar da.
Hizkuntzaren gaineko ardura politikoa dutenek lehentasunez bultzatu beharko
litzukete helburu horiek dituzten ikerketak.

Gabezien artean euskal hizkerak ikuspuntu soziolinguistikotik, orain ar-
tean, ez aztertu izana aipatu behar da. Dialektologiaren esparruan horrelako lan-
ak aspalditxo hasi baziren ere, ez da euskal dialektologian ezer aitzinatu alor
honetan. Ez da esan beharrik oso garrantzitsua dela jakitea zer gertatzen ari
den belaunaldien artean, adibidez. Edo zein faktoreen arabera gertatzen den
hizkuntz aldagarritasuna eremu honetan.

Aurrerantzean zaindu beharko litzatekeen beste aspektu bat hizkeretan ze-
harreko hots naturala entzuteko parada eskaintzen duten argitalpenak dira.
Egingai diren ikerketetan material audioa kalitatez jasotzea bermatu beharko
litzatekeen arazoa da.

Hizkeren sailkapena prozedura sailkatzaile estatistiko automatizatuak era-
biliz egiteko dago oraindik. Hizkeren arteko distantziak neurtzeko baliabide
teknologikoak eskura ditugun aro honetan hizkuntzalaritzan eta zertan esanik
ez dialektologian erabiltzeko zilegitasuna eta beharra sentitzen dugu.

Bestalde, Nafarroa euskararen eremuaren erdi-erdian kokaturik agertzen
zaigu, bihotz-bihotzean. Bai geografikoki eta baita euskararen aldaeren artean
ere. Nafarroako eremuan biltzen dira sarri, gorago agertu bezala, euskararen
aldaera guztiak, eremu hau baita bi muturrak lotzen edo uztartzen dituen. Ho-
rregatik oso garrantzitsua da Nafarroan biltzen diren aldaerak aztertzea, Nafa-
rroako hizkerak zehatz aztertzea, euskararen aldaera desberdinen arteko lotu-
rak maiz hemen aurkituko ditugulako.

9. BIBLIOGRAFIA

ALLIÈRES, J., 1988, «L'<Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa> et la dialec-
tologie basque», in *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskara biltzarra*, II, Eus-
ko Jaurlaritz, Gasteiz, 367-374.

ALLIÈRES, J., 1995, «Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoaz», in J.A. LA-
KARRA / R. GÓMEZ, *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1191ko irailak 2-6)*, ASJUren Gehigarriak-XXVIII, Donostia, 45-58.

AURREKOETXEA, G., 1992, «Nafarroako euskara: azterketa dialektometri-
koa», *Uztaro* 5, UEU, Bilbo, 59-109.


- AURREKOETXEA, G., 1999, «Nafarroako hizkuntz sailkapenaz», in Txillardegiri omenezko liburua (argitaratzeko).
- CAMINO, I., 1999, «Goñerriko hizkera», *ASJU* XXXIII-1, 5-78.
- CAMINO, I., 2000, «Goñerriko hizkera», *ASJU* XXXIV-1, 137-196.
- ECHAIDE, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza* (2 liburu), Iker 3, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ECHAIDE, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas 1965-1967*, Eusko Ikaskuntza (Hizkuntza eta literatura 8), Donostia.
- GAMINDE, I., 1998, «Nafarroako azentu ereduen sailkapena», *Nafarroako hizkerak, Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak (Iruñea, 1997ko azaroaren 24-28)*, UEU, 23-48.
- MAIZ, E. / I. MUNDIÑANO, 1998, *Etxarrietatik Sakanerara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- ZUAZO, K., 1998, «Nafarroako euskal hizkerak», in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak*, Udako Euskal Unibertsitatea,, Bilbo, 1-22.

1. Eranskina: Nafarroako sarea hats handiko lan geolinguistikoetan

HERRIAK	EHHA	E.I.	EAEL	ALEARN
Abaurregaina	4.26.		N-1	
Abaurrepea		170		
Aldatz		137		
Alkotz	4.17.			
Alli			N-2	
Aniz	4.18.			
Arbizu	4.2.	130		Na104
Arcos				Na103
Arriba				Na102
Arrieta		164		
Auritz			N-3	
Bera		142		Na100
Berute	4.10.	138		
Betelu		126		
Donamaria	4.15.	141		
Dorrao	4.3.			
Egozkue				Na202
Errazu	4.22.			
Erro				Na203
Erronkari				Na206
Eskaroze		167		
Esparza			N-4	
Espinal				Na201
Etxalar	4.16.			
Etxaleku	4.12			
Etxarri-Aranatz		131	N-5	
Etxarri-Larraun	4.6.			
Eugi	4.21.		N-6	
Ezkurra	4.9.			
Gaintza	4.4.			
Garaioa				Na204
Gartzaron		136	N-7	
Goizueta	4.8.		N-8	Na101
Igoa	4.11.			
Intza			N-9	
Iraberri			N-10	
Iragi		162		
Irañeta		129	N-11	
Iriberry		166		
Ituren		139		

HERRIAK	EHHA	E.I.	EAEL	ALEARN
Jaurrieta	4.27.			
Leitza	4.5.		N-12	
Lekaroz	4.19.		N-13	Na200
Lekunberri		127		
Lesaka			N-14	
Lezaeta-Azpiroz		128		
Lizarraga			N-15	
Lizaso		161		
Luzaide	4.25.		N-16	
Mezkiritz	4.24.		N-17	
NabazTxalapen		135		
Oderitz	4.7.			
Olatzagutia		132		
Ollo		134		Na106
Orotz Betelu		165		
Osteritz		163		
Otxagabia				Na205
Saldias			N-18	
Suarbe	4.13.		N-24	
Sunbilla	4.14.		N-19	
Sunbilla				
Uharte-Arakil		133		
Urdiain	4.1.		N-20	
Urrizola			N-21	
Urzainki		169		
Usi			N-22	
Uztarroze		168	N-23	
Ziganda			N-25	
Zilbeti	4.23.			
Ziordia				Na105
Zubieta		140		
Zugarramurdi	4.20.		N-26	

2. Eranskina: Nafarroa ikertu duten hats handiko hizkuntza proiektuak



3. Eranskina: Nafarroako hizkeren gaineko monografiak



4. Eranskina: Nafarroako hizkeren hiztegiak



5. Eranskina: Nafarroako hizkeren testuak

